



Telebistatik Internetera

Pantailen
erabilerari buruzko
azterlan bat



Nafarroako
Gobernua

Telebistatik Internetera

Pantailen
erabilerari buruzko
azterlan bat

© Nafarroako Gobernua. Nafarroako Gazteriaren Institutua
Egileak: Xavier Bringué, Charo Sádaba, Fernando García eta Diana González

Maketazioa: EXEA Comunicación
Inprimaketa: Gráficas Lizarra
Lege gordailua: NA-1361/2008



Gizarte ororen etorkizuna, Nafarroarena ere bai, bere haur eta gazteengan dago. Eta bizi garen Mendebaldeko munduan, belaunaldi berriak hazten doaz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta toki handiagoa hartzen ari diren ingurune batean, eta neurri handi batean, teknologia horiek definitzen dute nolakoa izanen den haur eta gazte horiek etorkizunean bizitzeko izanen duten mundua.

Errealitate horri begira Nafarroako haur eta gazteak ahal den modu onenean prestatzeko asmoz, hemen dago "Telebistatik Internetera: pantailen erabilerari buruzko azterlana" izeneko txostena, Nafarroako Gazteriaren Institutuak sustatua. Txostena gure erkidegoan gaiak duen errealitatearen isla fidela da.

Lan honek agertzeraz ematen dituen datu batzuek –besteak beste, eskola adineko haurrak dauden etxeetatik % 96an ordenagailua badagoela, eta % 84an Interneteko konexioa; ikasleen % 76,4k bakarrik nabigatzen duela Interneten; % 54,2k bakarrik ikusten duela telebista, eta % 51,8 bakarrik aritzen dela bideo-jokoetan– adierazten dute oso garrantzitsua dela informazio hori xehetasun guztiekin aztertzea eta behar diren neurriak hartzea.

Azterlaneko datuak dei bat dira erakundeentzat, hezkuntzaren arloko profesionalentzat, familientzat eta, oro har, gizartearentzat, horiek guztiak arduratu beharko baitira teknologiak gure haur eta gazteentzako galga bat izan beharrean, haien garapen pertsonal eta profesionalerako baliozko tresna bat izan daitezen.

M^a Isabel García Malo
Familia, Gazteria, Kirol
eta Gizarte Gaietako kontseilaria

Aurkezpena

Atsegin handiz aurkezten dizuet **“Telebistatik Internetera: pantailen erabilerari buruzko azterlan bat”** Nafarroako Gazteriaren Institutuak egin duen lehenbiziko argitalpena.

Azterlana 2006/07 ikasturtean egin zen, eta argitasun batzuk eskaini nahi ditu pantaila berriek, sakelako telefonoek, Internetek, bideo-jokoeak sortzen duten errealtateari buruz, eta errealtate horrek gure haur eta gazteen eguneroko bizitzan eta haien familiako, eskolako eta berdinen arteko harremanetan duen eraginari buruz.

Amaierako helburua da ezagutza hori erabiltzea maila guztietan –erakundeetan, eskoletan eta familian– hezkuntza-jarraibide eta -ekintza batzuk garatzeko. Jarraibide eta ekintza horiek lagungarri izanen zaizkigu gaurko eta etorkizuneko teknologietan trebeak diren gazteak prestatzeko, betiere elkarrizketarako, harremanetarako eta harridurarako daukaten ahalmenari eutsiz.

Lerro hauek amaitu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiet beren laguntzarekin azterlan honetan parte hartu nahi izan duten ikastetxe guztiei. Laguntza hori gabe txosten hau ezin izanen zen gaur argitara eman.



Ana Frías Pardo

Nafarroako Gazteriaren Institutuko
zuzendari kudeatzailea

Aurkibidea

01	Sarrera	11
02	Helburuak	15
03	Metodologia	19
04	Datu orokorrak	23
05	Ordenagailuak eta Internet	31
06	Sakelako telefonoak	49
07	Bideo-jokoak	61
08	Publizitatea eta kontsumoa	73
09	Telebista	93
10	Ondorioak	105
11	Bibliografia	117
12	Galdetegia	121



Sarrera

haurrek eta nerabeek hartu-eman berezia dute hainbat pantaila-motarekin. Alde batetik, pantailek haien beharra dute bizirik irauteko eta ekonomikoki errentagarriak izateko; bestetik, haurrek eta nerabeek pantailen beharra dute munduaren gainerakoarekin konektaturik jarraitzeko.

Pertsonak bere nortasuna egituratu eta ingurunean toki sozial bat bilatzen dueneko bizitzaren etapak dira haurtzarora eta gaztarora. Adin horiek berezkoa duten eskarmentu faltak errazago bihurtzen du ikasketa jarraitua eta etenik gabea izatea, bai zuzen asmatzen den garaian, bai tronpatzeko garaian. Fase horietan, bestearengandik ikasi beharra dago, eta esperientziak ere trukatu behar dira; horrenbestez, jarrera zabalagoa edukitzen da inguruan dagoenetik ikasteko. Hala eta guztiz ere, garai horretan haurra hasten da bere erabakiak bakarrik hartzen, eta irizpide batzuk behar izaten ditu erabaki horiek oinarritzeko, nahiz eta askotan erabakiak baldintzaturik egon kasuko haurra edo gaztea talde bateko (adiskideak, kirol taldeak, ikasleak...) kidea izateagatik.

Are gehiago, konexio sentimentua da gazteak teknologia erabiltzera bultzatzen dituen funtsezko arrazoia. Izan ere, pertsonen sozializazio prozesuan ezinbestekoa da talde desberdinekin harremanak izatea, eta ezagutu beharra daukagu komunikazio-harreman hori nola gertatzen den. Harreman horien bitartez, haurrak jokabideak, balioak eta trebetasunak ikasten ditu; horrenbestez, harreman hori nola gauzatzen den jakinez gero, errazago izanen zaigu haurraren hezkuntza-bitartekaritza nola gertatzen den jakitea. Hedabideekin eta, bereziki, teknologiarekin duten loturak ez die haur eta gazteei inolako beldurrik ematen, oso baliagarriak zaizkielako eta, jaiotzetik ikasitako gauzeekin gertatu ohi den bezala, naturaltasun guztiarekin erabiltzen dituztelako.



Helburuak

gaur egun, zalantzarik gabe, teknologiak eta hedabideek eragin handia dute haur eta gazteengan. Fenomeno hori dela eta, hainbat galdera sortzen zaizkigu: zenbat denboraz nabigatzen dute Interneten? Zenbat denbora ematen dute ikasten? Zertarako erabiltzen dute Sarea? Gurasoek Interneten nabigatzen al dute? Noiztik dute sakelako telefonoa? Itzaltzen al dute inoiz? Mezuak eta deiak jasotzen ote dituzte gauetz? Maiz aritzen ote dira bideo-jokoekin? Nolako jokoa gustatzen zaizkie? Bakarren batekin engantxaturik al daude? Zenbat diru edukitzen dute? Zertan gastatzen dute? Nolako eragina du publizitateak haiengan? Zenbat denboraz ikusten dute telebista? Nolako programak gustatzen zaizkie? Eztabaidatzen al dute beren gurasoekin pantailen erabilera dela eta?...

Azken batean, azterlanaren bitartez jakin nahi dugu nolako harremana duten haurrek eta gazteek pantaila mota desberdinekin –telebista, ordenagailuak, bideo-jokoak, sakelako telefonoak eta Internet– hori gero hezkuntzaren arloko eragile nagusiei, eskolari eta familiari jakinarazteko. Horren bidez, oinarri sendo bat ezarri nahi da hezkuntza hobea izan dadin lortzeko; oinarri hori, gainera, hartzaile horiei zuzendutako komunikazio ororen kalitatearen bermea izanen da.

Ondoko biak dira azterlan honen funtsezko helburuak:

1. Ikuspegi berritzaile batetik abiatuta, hartzaile nerabe eta gazteak hobeki eza-gutzea.

2. Foru Komunitateko nerabeak eta gazteak nolakoak diren ezagutzeko balio handiko ikerlana eskaintzea. Azalpen batzuk ematea, datu kuantitatiboez haratago, hedabideen eta haien mezuen aurrean adin-tarte horretakoek nola jokutzen duten jakin ahal izateko, eta nerabe eta gazte horiekin benetako elkarrizketa bat edukitzea.

Hori dela eta, azterlan honetan, lehenbizi azalduko dugu zein diren haurrek eta gazteek erabiltzen dituzten pantailak eta nola erabiltzen dituzten: non, zenbat denboraz, eguneko zein unetan eta, batez ere, haietaz nola baliatzen diren eta zein arrazoi dituzten haiek erabiltzeko. Gainera, jakin nahi dugu zer iritzi duten inkestatuek teknologiarri berari buruz. Bigarrenik, ikerketa bat eginen dugu pantaila horien erabilera dela-eta gurasoek eta irakasleek egiten duten hezkuntza-bitartekaritzari buruz. Horretarako, aztertu dugu ea gurasoek eta irakasleek haurren eta gazteen jarduerak gainbegiratzen dituzten edo haiekin ados dauden, eta haurrek eta gazteek teknologiak ongi ezagutzen dituzten eta haietaz nola baliatzen diren.

Lortu ditugun emaitzak Nafarroako 10 eta 18 urte bitarteko ikasleen isla bat dira, haien analisi orokor bat egin baita, ondorio zehatzekin eta hezkuntzarako gomendio batzuekin.



Metodologia

aurreko helburuak lortze aldera, informazio zehatza jasotzeko tresna bat esku-ratu zaie **gonbidatutako ikastetxe nafarrei**. Hartara, *on line* erako galde-tegi bat diseinatu da –gaztelaniaz eta euskaraz–, zuzen jakiteko haurrek eta gazteek zein pantaila erabiltzen dituzten, nola erabiltzen dituzten, zertarako erabiltzen dituzten eta beren familiako eta eskolako bizitzan nolako eragina duten (ikus 123. orrialdeko galdetegia). Galdetegia honako web orrian dago **www.civerticenavarra.com** eta **www.civertice.com**. Datuen bilketa, berriz, ikaste-txeetako informatika-gelen bitartez egin da.

Sistema honek hainbat abantaila dauka. Garrantzitsuena da inkesta ikaslearentzat ezaguna den ingurune batean egiten dela, eta hartara leku ezezagun batek sor leza-keen mesfidantza gutxitzen dela. Informatika-gelan irakasleak edo ikerlariak egoten direnez, ikasleek seriotasunez erantzuten dituzte galderak, eta modu horretan kutsa-duraren arazoa (hain zuzen ere, ikasleek lehenbizi galdetegi osoa irakurtzea eta gero erantzuten hastea) saihesten da. Arazo hori, izan ere, beste inkesta batzuetan maiz gertatzen da. Bestalde, saihestu egiten da beste pertsona batzuek erantzunetan era-gina izatea.

Inkestatuen sarbidea kontrolatzeko eta, aldi berean, parte-hartzaileen anonimo-tasuna bermatzeko, kode bat esleitu zitzaion ikastetxe bakoitzari. Bestalde, erabiltzai-le batek parte-hartze bat baino gehiago izan zezan saihesteko, erantzunen errepikapena test bidez analizatu da. Informazioaren kalitatea segurtatzeko beste kontrol-elementu bat ere erabili da: inkestari erantzuteko denbora-muga bat ezar-tzea eta irakaslea informatika-gelan egotea inkestari erantzuteko uanean.

Azterlanaren beste abantaila bat galdetegiari erantzuteko erraztasuna da; izan ere, ikasleek, informatika ezagutzen baitute, arin erantzuten dute. Informatizazioak, Internet bidez egiten diren gainerako ikerketekin gertatzen den bezala, bidea ematen du datuak automatikoki eta berehalakoan grabatzeko, eta datu horiek ikasleek galde-tegiari erantzuten bukatu bezain pronto kontsultatu daitezke.



Datu orokorrak

Azterturiko populazioari buruzko deskribapen orokorra

Nafarroako Foru Komunitateak 601.874 biztanle ditu (Estatistikako Institutu Nazionalaren 2006ko datuak). Haietatik % 50 gizonezkoak dira eta % 50 emakumezkoak.

1. taula

Nafarroako populazioaren guztizkoa

Populazioak 2006ko urtarrilaren 1ean

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Nafarroa	601.874	300.917	300.957

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala, 2006

2. taula

Nafarroako populazioaren guztizkoa, hamabost urteko adin-tarteen arabera

Populazioak 2006ko urtarrilaren 1ean

	Populazioa	Ehunekoa		Populazioa	Ehunekoa
Guztira	601.874	100	45-49	43.019	7,1
0-4	30.644	5,1	50-54	37.159	6,2
5-9	28.485	4,7	55-59	35.000	5,8
10-14	27.042	4,5	60-64	30.470	5,1
15-19	28.177	4,7	65-69	24.472	4,1
20-24	36.260	6,0	70-74	26.205	4,4
25-29	49.037	8,1	75-79	23.072	3,8
30-34	52.846	8,8	80-84	17.205	2,9
35-39	50.894	8,5	85 eta gehiago	14.033	2,3
40-44	47.854	8,0			

Eskola adinean dagoen populazioa

Populazioa	Ehunekoa
114.348	19,0

10 eta 18 urte bitarteko populazioa

Populazioa	Ehunekoa
55.219	9,2

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala, 2006

Populazioaren guztizkotik, % 19, hau da, 114.348 biztanle, eskola adinean dago (0 eta 18 urte bitarte), eta horietatik, azterlanak erreferentzia gisa hartzen dituenak (10 eta 18 urte bitarteko gazteak) % 9,2 dira, hau da, 55.219 pertsona. Adin-tarte horretan, % 51,8 gizonezkoak dira eta % 48,2 emakumezkoak.

3. taula

Azterlanak erreferentzia gisa hartzen duen Nafarroako populazioaren guztizkoa

10 eta 18 urte bitarteko populazioa, 2006ko urtarrilaren 1ean

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Populazioa	28.612	26.607	55.219
Ehunekoa	51,8	48,2	100

Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, 2005-2006 ikasturtean eskolatutako populazioa 108.422 ikaslek osatzen zuten; horietatik, % 39,2 (43.193 ikasle) dira gure azterlanaren jomuga.

Laginari buruzko deskribapen orokorra

Hautaturiko lagina Nafarroan bizitokia izan eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ikasten duten 10 eta 18 urte bitarteko haurrek eta gazteek osatzen dute.

Behar adinako adierazgarritasuna lortzeko, % 95eko konfiantzarekin, eta akats-tartea % 2,5 izateko, 1.459 ikasleren lagina behar da. Guztira, Nafarroa osoko bederatzi ikastetxetako 2.231 ikaslek erantzun diote guztiz inkestari. Horietatik, 1.211 mutilak dira (% 54,3) eta 1.020, berriz, neskak (% 45,7). Ikasmilen araberako bana-keta 4. taulan ikus daiteke.

4. taula

Laginaren banaketa ikasmilen arabera


10 eta 18 urte bitarteko populazioa, 2006ko urtarrilaren 1ean

Ikasmilak	Ehunekoa	Adina	Ehunekoa
Lehen Hezkuntzako 5.a	10,7	10 urte edo gutxiago	8,2
Lehen Hezkuntzako 6.a	11,3	11 urte	11,1
DBHko 1.a	15,8	12 urte	13,9
DBHko 2.a	18,2	13 urte	16,3
DBHko 3.a	14,7	14 urte	15,9
DBHko 4.a	12,1	15 urte	12,7
Batxilergoko 1.a	6,1	16 urte	9,1
Batxilergoko 2.a	5,3	17 urte	6,4
Erdi mailako modulua	5,7	18 urte edo gehiago	6,4

Honakoak dira aztertutako ikastetxeak: hiru ikastetxe publiko, lanbide heziketako ikastetxe bat, ikastola bat eta itundutako bost ikastetxe. Modalitate bakoitzeko ikasleak honela banatzen dira:


1. irudia

Inkestatutako ikasleen banaketa ikastetxearen arabera



2. irudia

Familia osaketa, seme-alaben kopuruaren arabera



Egoera eta familia egitura

Inkestatutako gehienak aitarekin eta amarekin bizi dira (% 98,4). Nafarroako ikasleen artean, maizen topatzen den familia bi seme-alabena da (% 55,6); ondotik familia ugariak datoz (% 30,4) eta, azkenik, seme-alaba bakarrekoak (% 13,3). Nabarmentzekoa da ikasleen % 8,5ek aitona edo amona ere etxean dutela, eta horrenbestez, etxe berean hiru belaunaldi bizi direla.


Familiaren lan egoerari dagokionez, guraso gehienak langileak dira –baiezko erantzunen % 32– edo etxean egiten du lan –% 24,4–. % 22,1 “erdi mailako tituludunak” dira. Bestalde, ama gehienak langabezia daude (% 35,3) edo langileak dira (% 19,6). Aiten % 18,3 edo amen % 11,7 baizik ez dira “goi mailako tituludunak”.

Etxeko aisia

“Zer eginen zenuke gaur afaldu ondoren” galderaren erantzunei erreparatu gero, baiezta daiteke pantailek gero eta toki handiagoa hartzen dutela. Haurren % 30,6k erantzun du telebista ikusiko lukeela, % 26,6k musika entzuten lukeela eta % 22,1ek Interneten sartuko litzatekeela. Gurasoekin hitz egitea edo lo egitea oso gutxitan hautatu diren erantzunak dira.

3. irudia

Zer gustatuko litzazuke egitea gehien gaur afal ondoren?



Galdera horrek argi uzten digu, beste behin, gaur egun oraindik ere telebista dela gaueko jardueren erregina, agian mugimenduz beteriko egun baten ondoren erlaxatzeko eskaintzen duen pasibotasunarengatik, edo benetan hedabide hori erakargarri gertatzen delako eta distraitzeko balio duelako.

Ikasteko ohiturak


Inkestatuena % 40,8k dio egunero ordubete eta bi ordu bitarte ikasten duela. Neskek denbora gehiago ematen dute ikasten mutilek baino (nesken % 26,6k bi ordu baino gehiago ikasten du; mutilen % 14k baino ez du ikasten bi ordu baino gehiago).

Izan ere, mutilen % 54,1ek gehiago ikasi beharko lukeela aitortzen du, eta nesken % 46,8k baino ez du hori bera aitortzen. Gainera, nabarmena da haurren % 37k aitortzen duela beren gurasoen ustez gehiago ikasi beharko luketela; nesken artean, berriz, % 28 baino ez dira hori esaten dutenak; kasualitatez, gainera, ehuneko hori bat dator ordubete edo gutxiago ikasten dutela diotenen ehunekoarekin.

Ikasleen % 64,1ek dio ikasten edo etxeko lanak egiten bakarrik aritzen dela; ehuneko 27ri, ordea, gurasoek laguntzen diete; betiere, ehuneko hori gutxitzen doa adinean aurrera ahala. Soilik ikasleen % 9,9k du irakasle partikularra, eta % 6 akademiaren batera joaten da.

Ikasteko edo etxeko lanak egiteko erabili ohi diren tokiei dagokienez, % 74,4k dio bere logelan ikasten duela, eta soilik % 8,8k dio berariaz ikasteko prestaturiko gela bat duela. Gainera, % 5,5ek esaten du ez duela ikasteko leku finkorik, eta hori haiek beren eginbehar nagusietan distraitzeko arrazoi bat izan daiteke.

4. irudia Ikasteko tokiak




Inkestatuei galdetzen zaie, halaber, etxeko lanak egiteko erabili ohi duten teknologiari buruz. % 67,3k dio ordenagailua eta Interneteko konexioa erabiltzen duela; horien artean, neskek gehiago dira (% 70,5) mutilak baino (% 64,8), eta joera nabarmen handiagoa da adinean aurrera joan ahala.

Ikasteko ordenagailua eta Sarea erabiltzen dituzten inkestatu gehienek –% 51,3k– web orrietan bilatzen dute informazioa. % 38,6k lanak egiten ditu ordenagailuetan; azkenik, % 35,3 entziklopedietan informazioa bilatzen aritu ohi da. Oro har, Sarea informazioa bilatzeko baliatu ohi dute, baina baita ere beren lagunekin komunikatzeko (% 24,7 dira hori diotenak). Are gehiago, egiazta daiteke ikasleek aldi berean bi gauza horiek edo gauza bat baino gehiago egiten dituztela.

5. irudia

Ordenagailuaren/Interneten erabilera



Hala eta guztiz ere, % 24,5ek dio ez duela ordenagailua erabiltzen ez baterako, ez besterako; horren arrazoa izan daiteke ikasleen % 50,5ek aitortzen duela beren irakasleetatik bakarrak ere ez duela Internet erabiltzen. Ehuneko hori nabarmentzekoa da, zeren eta ikasleek beren irakasleei buruz duten ikuspegia azaltzen duen adibide bat baita, eta kontuan hartu behar da irakasleak direla haur baten hezkuntza-prozesuko osagai garrantzitsuenetako bat.

5. taula

Interneten erabilera irakasleen artean

Ez, bakarrak ere ez	Bai, batzuek	Bai, ia guztiak	Bai, guztiak
50,5	46,3	2,5	0,8

Dena den, ikasgai batzuetan joera handiagoa dago ikasgelan Sarea erabiltzeko; izan ere, ikasleei Interneten nabigatzen laguntzen diete. Zientziak, % 22,2rekin, da gehien aipaturiko ikasgaia; ondoren hizkuntzak datoz, % 21ekin, eta azkenean Gaztelania, % 15ekin. Horietan, bistan denez, ehuneko txikiagoak ageri dira. Irakasleek Sarea erabiltzea dela-eta dagoen etsipen horren arrazoiak honakoak izan daitezke: ikasgeletan ekipamendu falta izatea, Sareaz baliatzeko irakasle guztiak beste gela batzuetara eraman behar izatea eta haietan ere ikasleek postu bana ez izatea, edo, bestela, irakasleek berek behar diren tresnak edo ezagutzak ez izatea.

Ikasgaiei dagokienez, esan daiteke gehien gustatzen zaiena Gorputz Heziketa dela, erantzunen % 49tan hori adierazten baita; atzetik, oso urrun bada ere, Zientziak datoz, erantzunen % 26,1ekin eta Hizkuntzak, erantzunen % 24rekin. Hala eta guztiz ere, ikasleen iritzia urteetan zehar ere ezin gaituz jarraitzen duen ikasgaia Matematika da (% 24,3), eta oso hurbiletik Gaztelania (% 22,1).



Ordenagailuak eta Internet

Sare orokorrak erraztasunak ematen ditu eduki pila handi batekin konektatzeko: informazioa, aisia eta, batez ere, pertsonak. Gaur egun, funtsezko lan-tresna bat da gremio askotan, eta gaurkotasuneko gaiak ezagutzeko bidea ere bada.

Internetek aukera ematen du pertsona ugari hainbat komunikazio moduren bitartez elkarrekin konektaturik edukitzeko: txata, e-posta, foroak, blogak, Messenger aplikazioa, *on line* erako bideo-konferentziak..., eta horrek pertsonen arteko harremanak aldarazi ditu. Lagun taldeek foro batean hitz egiten dute gero Sarean gehien gustatzen zaien jokoan aritzeko; ezkongaiak txataren bitartez aurkitzen dute elkar eta batak bestea *webcam*aren bitartez ezagutzen dute; karrerako antzinako ikaskideek guztientzako toki bat bilatzen dute munduan posta-talde bati esker, eta adituek blog baten bitartez partekatzen dituzte beren ezagupenak... Gero eta ugariago dira informazioa lortzeko eta jendea ezagutzeko guneak, zeren eta denboraren eta espazioaren mugak lausotu egiten baitira Internet dela medio.

Hori abantaila handia da, pertsona askoren eguneroko lana izugarri, ezin kalkula-tu adina, errazten duena, baina gauza guztietarako eta pertsona guztientzako zabalik dagoen leku bat ere bada, non hurrek bidea baitute errealitate fisikoan agian sekula ezagutuko ez zuketean mundu batera iristeko. Sarea ezagutu beharra dago, haren alde onak eta alde txarrak, haurrak babestu ahal izateko webean dauden eduki eta tresna ugariatatik. Horri dagokionez, iragazki-programa batzuk badaude gai batzuk iragazten dituztenak eta gurasoek, tutoreek edo ordenagailuko programaren instalatzaileak adierazitako eduki batzuetarako sarrera ukatzen dutenak.

Bestalde, hain ugari dira Internetek eskaintzen dituen aukerak, non pentsatu baitzen Sarearen arrakastak beste hedabide batzuk desagerraraziko zituela. Baina ez da halakorik gertatu, ez da gutxiagorik ere. Telebista asmatu zenean irratiarekin gertatu zen gauza bera gertatu da: irratia aldatzen joan ziren beste erabilera batzuetara egokitzeke: autoan jartzeko, dendetan edukitzeke, iratzargailu gisa erabiltzeke... Egia da, bai, belaunaldi berriek besapean dakartela Internetera konektaturiko ordenagailua, baina egia da, halaber, horrek aukera ematen diela munduaren gainerakoarekin konektaturik egoteko, eta ez duela esan nahi lehendik dauden bitartekoak galdu edo alde batera utziko dituztenik.

Sarea komunikazio multimedia bideratzeko aukera baten gisara sortu zen. Gaur-gaurkoz, gainerako komunikabideak integratzeko gauza den bakarra da: irratia, telebista, prentsa edo aldizkariak, zeren eta Interneteko edukiak audio edo bideo erakoak, irudiak, testuak eta abar izan baitaitezke. Horrek errazago egiten du eduki dinamikoagoak, iragankorragoak eta ia unean-unean gaurkotzekeak sortzea, eta horrek erabiltzailearengan gauzak berehalakoan lortzeko premia sor dezake, dena

“hemen eta orain” edukitzeko halako apeta bat. Eta sareak eragin dezake, halaber, internauta batzuek etenik gabeko *zapping* batean bizitzea, eta jardun horretan jardueraz, desioz eta premiez aldatzea behin eta berriz. Arrisku hori Interneten erabilearren inguruko hezkuntza osasungarri batekin saihets daiteke, Sarea helburu bat lortzeko bitarteko baten gisara hartuz, ez besterik.


Etxeko ekipamendua

Oso adierazgarria da soilik inkestatuen % 4,1ek ez duela ordenagailurik etxean. Horrek adierazten du, halaber, familietan ekipamendu maila altua dagoela, eta ordenagailua premia bat dela, telebista izan daitekeen bezala. Ikasleen % 37,4k, gainera, bi ordenagailu edo gehiago ditu etxean. Ehuneko handi horren arrazoietakoa bat telelanaren sustapena izan da, edo enpresa batzuek beren langileei ordenagailu eramangarriak eskaintzea, haien mugikortasuna errazte aldera. Nafarroaren kasuan, Gobernuak azken urteetan ordenagailua eta Interneteko konexioa ordaintzen laguntzeko hartu dituen neurriek ere eragin bat izan dute.

Etxe batean ordenagailu bat baino gehiago egoteak ez du esan nahi inkestatuak denak erabiltzea, baina bai kasu berezi batzuetan haurrak gurasoen ordenagailua erabili ahal izatea, edo beste batzuetan, etxean bakarrik dagoenean, haurrak hura erabiltzea; eta gerta daiteke, azkenik, une jakin batzuetan etxe-kide bakoitza bere pantailaren aurrean egotea eta inork ere haurrari ez begiratzea.

1. irudia

Ordenagailuaren kokapena (%)



Ordenagailuaren kokapenari dagokionez, maizen gertatzen dena da haurraren logelan dagoela (% 31,6), eta hori normala izan daiteke logela bera haurrak ikasteko lekua denean, baina zailago egiten du helduak ordenagailuaren erabilera zaindu edo gainbegiratu ahal izatea. Ordenagailuaren kokapenari dagokionez, maiztasunaren arabera, bigarren kokalekua ikasteko gela da (% 25,4), eta ondoren, antzeko proportioan, egongela dator (% 20,7).

Nabarmentzekoa da ordenagailua askotan ikasteko gelan egotea; izan ere, haurren % 8,8k baino ez du esaten toki horretan ikasten duenik; haurren % 74,4k, berriz, dio bere logelan ikasten duela. Halako paradoxa bat da familia gehienek haurrari etxeko lanetan laguntzeko erosi duten elementu hori ez egotea hain zuzen ere haurrak ikasteko prestatutako lekuan; gerta daiteke, halaber, ikasleak ohiturarik hartu ez izana ordenagailua dagoen lekuan ikasteko. Horri dagokionez, sexuen artean ez dago nabarmentzeko moduko ezberdintasunik, eta ez dirudi, ezta ere, adina denik ordenagailua toki batean zein bestean jartzeko arrazoia.

1. taula

Interneteko konexioa etxean (%)

	EZ	BAI
10 edo gutxiago	25,6	74,4
11	27,7	72,3
12	15,9	84,1
13	13,4	86,6
14	11,1	88,9
15	14,9	85,1
16	9,9	90,1
17	9,1	90,9
18 edo gehiago	14,9	85,1
Guztira	15,6	84,4

Bestalde, Interneten konexioa duten ordenagailuak % 84 baino gehiago dira, eta ehuneko hori gora doa ikasleen adinak gora egiten duen heinean; izan ere, etxean Internetera konektatzen diren mutilen kopuruak hiru puntutan gainditzen du Internetera konektatzen diren nesken kopurua.

Ohikoena izaten da, inkesta egin zen unea abiapuntu hartuta –2006ko azartik 2007ko martxora bitarte egin zen–, haurren % 36,8k konexioa 3 edo 4 urte lehenagotik edukitzea; halere, % 19,1ek dio konexioa noiztik duen ez dela gogoratzen. Kopuru horiek urtetik urtera

aldatuko dira belaunaldi berriekin; hori dela eta, ehuneko horiek baino gehiago emaitzen joera hartu beharko da kontuan. Izan ere, gero eta gehiago izanen dira Interneteko konexioan hiru urte baino gehiagoko antzintasuna duten neska-mutilak.

Baieztafen horiek berretsita geratzen dira haurrei Internet lehenbiziko aldiz noiz erabili zuten galdetzen zaienean. Etxean izan zen ala ez galdetzen ez bazaie ere, garrantzitsua da haurrak Sarean duen inplikazio maila, zeren eta horren arabera izanen baita etorkizuneko belaunaldiak bizitzako eremu guztietan konektaturik egotea: lantokia, aisialdia, ikasteko lekua, etxea... Hartara, haurren % 38,6k dio Internetekiko lehenbiziko hartu-emanan 10 urte zituenean edo lehenago izan zuela. Berriz ere, Sarea lehenbiziko aldiz noiz erabili zuten gogoratzen ez duten neska-mutilen ehunekoa nahiko handia da, % 22,7 hain zuzen ere, eta gerta daiteke etorkizuneari are handiagoa izatea, kontuan hartzen bada 10 urte edo gutxiagoko mutilen ehuneko 82,6k eta nesken % 78,9k jada Sarea erabili dutela.

Babes-sistemak dira Internet erabiltzeko garrantzitsua den beste ekipamendu bat. Guztiok ezagutzen ditugu birusek sortzen dituzten arazoak, eta programa batzuk badaudela web orri jakin batzuk bisitatzerakoan instalaturik geratzen direnak,


eta badaudela, halaber, espioi erako artxibo batzuk, ordenagailuko mugimendu guztiak zelatatzen dituztenak. Horrelakoak saihesteko, ordenagailua babestu beharra dago. Haurren % 7,3k badaki babesen bat duela, baina ez daki zehazki zein den; % 12,7k, ordea, dio ez dakiela babes-sistematik baduen edo ez duen. Gainera, inkestak % 6,1ek dio ez duelako inolako babesik. Guztira, haurren % 26,1ek, Interneten nabigatzen duenean, arriskua du bere ordenagailua kutsatua izateko. Segurtasuna babesten dutenen artean, berriz, % 65,1ek birusen aurkako programaren bat dute, eta % 20,7k susebakiaren bat, baina % 13,7k baino ez du edukietarako iragazkirik. Hartara, dirudienez, ordenagailuak babestuagoak daude internautak berak baino.

Iragazkia, izan ere, erabiltzen da Interneteko erabiltzaileak eduki jakin batzuetatik babesteko. Ardura duen helduak iragazki hori programa dezake haurrarentzat, adinaren arabera, gomendagarriak ez diren gai batzuk baztertzeko; horren arabera, haurrak ez du modurik izanen gai horiei buruzko web orrietara sartzeko. Gainera, inkestan arlo horretan arreta gehien deitzen duena da programa horien erabilera txikiagoa dela adinean behera egiten dugun heinean; izan ere, adibidez, 17 urteko ikasleek % 25,7k iragazkia dauka, baina 10 urte edo gutxiagoko haurren % 7,1ek baino ez du iragazkia jarriarik. Bestalde, harrigarri zaizkigu, beste behin, mutil ikasleek eta neska ikasleek artean dauden desberdintasunak: mutilak babestuago daude gomendagarriak ez diren edukietatik neskak baino (% 18,5 eta % 7,9, hurrenez hurren).

Ezinbestekoa da horrelako zentsura-programak erabiltzeko beharra ulertzea, betiere, haurren adinaren arabera; izan ere, balizko babesgabetasunari gehitzen badiogu haurra ordenagailuaren aurrean bakarrik egon daitekeela, eta, gainera, hel-

2. irudia

Ordenagailuaren asteburuko erabileraren eta astegunetako erabileraren arteko alderaketa (%)



duaren kontroletik kanpo geratzen den eremu batean, gerta daiteke bilaketak, edo maiz gertatzen diren nahigabeko aurkikuntzak, batere gomendagarriak ez izatea haurraren edo gaztearen adinerako.


Ordenagailuen eta Interneten erabilera

Inkestaturen % 16,2k dio astegunetan ez duela ordenagailua erabiltzen ezertarako ere, eta horretan ez dago sexuaren edo adinaren araberako desberdintasun handirik. Gehienek (% 29,3k) diote astelehenetik ostiralera hogeita hamar minutu edo gutxiago erabiltzen dituztela; halere, % 7,2k hiru ordu baino gehiago erabiltzen du. Oro har, espero zitekeenak dira astegunetako erabileraren eta asteburuko erabileraren arteko aldeak: asteburuan gehiago erabiltzen da aisia dagoelako, eta nabarmen duko dugun datu bakarra da % 45,3 baino gehiago direla asteburuan ordenagailua ordubete baino gehiago erabiltzen dutenak, eta % 15,2k, berriz, hiru ordu baino gehiago erabiltzen duela. Oro har, mutilek gehiago erabiltzen dute ordenagailua neskek baino, nahiz eta gai horretan eman diren "ez dakit" erantzunen kopurua nahikoa handia izan; izan ere, pentsa daiteke erantzun hori eman dutenak ordenagailuaren aurrean denbora asko ematen dutenak izatea.

Interneten erabilera oraindik ere ordenagailuaren erabilerak baldintzaturik dago (etorkizunean, erraz konektatuko gara sakelako telefonoaren bitartez, telebistaren bitartez, GPS bidez...), baina inkestako datuek pentsarazten dute hain zuzen ere Interneteko sarbidea dela ordenagailua erabiltzeko arrazoi nagusia. Are gehiago, askotan, ordenagailuaren erabiltzailea beti Sareari konektaturik egoten da, hura behar duenean erabili ahal izateko, helduak lan egiten duenean egiten duen bezalaxe.

3. irudia

Internet erabiltzeko tokiak (%)




Interneten erabileran sexuaren araberako desberdintasunak ez dira bereziki handiak. Halere, nabarmentzekoa da mutilen % 23,4k eta nesken % 19,9k diotela ez dutela Internet astegunetan erabiltzen.

Bestalde, Internetera konektatzeko leku ohikoena etxea da, hala esaten baitu inkestatuen % 79,9k; bigarren tokian, ikastetxea dago. Normala da haurren % 25,5ek baizik ez aukeratzea ikastetxea Internet erabiltzeko, kontuan hartzen bada inkestatuen % 3,2k baizik ez duela esaten bere irakasle guztiek edo ia guztiek Internet erabiltzen dutela. Mutilen eta nesken artean, oraingoan ere, ez dago aipatzeko moduko desberdintasunik.

4. irudia

Internet erabiltzeko uneak (%)



Internet noiz erabiltzen den galdetzen badugu, emaitzak nahiko argi daude. Interneten erabilera nahikoa banaturik dago; izan ere, haur gehienak (% 36,6) arratsaldeko zortziak baino lehenago konektatzen bada ere, gaueko 10etatik gaueko 12ak bitarte konektatzen direnak ere asko dira, % 34 hain zuzen ere, nahiz eta horiek urte gehiago dituztenak izan. Azkenik, % 6,4 dira Internetera gaueko 12etatik aurrera konektatzen direnak; gutxi diren arren, hurbiletik zaindu beharrekoak dira, zeren eta atsedean nahikoa ez hartzeak berarekin ekar baitezake hurrengo eguneko jardueretan

2. taula

Haurrak Interneten nabigatzen duenean izaten duen laguntza (%)

	Bakarrik	Lagun bat	Lagunak	Anai-arrebak	Aita	Ama	Mutil /neska-laguna	Besterik
10 edo gutxiago	50	27,2	5,4	29,3	22,3	20,1	4,9	6
11	49,4	28,1	8,8	27,7	23,3	24,1	0,8	9,6
12	74,4	38,1	15,7	26	10,6	14,1	3,8	6,1
13	81,5	42,8	20,4	25,1	12,8	11,4	7,4	9,8
14	85,2	48,9	21,8	31	11,2	11,5	11,5	6,7
15	82,1	46,7	20	20,7	7,4	8,4	11,9	7
16	87,8	42,4	22,4	20	7,8	9,3	7,8	9,3
17	90,3	36,8	12,5	21,5	10,4	10,4	13,9	6,3
18 edo gutxiago	85,3	21,7	1,9	22,4	7	12,6	14,7	6,3
Guztira	76,4	38,9	16,6	25,4	12,5	13,4	8,1	7,6

kontzentratu ezinik ibiltzea.


Asteburuan, kontsumo uneak aldatu egiten dira, irudian ikusten den bezala. Erabilerarik handiena goizez gertatzen da, haur edo gazteak etxean daudenean; arratsaldean eta gauean, berriz, erabilerak behera egiten du, hain zuzen ere, ustez, inkestatuak adiskideekin dauden garaietan.

Orain baino lehen ere adierazia dugu zeinen garrantzitsua den edukietatik babes-teko programa bat izatea. Beste behin esanen dugu oso garrantzitsua dela gurasoak eta irakasleak (ardura duten helduak) bertan egotea haurra Interneten erabilerari buruz hezteko. Izan ere, soilik % 25,9k dio Sarean aitaren edo amaren laguntzarekin nabigatzen duela; aldiz, % 76,4k bakarrik nabigatzen duela dio. Kopuru horiek gertatzen dira nahiz eta aiten % 56k eta amen % 49,3k Internet etxean erabili, eta ikasleen % 25en iritziz gurasoak izan Internet gehien erabiltzen dutenak eta nabigatzen hobekien dakitenak. Haurra hazten doan neurrian, Sarea bere kabuz erabiltzeko joera handiagoa izaten du (gainerako pantailekin gertatzen den bezala); sexuaren arabera, berriz, ez dago aipatzeko moduko alderik.

Haurra nabigatzen dagoen bitartean, gurasoen % 30,2k galdetzen dio zer egiten ari den, baina ez dugu ahaztu behar galdetzeak ez duela erabilera kontrolatzea esan nahi; izan ere, haurrak gauza bat esan eta beste bat egin dezake, Interneten egokituz jotzen duena kontsumituz. Izan ere, inkestatuen % 40k baino gehiagok dio gurasoek ez dutela ezer ere egiten bera nabigatzen dagoen bitartean. Halere, erantzunen % 30,3n, gurasoek begirada bat botatzen diete hurrei, baina % 14,6 baino ez da seme-alabekin esertzen edo ez die nabigatzen laguntzen. Oro har, neskak kontrolatuago daude mutilak baino, eta gurasoak gehiago inplikatzeko dira seme-alabak gazteagoak direnean.

5. irudia

Gurasoak zertan ari diren seme-alabak nabigatzen ari diren bitartean (%)




Garrantzitsua da ikasleari irakastea Internet erabiltzen, ohitura osasungarriak har ditzan eta ohitura horiezaz baliu dadin inork ere gainbegiratzen ez dionean. Hartara, haurra Interneten hezteko, ez dago zertan pantailaren aurrean harekin denbora guztian egon. Izan ere, zuzen jokatu toki bat duela sentituko du, eta Interneten kon-

tsumoan arduraz jokatzeko ikasiko du; betiere, gomendagarria da hurbil egotea orientatu dugun moduan jokatzeko duela egiaztatzeko.

Erantzun horietan antzematen da Sareari buruz hezteko garaian gurasoen jarre-rak haurren adinak baino eragin handiagoa duela. Askotan gurasoek ez dute aintzat hartzen beren seme-alabak Interneti buruz hezteko aukera, zeren eta beraiek ere erabiltzen ikasi behar baitute, eta, gainera, haurra teknologien alorreko etxeko aditu bihurtzen dute. Beste batzuetan, helduek Webaren erabilera ezagutzen dutenean, pentsa dezakete azalpenik behar ez duen elementu bat dela. Baina horri guztiari dagokion beste alderdi bat ere hartu behar da kontuan: askotan, haurra ez da konturatzeko gurasoen gainbegiratzeaz, eta, horrenbestez, errealitatean ehunekoak bestelakoak izan daitezke. Hala eta guztiz ere, oraindik ez da ondorio erabatekorik atera haurrek Internetez egiten duten erabilera okerrari buruz, arlo berria baita, eta horrek esan nahi du oraindik ere ez dagoela kezka argirik horri buruz, telebistarekin, esate baterako gertatzen den bezala. Azken batean, gurasoen kontrola Interneti buruz duten iritzia araberakoa izan da.

6. irudia

Alderaketa: Internet nork erabiltzen duen, nork dakien gehiago eta nork irakasten duen (%)




Bestalde, oso gauza jakina da haurra izatez imitatzailea dela: ikusten duena egiten du. Horregatik da hain garrantzitsua jakitea nork erabiltzen duen Internet etxean eta nola erabiltzen duen, zeren eta haurrentzat ikasteko iturri bat baita. Batzuetan, ez dugu haurra hezten soilik bera nabigatzen ari denean; garrantzitsua da, era berean, helduek Internet zuzen erabiltzea. Tresna didaktiko bat izan daiteke haurra gonbidatzea helduekin esertzera informazioaren bat bilatzen ari direnean, lanen bat egiten ari direnean edo aisialdi osasungarri batez distraitzen ari direnean. Ikasleei galdetzen zaie-nean etxean Internet nork erabiltzen duen gehiago, erantzuna da beraiek direla gehien erabiltzen dutenak, % 45,5; ondoren, anai-arrebak daude, % 27,2rekin; eta gurasoak, % 19,3rekin. Neskek (% 47,4) gehiago erabiltzen dute mutilek (% 43,7) baino.

Berezkoa da haurrak sinestea Internet gehien erabiltzen duena dela Interneti buruz gehien dakiena, nabigatzen ematen den denbora eta jakintza lotzen dituelako; edo gehien nabigatzen dutenengandik ikasi duelako eta haiek gehien dakitenak direla uste duelako.

Halaber, Sarearen erabilera irakasteaz arduratzen den pertsona aurreko bi aldagaien menpean dago –erabilera eta jakintza–; hala eta guztiz ere, egia esan, Interneti buruzko hezkuntza bestela ere eman daiteke. % 49,7k aitortzen du berak bakarrik ikasi duela Sarea erabiltzen (mutilek gehiago neskek baino); % 18,7k dio anai-arrebek erakutsi diotela; % 19,5ek aitak erakutsi diola, eta % 8,6k amak. % 14,3ri irakasle batek erakutsi dio.

7. irudia

Internetek zein jardueratarako denbora kentzen duen (%)



Beste ikuspegi batetik, pentsa liteke Interneten erabilera masiboak denbora kentzen diela Nafarroako ikasleei beste jarduera batzuk egiteko. Jaso ditugun erantzunek, ordea, kontrakoa adierazten dute, nahiz eta egiaztatu beharko litzatekeen erantzun horiek errealitatearekin bat datozen. Oso nabarmentzekoa da inkestatuena % 34,6k diola Sarea erabiltzeko ez dutela denborarik kentzen beste ezertatik. Horrenbestez, % 65,4k dio beste jarduera batzuetarako denbora kentzen diela; hala eta guztiz ere, erantzunen arabera, lehen kaltetua telebista da (% 38,9) eta bigarrena bideo-kontsola (% 19,4). Gehien kaltetutako arloak, beraz, aisiarekin lotutakoak dira, eta ez hainbeste harreman pertsonalak; dena den, ikasketak ere kalteturik ateratzen dira zenbaiten arabera (% 18,6).


Mutilen eta nesken arteko aldeak oso txikiak dira. Handiagoa da aldea bideo-kontsolaren erabileran; izan ere, horretan mutilek hamabost puntutan gaintitzen dituzte neskek, eta hori, bestalde, logikoa da, mutilak direlako bideo-kontsolak gehien erabiltzen dituztenak. Adinari erreparatuta, alde handienak inkestatuena adinak gora egiten duen neurrian topatzen dira: erantzun guztietan ehuneko handiagok ageri dira urteetan aurrera egin ahala.

Internetek beste jarduera batzuetarako denbora kentzen badu, kontuan hartu behar da, halaber, neska-mutilen % 50,8k diola Internetekin engantxaturik dagoen norbait ezagutzen duela. Mutilek % 10 gehiago ezagutzen dituzte kasu horiek neskek baino. Agian, inkestaren arabera “engantxaturik daudenak” izanen dira ehun eta

hogei minutu baino gehiago konektatzen ziren neska-mutilak edo ordu txikietan konektatzen zirenak. Datu hori altuegia da, baina pertzepzio fidagarri samarra islatzen du, egiazkotasuna handiagoa izaten delako hirugarren pertsonen ekintzei buruzko galderei erantzuten zaienean norberaren ekintzei buruzko erantzunetan baino.

8. irudia

Interneten erabiltzen diren tresnak (%)



Edukiak

Haurrak Internetez gutxi baliatzen dira foroetan edo posta-zerrendetan sartzeko edo erosteko, eta gehienetan web orriak (% 59,8), txatak edo Messenger (% 68) erabiltzen dituzte. Ondoren musikaren, bideoen eta abarren deskargak –% 52,5–, sareko jokoak –% 39,1– eta posta elektronikoa –% 37,5– datoz. Oro har, neskek gutxiago erabiltzen dituzte komunikaziorik ekartzen ez duten tresnak. Alderik nabarmenena, ordea, sareko jokoetan gertatzen da; izan ere, neskek % 20 gutxiago erabiltzen dituzte haiek. Hala eta guztiz ere, gainerakoekiko harremanak errazten dituzten elementu guztietan, neskek izaten dira erabiltzailerik onenak.


Aipagarria da oso inkestaturen % 30ek txata gehiago erabiltzea e-posta baino. Horrek adiskideekin berehala konektatzeko eta taldean murgiltzeko premia azpimarratzen du, uneoro konektaturik egotekoa.

Fenomeno horri erreparatuz gero, txatetan aritzen diren neska-mutilen % 20,1ek aitortzen du elkarrizketetan batzuetan itxurakeriatan aritzen dela; % 5,1ek dio beti aritzen dela itxurakeriatan. Datu hori oso garrantzitsua da, zeren eta haurraren nor-tasuna oraindik ere garatzen eta egituratzen ari den garaia baita; hizketaldietan itxurakeriatan aritzeko ohitura horrek, on line izanda ere, berarekin ekar dezake jokabide horiek errealitatean gauzatu nahi izatea, eta horrek gizarte-harremanetan arazoak erakartzea.

Bestalde, hurrei galdetzen zaienean ea beren adiskide birtualak bertatik bertara ezagutzeko parada izan duten, oso ere aipagarria da mutilen % 23,3k eta nesken

9. irudia

Adiskide birtualak: “Bat badut, eta ezagutu dut” (%)




% 18,9k baietz diotela, alegia, bertatik bertara ezagutu dituztela. Sarearen bitartezko harremanek berezko dute ez jakitea pantailaz bestaldean nor dagoen; horrenbestez, pentsatzekoa da pertsona horietakoren bat errealitatean ezagutzeak arazoak eragin ditzakeela. Lehenbizi, haurren igurikapenak zapuztu ditzake, irudikatutako pertsonarekin ez aurkitzeagatik; izan ere, inkestatuak berak itxurakeriatan aritzen dela esaten badu... zergatik ez da itxurakeriatan arituko adiskide birtuala? Bigarrenik, bereziki kontuz egin behar dira Web bidez adosturiko geratzeak, arrisku egoerak eragin baditzakete. Guztiok ezagutzen ditugu astero Sareko iruzurrei, eta are abusuei buruz ere, argitaratzen diren albisteak. Oro har, nahiko harrigarria da, esate baterako, 10 urteko nesken % 28,6 adiskide birtualak ezagutzera joatea.

Hala eta guztiz ere, nahikoa adierazgarria da, halaber, galdetutako haurren % 40k esatea ez duela inolako adiskide birtualik, edo ez zaiolako txateatzen aritzea gustatzen, harreman pertsonalak beste ikuspuntu batetik ulertzen biatitu, edo ez delako besteaz fidatzen, edozein dela ere. Hartara, haurren inguruan dauden helduek hark dituen harremanak ezagutu beharko dituzte, errealak zein birtualak izan, kasuan kasu nola jardun behar duten jakiteko.

Interneten bisitatzen dituzten gai zehatzei dagokienez, oso nabarmena da musikaren arloak duen nagusitasuna, kasuen % 59,7tan gertatzen baita (garrantzitsuagoa da neskenentzat –% 72,2– mutilentzat baino –% 49,1–). Bigarren lekuan, jokoak daude, % 54,4rekin, eta horretan zale gehienak mutilak dira (% 65,6). Ondotik, urrundik bada ere, kirolak datoz, % 39,6rekin. Aurkako aldean, nabarmena da inkestatuen % 18k baizik ez duela esaten eduki kulturalak edo hezkuntzakoak bisitatzen dituenik.

10. irudia

Interneten bisitaturiko edukiak (%)



Gainera, are harrigarriagoa iruditzen zaigu ikasleen % 7,7k esatea helduentzako edukietan sartu ohi dela. Datu hori aintzat hartu behar dugu, baina nolabaiteko urruntasunarekin, zeren eta haurrak galdera hori dela-eta egia esaten duen zalantzazkoa izan baitaiteke. Batzuetan, aukera hori hautatu izanen da, agian, horrelako edukietan benetan sartu delako; beste batzuetan gertatuko da batzuek aukera horren alde errebeldiagatik edo bromatan eginen dutela. Eta, azkenik, gerta daiteke batzuek helduen orrialdeak bisitatu izana eta halakorik ez esatea lotsagatik edo errudun sentitzen direlako.

Haurrek eta gazteek dauzkaten posta-kontuei dagokienez, ia haurren % 87k dio gutxienez ere bat baduela; % 35,9k, berriz, dio bi kontu edo gehiago dituela, agian kontaktuak bereizi nahi dituelako.


Internet familiako ingurunean

Beste pantaila batzuekin gertatzen den bezala, gerta daiteke Interneten erabilek familiar tentsioak eragitea. Horri buruz galdetuta, % 53,3k dio ez direla sekula hori dela-eta eztabaidan aritzen. Horrek esan nahi du bi haurretatik batek gai hori dela-eta noiz edo noiz eztabaidatzen duela, gehienek (% 30,2) konektaturik ematen duten denborarengatik, eta kasu gutxiagotan edukiengatik.

Edukietatik babesteko sistemak erabiltzeaz gainera, gomendagarria da Interneten baimenduta ez dagoenari buruzko berriazko debeku batzuk jartzea. Horrek ez du esan nahi agintekeriaz jokatu behar denik; ez da gutxiagorik ere. Kontua da gauzen zergatia azaltzea, eta hari eduki koherente bat ematea, haurrak uler dezan zergatik ez dituen gauza batzuk egin behar Sarearen barruan; azken batean, haurren hizkuntzan hitz egin behar dugu, eta helduek ere arau horien arabera jokatu beharko dute. Guztiarekin ere, haurren % 21,8ri ez zaio ezer ere debekatzen nabigatzen ari direnean. Maizen ematen zaion debekua da erosketak egitea –% 51,4–; bigarren lekuan –% 44–, berriz, dago informazio pertsonala ematea. Logikoa da gurasoek mesfidati jokatzea seme-alabek Interneten eman ditzaketen datuak eta gasta dezaketen

11. irudia

Interneteko debekuak (%)



diru birtuala direla eta –azken hori kontrolaezina–. Hala eta guztiz ere, ongi bitxia da berariaz debekatzea inkestak betetzea –% 79–, halakoetan era guztietako datuak agertzen direnean, pertsonalak, eskolakoak edo familiakoak. Bitxia da, halaber, soilik inkesten % 13,4n agertzea hurrei txateatzea debekatzen zaiela, zeren eta, ikusi dugun bezala, horrexetan egin behar baitute gurasoek hurbileneko zainketa.

Bestalde, inkestatuen % 76,7k dio gurasoek ez dutela Internet erabiltzen haiek saritzeko edo zigortzeko. Sariak edo zigorrak ez du eragina izaten Interneten erabileran, zeren eta horrek eragin baitezake Internet haurrarentzat desio-xedea izatea. Sarea mundua ezagutzeko eta harekin hartu-emanak izateko bitarteko bat da, eta ez du sari-iturri bilakatu behar, hala bada hurrak hura xede bilakatuko bailuke, eta ez bitarteko. Hala eta guztiz ere, haurren % 18 Sarea erabili gabe zigortzen dute, eta % 5,3 hura erabiltzearekin saritzen dute.

Internet eta haurra


Interneti buruzko galderen azkeneko txandan antzeman nahi da haurra nola sentitzen den Sare orokorraren aurrean, eta hura dela-eta nolako gogoetak egiten dituen.

Mutilen % 43k eta nesken % 55,1ek uste dute Interneten erabilera dela-eta maila ertaina dutela. Horretan adituak ote diren galdetzen zaienean, mutilen % 13,5ek baietz dio, adituak direla; nesken % 7,1ek baizik ez du halakorik esaten. Oro har, mutilek uste izaten dute baliabide hori ongi ezagutzen dutela, eta haietatik % 18,3k baino ez du bere buruari buruz hasi berritakoa dela esaten. Denborak aurrera jo ahala, belaunaldi berriei hori bera galdetzen diegunean, hasi berritakoen ehunekoak behera eginen du, zeren eta gero eta eskola eta etxe gehiagotan egoten baitira Interneteko konexioak.

Internetetiko bestelako elkarreragin batzuetan zentratuz gero, hobeki uler dezakegu Sareari buruz inkestatuek erakusten duten ezagutza. Hartara, haurren % 24,9k dio noizbait web orriren bat egin duela; horretan, mutilek –%29,3– neskek gaintitzen dituzte –%19,8–. Beste behin, nabarmenak dira sexuen arteko aldeak, zeren eta, agian, arestian ere ikusi dugun bezala, neskek ez baitute nahiago izaten Sarea modu exhaustiboan ezagutzea, eta hura erabiltzen baitute gehiago komunikazio-tresna bat bezala, mutilek ez bezala; azken horiek, izan ere, espezializazioa bilatzen dute.

12. irudia

Internet eta haurra: “Niretzat, Internet...” (%)




Internetek haientzat duen esanahiari buruz galdetuta, deigarria da mutilen % 76,2k esatea baliagarria zaiola, baina haietatik % 23,6k baizik ez esatea ezinbestekoa zaionik. Beste behin demostraturik geratzen da haurrek garrantzitsua denaren eta funtsezkoa denaren artean bereizteko daukaten gaitasuna, adimengabekieratan ibili gabe.

Bestalde, % 22k pentsatzen du Sareak mendetasuna sor dezakeela, eta horrek esan nahi du dauzkan arriskuez jabetzen direla. Gainera, % 13,2k uste du Internetek isolamendua ekar diezaiokeela. Inkestatuetatik, hamarretik ia zortzik Sarea erabiltzen

13. irudia

Internet ala telebista nahiago izatea (%)



hasi aurretik zeuzkaten harreman pertsonal berak dituzte, edo esaten dute Internet haien harremanak hobetzeko balio izan zaiela, etengabe konektaturik egoteko aukera ematen baitie. Guztiarekin ere, ehuneko horiek, altuegiak ez badira ere, oso esanguratsuak dira, adierazten baitute haurrek egiaz jokatu dutela baietz erantzuterakoan hain pertsonalak, eta batzuetan hain ahalke-eragingarriak, diren galderei. Horrek iradokitzen du, bestalde, zenbatekoak are handiagoak ere izan zitezkeela, halako galderei erantzuten ausartu ez direnak gehituz gero.

Haurrek bestelako pantailak direla-eta erakusten dituzten gustuei erreparatuz gero, % 34,7k nahiago izaten du Internet telebista baino; halere, % 33k ez daki bietatik zein nahiago duen. Hartara, argi ikusten dugu halako bilakaera bat gertatzen ari dela: belaunaldi telebista zale batetik belaunaldi interaktibo batera, azken horietan nagusi izaki elkarrekin konektatzeko erraztasunak eta ez aldebarrekotasuna.

Sakelako telefonoa Internet baino nahiago ote den galdetuta, % 38,7k baietz esaten du; % 36,1ek, berriz, Interneten alde egiten du. Beste behin islaturik geratzen da pantailek nolako garrantzia duten munduarekin eta adiskideekin kontaktuan egoteko. Izan ere, telefonoa erabili nahiz ez erabili hura beti piztuta eta edozein unetan eta tokitan erabiltzeko prest dago; Internet erabiltzeko, berriz, ordenagailu bat behar da, eta hura ez da beti piztuta izaten, eta, horrenbestez, ezin da edozein tokitan erabili... Mutilek Internet nahiago izaten dute (% 47) eta neskek sakelako telefonoa (% 48); oro har, zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta nabarmenago egiten da sakelako telefonoaren alde.

Gogoratu beharra dago zer nahiago duten dela hizpide duguna, ez zer erabiltzen duten, eta horrek esan nahi du seme edo alaba batek Internet telebistaren gainetik nahiago izan arren gerta daitekeela ordu gehiago ematea pantaila txikiaren aurrean ordenagailuaren aurrean baino.



Sakelako telefonoak

Sakelako telefonoa mendebaldeko merkatuetan arrakastarik handiena izan duten informazioaren eta komunikazioaren teknologietako bat da. Telefono operadoreek teknologia bakarra hautatu izanak eta merkatuaren harrera onak beraiekin ekarri dute marketin estrategia oso oldarkorrek garatzea, eta haiei esker sakelako telefonoa ia pertsona guziengana iritsaraztea.

2002an, Espainian zeuden sakelako telefonoen linea-kopuruak linea finkoen kopurua gaintitu zuen. Une hauetan, Espainian 46 milioi sakelako telefono baino gehiago dago, eta horrek erakusten du teknologia horrek populazioaren % 100a gaintitzen duela. Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, Movistarren datuen arabera, 545.000 terminal daude, populazioaren % 91 hartzen dutenak, gutxi gorabehera.

10 eta 18 urte bitarteko Nafarroako gazteen artean eginiko azterlanaren datuek agertzen dute 14 urtetik aurrera ehuneko hori populazioaren guztizkoarekin berdintzen dela, eta 18 urteko populazioaren artean % 92,1 hartzen duela.

Sakelako telefonoak telefono linearen bidezko komunikazioari buruz genuen kontzepzioa bera aldarazi du; izan ere, orain jada ez da leku batera deitzen, etxe batera esate baterako, baizik eta pertsona bati. Komunikazio pertsonalerako gailu hori, gainera, beste elementu batzuekin osatzen da gaur egun: argazki kamera, agenda elektronikoa, musika- edo irrati-erreproduzigailua... Sakelako telefonoen hirugarren belaunaldia iristearekin, bideo-deiak egin daitezke, eta telefonoa bera ikus-entzunezko edukien hartzailea ere bada.

Nerabeen kasuan, sakelako telefonoaren erabilera intentsiboak, berehalako mezuen sistemenak bezala –esate baterako, Messenger, adiskideekin kontaktuan egoteko aukera ematen duena–, beste ezer baino lehen adin jakin baten eta adin hori dutenek berez duten bizi-sentipenaren adierazgarria da: une jakin batera arte abegi egin dien familiako mundutik kanpo sentitzen dira, eta beren berdinen artean baizik ez dira eroso samar sentitzen, zehazgabetasun bera partekatzen baitute haiekin beren nortasuna eta beren izaera direla eta.

Oro har, neskek mutilek baino maiteago dute sakelako telefonoa, eta lagunen arteko afektuzko adierazpenetarako tresna gisa erabiltzen dute. Egindako azterlanean hori ere egiaztatu da: mutil guztien % 73,9k bere telefonoa duen bitartean, nesken % 81,3k dauka bere telefonoa. Adierazi beharra dago, hala eta guztiz ere, 16 urtetik gorako nesken artean gertatzen dela teknologia horren edukitza-maila handiena: % 97,7k du bere telefonoa. Horrek iradokitzen du epe motzean ia gazte guztiek beren telefonoa erabiliko dutela.

2006ko abenduan Erresuma Batuan argitaraturiko azterlan batean, nerabeen artean sakelako telefonoa erabiltzeak izan lezakeen arriskua¹ aipatzen zen: taldeak taldekide bakoitzarengan egiten duen presioa areagotzen du, eta zail egiten du nork bere epaiak egitea, eta, horrenbestez, erantzukizun pertsonalak onartzea.

Sakelako telefonoak arrakasta izan du nerabeen artean, besteak beste, gurasoen kontroletik kanpo beren berdinekin kontaktua edukitzeko modu bat delako. Aukera ematen die beren unibertsoa erraz eta eroso iristeko (beren intereseko edukiak, adiskideen sarea) eta errazago egiten die "beren bizitza kudeatzea". Horrek guztiak aukera ematen die oraindik ere parte ez diren helduen mundutik hurbilago egoteko. Ederki asmatutik adierazpide bat erabiliz, Javier Bringué "beren bizitzaren exekutiboei" buruz hitz egiten digu.

Sakelako telefonoak aukera ematen du alde aurretiko gizarte-loturak, adiskidetasun harremanak, sendotzeko (Navar, Sádaba eta Bringué, 2003). Nesken kasuan, sakelako telefonoak komunikaziorako behar hori indartzen du; mutilen artean, berriz, sakelako telefonoa jokorako plataforma egokia ere bada².

Adin talde horrek teknologia horretarako sarbidea zein neurritan duen, eta teknologia horren erabilera haien gizarte- eta familia-bizitzan nolako eragina izaten ari den ezagutzeko oso garrantzitsua da balizko hezkuntza-ekintzen beharra kalibratzeko.

Inkestako zati honen eskemaren abiapuntuak sakelako telefonoa edukitzeari eta hura erabiltzeko gastuari erreparatzen die, eta gero sakelako telefonoaren erabilerei begiratzen die, bai eta gazteen kritika egiteko gaitasunari eta komunikazio-tresna horretatik urruntzeko duten ahalmenari ere; azkenik, eztabaidarako arrazoi bat baden aztertzen du.

Sakelako telefonoaren erabilerari buruzko balorazioa: zenbat eta zertarako

Inkestaren % 77,2k dio bere sakelako telefonoa duela. Kopurua ehuneko % 81,4raino igotzen da beste batzuen (gurasoak edo anai-arrebak) sakelako telefonoa erabiltzen dutenak ere gehituz gero.


Datuek erakusten dute adinean aurrera egiten dugun heinean sakelako telefonoa gero eta presentego dagoela: 10 urte edo gutxiagoko ikasleetatik % 35ek bere sakelakoa dauka, eta 11 urteko ikasleen % 47,3k eta 12 urteko ikasleen % 65,1ek. Hamahiru urtetik aurrera, ehunekoak nabarmen egiten du gora, 18 urterekin % 92,1era iritsi arte.

1. *Mobile Life Youth Report. The Impact of the mobile phone in the life of young people.* Carphone Warehouse, London, 2006.

2. Taylor, Alex S. Y Harper, Richard (2003) *The Gift of the Gab?: A Design Oriented Sociology of Young People's Use of Móviles*, en *Computer Supported Cooperative Work*, 12 liburukia (3), 267-296 orrialdeak.

1. irudia

Sakelako telefonoa edukitzea (%)



Argi dago telefono-terminal bat edukitzeak edo hura eskuratu nahi izateak erabilera bat dakartela beraiekin. Garrantzitsua da ezagutzea zein neurritaraino ordaintzen duten gazteek gastu hori (adibidez, asteko pagaren bidez), edo noraino den gurasoentzat beste gastu bat. Inkestak erakusten du kasuen % 57,7an, gastua gurasoen bizkar dela.

Hala eta guztiz ere, eta ehunekoetan dauden aldeak oso handiak ez badira ere, antzeman daiteke gazteek zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta gehiago ahalegintzen direla gurasoak gastua seme-alaben gain uzten: 10 urte edo gutxiagoko inkestaren kasuan, gurasoen % 75,7k ordaintzen du faktura; ehuneko hori 51,8 puntutaraino jaisten da 14 urteko seme-alaben kasuan, eta 31,1 puntutaraino 18 urtekoen kasuan. Badirudi ia guztiak onartzen duten hezkuntza-neurri bat dela gaztea bera izatea bere kontsumoaz arduratzen dena.

Jabetzen al dira sakelako telefonoarekin egiten duten kontsumoaz? Erantzunak, noski, zerikusia dauka fakturaz arduratzen denarekin: 10 urte do gutxiagokoek % 50ek aitortzen du ez dakiela zenbat gastatzen duen; 18 urtekoen kasuan, berriz, % 18,5ek baizik ez du esaten ez dakienik.

Gastaturiko kopuruari dagokionez, % 57,5k aitortzen du asteen 6 euro gastatzen duela, eta % 19k, berriz, dio hori baino gehiago gastatzen duela. 16 eta 17 urteko neskek, sakelakoa gehien erabiltzen dutenek, gastu indize handiagoak dituzte:

1. taula

Sakelako telefonoaren asteko gastua (%)

	Ez dakit	3 € bitarte	3 eta 6 artean	7 eta 12 artean	13 eta 18 artean	18 baino gehiago
Neskak, 16 urte	13,2	26,4	27,6	19,5	6,9	4,6
Neskak, 17 urte	10,1	35,7	14,3	7,1	12,5	14,3

Sakelako telefonoaren erabilerak

Behin sakelako telefonoa erabiltzeko aukerari buruzko eta gastu-kopuruari buruzko datu batzuk ezagututa, garrantzitsua dirudi jakitea zergatik edo zertarako erabiltzen den.

Baieztatu daiteke erabilera nagusia gizarte harremanak edukitzea dela: % 69,9k dio sakelako telefonoa komunikatzeko erabiltzen dutela, deiak egiteko edo deiak hartzeko. Mezu laburrak, SMSak, bidaltzea, berriz, gastuaren % 65,6 da. Askotan pentsa dezakegu mezuak erabiltzen direla deiak egin ordez, eta horregatik % 37,7k erantzuten du soilik deiak jasotzeko erabiltzen duela sakelako telefonoa.

Hala eta guztiz ere, beste pantaila batzuetan ohikoak diren beste jarduera batzuk, txateatzea edo Interneten nabigatzea, oso gutxitan erabiltzen dituzte sakelakoarekin eskola adinean daudenek.

Garrantzitsua da sexuaren arabera erabileran gertatzen diren desberdintasunei erreparatzea. Neskek garrantzi handiagoa ematen diote sakelako telefonoak komunikaziorako duen balioari: horregatik, deiak egiteko eta jasotzeko erabiltzen dute gehiago soilik deiak jasotzeko baino, eta sakelako telefonoetara mezuak bidaltzeko ere mutilek baino gehiago erabiltzen dute (% 86k eta % 69k). Hala eta guztiz ere, mutilek gehiago erabiltzen dute sakelakoa jolasteko neskek baino: % 30,5ek eta % 21,8k hurrenez hurren.

2. taula

Sakelako telefonoaren erabilera (%)


	Batez beste	Mutilak	Neskak
Deiak jasotzea	37,7	38,5	36,1
Deitzea eta deiak jasotzea	69,9	67,5	72,5
Mezuak bidaltzea	65,6	69	86
Jolastea	26,6	30,5	21,8

Sexua alde batera utzita, adina ere esanahi handiko beste aldagai bat da sakelakoaren erabileretan: 13 eta 14 urte bitarteko mutilak dira jolasteko gehien erabiltzen dutenak, batez besteko orokorraren gainetik: % 41,9 eta % 41,2, hurrenez hurren. Aitzitik, 16 urteko neskek, sakelakoa gehien erabiltzen dutenek, mezuak bidaltzeko erabiltzen dute kasuen % 94,3an.

Adin horietan familiakoen artean telefono bidez komunikatzea oraindik ere erabilerarako arrazoi garrantzitsu bat izaten da. Izan ere, ezin da ahaztu 10 urteko haur bati sakelako telefonoa erosteko arrazoi nagusia, agian, gurasoekin harremanetan egon ahal izatea dela, zer edo zer gertatzen bada ere. Nerabeentzat, aldiz, sakelako telefonoa gurasoen kontroletik ihes egiteko aukera bat da, betiere balizko kontaktu baten segurtasunari eutsiz.

2. irudia

Norekin komunikatu ohi zaren gehiago sakelakoaren bidez



Adinari erreparatuta, desberdintasun argiak daude gazteek nahiago dituzten solaskideei dagokienez. Lehen hezkuntzako ikasleek, 10 eta 11 urtekoek, beren gurasoekin hitz egiten dute gehien: beste inorekin baino gehiago amarekin hitz egiten dutela diote (% 39,85) eta gero aitarekin (% 33,45) eta adiskideekin (% 30).

12 eta 16 urte bitarteko neska-mutilen kasuan, adiskideak daude lehenbiziko tokian (% 73,5) eta gero ama (% 49,45) eta aita (% 38,5). Batxilergoko ikasleek adiskideak nahiago dituzte solaskide gisa (% 77,7), bigarren lekuan mutil-laguna edo neska-laguna dago (% 46) eta gero ama (% 44,4) eta aita (% 35,2).

Esan daiteke sakelako telefonoa gazteen bizitzan sartzen dela familiakoen arteko komunikazio-elementu gisa, eta nerabegarora eta gaztarora iristearekin gizarte-harremanetarako bitarteko bilakatzen da, adiskidetasunezko edo afektuzko harremanak izateko erabiltzen dela.

11 urte betetzerakoan lortu zuen beren lehen sakelako telefonoa inkestatutako gazteen % 77,8k. Egindako beste ikerketa batzuen arabera, esan daiteke gure gizartean oso ohikoa dela lehenbiziko sakelako telefonoa jaunartzerako oparitzea, hain zuzen ere garai horretan suertatzen baita.

Sakelako telefonoa balio handiko oparizat edukitzeak bere alde onak eta alde txarrak dauzka hezkuntzaren ikuspuntutik. Alde onak argi daude: diru asko balio duen opari bat da, eta ospakizunen batean oparitu behar da. Hala eta guztiz ere, geure buruari galdetu beharko genioke ea beharrezko elementu bat baden 10 urteko neska edo mutil batentzat, eta opari gisa jasotzeak zein neurritaraino lagunduko duen hura tresna baten gisara ulertzen, eta ez berezko xede baten gisara. Gainera, gertatu ohi da opari gisa haurrengana beste senide batzuen eskuetatik iristen dela, osaba-izeben edo aitona-amonen bitartez, eta, horrenbestez, gurasoei inposatu egiten zaiela.

Amak izaten dira sakelako telefonoen hornitzaile nagusiak, gehiago nesken kasuan mutilen kasuan baino: nesken % 26,6ri eta mutilen % 16,8ri amak eman zien sakelakoa.

Oro har, garrantzitsua da anai-arreben eragina: kasuen % 22an horiexek izan dira anai-arreba txikiagoei sakelakoa oparitu dietenak. Halako logika bat badauka, zeren eta gazteek sakelako telefono bat eskuratzeko bideetako bat baita anai-arreba zaharagoen terminal zaharra heredatzea.

Telefonoa erabiltzeko beharra

3. taula

“Bi astez sakelakorik geratuko banintz...” (%)

	Nire bizitzak hobera eginen luke	Nire bizitzak okerrera eginen luke	Ezer ez
10 edo gutxiago	5,1	10,1	84,8
11	9,1	6,3	84,6
12	2,6	8,7	88,7
13	1,9	14,2	83,9
14	2,7	17,5	79,8
15	2,2	22,1	75,7
16	3,6	22,6	73,8
17	2,9	24,3	72,8
18	4,4	16,3	79,3
Guztira	3,3	16,2	80,5


Deigarria da oro har adostasun handi bat dagoela sakelakoak haur eta gazteen bizitzan duen eragina desmitifikatzerakoan, ikuspuntu kontzeptualetik behinik behin: % 84,8k dio hura gabe bi astez egoteak ez lukeela bere eguneroko bizitzan inolako eraginik izanen.

Hala eta guztiz ere, adinaren arabera erantzunei erreparatu gero, ikusiko dugu urte gehiago dituztenek bai antzematen dutela halako eragin eta balio bat duela: ehuneko handi samar batzuek diote beren bizitzak okerrera eginen lukeela, eta gutxiago dira ezer ere ez litzaiekeela gertatuko aitortzen dutenak. Aitzitik, batez ere sakelakoa gehien erabiltzen dutenen artean (16 eta 17 urte) handiagoa da sakelako telefonorik gabe beren bizitza okerrera eginen lukeela dioten ehunekoak.

Emaitza horiek bat datoz lehenago egin diren beste ikerketa batzuetako datuekin (Naval, Lara, Portilla eta Sádaba, 2001); izan ere, haietan gazteek teknologiarekiko nolabaiteko urruntasuna adierazten zuten, neurri handi batean muturreko ikuspegi pragmatiko baten ondorioz. Praktikotasun hori da paradoxa sorrarazten duena, zeren eta oso elementu erabilgarri eta eroso baldin bada, zailagoa izanen baita hura alde batera uztea egoera jakin batzuetan.

3. irudia

Deien eta mezuen beharra




Aurreko galderarekin jarraituz, harrigarria da nola soilik kasuen % 17,7an bidaltzen diren mezu guztiak beharrezkoak diren. Badirudi horrek adierazten duela telefonoa erabili aurretik ez dela gogoetarik egiten. Erabiltzeko erosotasunak eta erraztasunak teknologia horren erabilera arrazional eta orekatua zailtzen dute.

Datuen joera orokorrearekin jarraituz, badirudi mutilek sakelako telefonoaren erabilera arrazionalagoa egiten dutela; izan ere, haietatik % 21,4k dio bidaltzen dituen mezu guztiak beharrezkoak direla; nesken kasuan ehuneko hori % 13,7raino jaisten da.

4. irudia

Sakelako telefonoa eztabaidarako arrazoi




Ba ote du sakelako telefonoak eragin negatiboa nerabeen familia-bizitzan? Inkestatuei galdetu diegu ea telefonoaren erabilerak eztabaidarik sortzen ote duen familian. Erantzunik ohikoena ezetz da. Hala eta guztiz ere, eztabaidatzen denean arrazoiak gastatutako dirua, sakelakoa denbora gehiegiz erabiltzea eta erabiltzeko unea izan dira.

15 eta 16 urtekoen artean –bat dator adin-tarte hori teknologia sartuen dagoen garaiarekin–, gatazka-maila handiagoak gertatzen dira; esate baterako, 16 urteko gazteen % 28,3k gastatzen duen diruarengatik eztabaidatzen du, eta % 22k denbora gehiegiz erabiltzeagatik. Kopuru horiek direla eta, azalpen bikoitza egin daiteke: alde batetik, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta eztabaida handiagoak sortzen dira; bestetik, gertatzen da 15-16 urtekoa dela gatazka gehien izaten direneko adin tartea, eta sakelako telefonoa, edonola ere, gurasoekin eztabaidatzeko arrazoi bat da.

Sexua da beste aldagaia, eta horrek ere eragina du eztabaidatzeko arrazoiari: oro har, nesken ehunekoak mutilenen bi halako izaten dira teknologiaren erabilera dela eta sorturiko ezinegonaren arrazoietan. Esate baterako, mutilen % 9,3k baizik ez du esaten eztabaida egiten duenik sakelako telefonoarekin ematen duen denborarengatik; nesken kasuan, ordea, zenbateko hori % 15,6raino iristen da. Diruari buruz ari garenean, mutilen % 13,9k eta nesken % 24,2k aipatzen dute gastatutako dirua familiako arteko tentsio-elementu gisa. Kasu horretan, desberdintasun horien arrazoiak izan daiteke neskak sakelako telefonoaren zaleagoak direla eta sakelako telefono gehiago dituztela.

5. irudia

Sakelako telefonoa noiz itzaltzen duzun



Une jakin batzuetan, normalena sakelako telefonoa itzaltzea da: ikasgelan, esate baterako. Horri dagokionez, oraindik ere ez da antzeman zenbait ikastetxetan eta zenbait hezkuntza-agintaririk onetsi duten neurria, alegia, ikastetxeetan sakelako telefonoak debekatzea. Zineman ere ohikoa izaten da itzaltzea, ehuneko txikiagoan bada ere. Oso deigarria da teorikoki egon nahi duten lekuan daudenean ere (beren lagunekin eta zineman), eta kontuan izanda, gainera, hor egoteko ordaindu dutela, gure haur eta gazteak sakelako telefonoaren bidez gertatzen denari begira egotea.

Gainerakoetan, telefonoa piztuta edukitzen dute: gehienek esaten dute ikasten ari direnean edo familiarekin daudenean piztuta edukitzen dutela. Horrek eragin argia dauka ikasketan: kontzentratzeko gaitasunak behera egiten du eta, batzuetan, barne-herstura ere sor dezake. Familiako bilerekin dagokienez, askotan gertatzen da nerabeak fisikoki etxean daudela, baina burua eta bihotza kanpoan dituztela.

Kasu horretan, datu deigarri bat: neska zaharrenek, 16 urtetik gorakoek, sakelako telefonoa ia beti piztuta edukitzen dute etxean daudenean: soilik 18 urte edo gehiago dituztenen % 2,8k itzaltzen du telefonoa familiarekin dagoenean.

Galdera horren baiezko erantzunen balizko ondorioak argi daude: mezuak gauz jasotzeak atsedena eragotziko luke, eta, horrenbestez, biharamuneko errendimendu fisikoa eta intelektuala oztopatuko luke. Gainera, konektatua egoten jarraitzea lo egiteko premia fisikoa baino gehiago baloratzeak adierazten du sakelako telefonoa gehiegi erabiltzen dela eta, agian, menpekotasun bat ere badagoela.

Soilik inkestatuen % 37k dio ez duela mezurik jasotzen. Gainerakoentzat, nahiko ohikoa da mezuak jasotzea: % 48,3k egun batzuetan jasotzen ditu. % 14,7k modu jarraituan jasotzen ditu mezuak, egun askotan.



Bideo-jokoak

bideo-joko bat programa informatiko interaktibo bat da, entretenitzeko balio duena eta hainbat gailuren bitartez funtzionatu dezakeena: ordenagailuak, kontsolak, sakelako telefonoak eta abar; audioa eta bideoa batera biltzen ditu, eta aukera ematen du errealtatean bizitzen zailak diren esperientzia batzuek gozatzeko. Jatorri ludikoa badu ere, gaur egun denbora-pasaren mugak zabaldu eta gainditu dituzte, eta hezkuntzaren eremuan aplikatzeko aukerak ere zabaldu dira. Esan genezake, halaber, negozio bat eta benetako gizarte-fenomeno bat ere badirela.

Ikuspuntu tekniko batetik, bideo-joko asko ederki eginik daude; diseinuek izugarriko kalitate maila dute, ingurune errealean nahiz alegiazkoen birsortzea miragarria da, eta gidoietan ere originaltasun handia dago. Distrakzioa eta berehalako dibertsioa ematen dute, eta dosi handietan. Hala eta guztiz ere, gehien saltzen direnetako batzuek sustatzen dituzten balioak kontsumismoa, lehiakortasuna, abiadura, erotismoa, agresibitatea, indarkeria eta abar dira. Hori dela eta, halako polemika bat sortu da haien kontrolik gabeko erabilerari buruz, neska-mutilei zenbait kalte eragiten ahal dizkietelako. Polemika hori ez da berria: gailu horiek haurren jokabidean izan dezaketen eraginari buruzko lehenbiziko alarma-argiak 1977an piztu ziren; urte hartan, izan ere, Atari firmak ordenagailurako kartutxo erako bideo-jokoaren lehenbiziko sistema merkaturatu zuen, eta arrakasta nabarmena lortu zuen Estatu Batuetan.

Pentsa dezagun denbora-pasarako beste produktu batzuekin gertatzen den bezala, bideo-jokoa ez dela kaltegabea; aitzitik, eragina dauka harekin jokatzeko duten pertsonen adimenean. Ebidentzia hori ukatzea gizakiaren adimena bera ukatzea bezala izanen litzateke. Horrek agerian uzten du adingabeentzako bideo-jokoaren edukiak nolabait araupetu behar direla, hartara saihesteko, Alfonso Nietok dioen bezala, bereizketarik gabeko eskaintzak egitea juridikoki eta sozialki egokiaren, onaren eta kaltegarriaren artean bereizteko gaitasunik ez dutenei. Izan ere, egile berak dioen bezala, maiz bideo-jokoak adingabea helduei dagozkien inguruetan sartzen ditu, eta buru kritikozkoentzat eta bideo-jokoaren planteamenduak onartzeko edo errefusatzeko ezagupenak eta heldutasuna dituztenentzat egokitutako jarrerak, jokabideak eta pentsamoldeak erakusten ditu.

Diego Levisek 1996an guztiz argigarri gertatzen den lerrokada hau idatzi zuen: bideo-joko askok erakusten dute indarkeria dela arriskuaren aurrean eman daitekeen erantzun bakarra, eta erakusten dute sentimenduei ezikusiarrena egiten, eta gizarte-arauak distorsionatzen, eta emakumei buruzko ikuspegi baztertzaila eta bereiztailea edukitzen, eta munduari buruzko ikuspegi kaotiko bat sustatzen, eta jokabide-arau onargarri gisa denak balio duela dioen pentsaera bat bultzatzen dute, eta elkartasunaren aurkako era guztietako jarrerak akuilatzen dituzte; bada, bideo-

joko horien joera horrek ezinbestez halako kezka justifikatu bat eragin behar digu". Gutiérrezek eta bestek (2001), honakoa adierazten dute beren lanean: "egia da bideo-jokoek transmititzen dituzten balioak aztertzerakoan erraza dela hotsandiko diskurtso bat egitea. Baina, onartzen badugu bideo-jokoa kasuan kasuko pantailarako sartzen dugun kartutxoaren kolorea duen kamaleoi bat dela eta nahikoa izanen litzatekeela hezkuntza-edukiak sustatuko luketen, benetan hezteko balioko luketen eta erakargarri suertatuko liratekeen bideo-joko batzuk edukitzea, zergatik ez ondorioztatu soilik errentagarritasun ekonomikoa lortzeko diseinaturik dauden bideo-joko horiek hezkuntzaren oinarrizko arauen kontra hezten dutela? Zergatik ez erantsi, gainera, gizartearen konbentzioen aurka, etikaren aurka eta giza eskubideen aurka hezten dutela?".

Bideo-jokoaren historiak berak ezin ukatuzko egitate horri buruzko diskurtsoa aldarazi du. Orain dela zenbait urte entzuten genuen "ezer ez da gertatzen, ez dago zertan larritu" horretatik iritsi gara esatera "gurasook ere seme-alabak hezteko erantzukizuna daukagu, zein produktuekin jolasten duten jakin behar dugu, zein izenburu duten erosten dituzten produktuek, hain zuzen ere nora joaten diren eta zein adiskiderekin jolasten duten jakiteko kezka izaten dugun bezalaxe. Kontua ez da haiei Play Station bat eta hura erabiltzeko karta zuri bat ematea", James Amstrongek, Sonyk Espainian eta Portugalen daukan goi exekutibo batek berriki esan duen bezala.

Mahai ganean jarri beharko genukeen beste gai bat da bideo-jokoek adingabeen prestakuntzan duten eragina, era horrelako denbora-pasekin ematen duten aldiari dagokionez. Eztabaidan jarri izan da orain baino lehen bideo-jokoetarako mendetasun motaren bat ba ote dagoen, baina gaur egun zenbait datuk horixe ematen dute aditzera; esate baterako, gaixotasun berri hori tratatzeko klinika espezializatuak irekitzen ari dira. Zalantzarik gabe, haur askok denbora gehiegi ematen dute kontsolarekin, sakelako telefonoarekin edo ordenagailuarekin jokatzeko. Gainera, askotan, oso une desegokietan aritzen dira horretan.

Hona gurasoek eta hezitzaileek maiz egiten duten galderetako bat: zenbat denbora esan daiteke ona dela haurrak horrelako gailuekin jolasten egotea? Eta, egia esan, ezin da denbora kopuru egoki batez hitz egin, zeren eta hori zenbait faktoreren araberakoa izaten baita. Besteak beste, haurraren heldutasuna, joko mota, baka-rik edo taldean jokatzeko duen, jokalararen adina eta bestelako inguruabar aldagarri batzuk: esate baterako, eguraldia, azterketa garaia ote den, etxeko lanak eginik ote dauden, asteburua den edo opor garaian gauden... Bideo-jokoei buruz hitz egin beharrean kirolari buruz edo irakurketari buruz hitz eginen bagenu, nor ausartuko litzateke praktika horiek garatzeko aldi egoki bat proposatzen?

Jokorako denbora bezain garrantzitsua da noiz jokatzeko den. Ikuspuntu horretatik, bideo-jokoek sekula ez lukete kendu beharko beste jarduera batzuetarako –ikas-tea, familiako harremanak, harreman sozialak edo aisiako beste jarduera batzuk (kirola, irakurketa, zinema)– denbora.


Bideo-jokoei buruz maiz izaten diren eztabaidak mahai ganean jarririk, azter

dezagun Nafarroako adingabeek nola erabiltzen duten aisia interaktiboko modalitate hori. Agian, adingabeek bideo-jokoak nola erabiltzen dituzten ikertzen duen azterlanik osoena, gaur arte, Civérticek eta protegeles.com-ek 2005eko abenduan aurkeztutakoa da. Orain aurkezten dugunarekin alderatuta urte eta erdiko desfasea badago ere, hartara joko dugu Nafarroako adingabeak Espainiako gainerako lurraldeetako adingabeekin konparatzeko.³

Bideo-jokoaren erabilerari buruzko balorazioa

1. irudia

Bideo-jokoetako jokalaria (%)



Bideo-jokoa asko eskatzen da josteta-jarduera gisa; mutilek eskatzen dute gehien, % 81,9k adierazten baitu haiekin jokatzen duela. Nesken kasuan, % 49,4 dira jokalaria. Nafarroan erregistraturiko ehunekoa Espainian batez beste aurkitutakoa baino txikixeagoa da: % 85,1 mutilen kasuan eta % 52 nesken kasuan.

1. irudia

Bideo-jokoetako jokalaria (%)

	Mutilak	Neskek
Kirolak	62,7	17,5
Rol jokoak	24,1	4,6
Plataforma	16,9	8,4
Ekintza/Borroka	50,7	11,5
Abentura	46,8	33,9
Estrategia	41,3	18,8
Simulazioa	23,2	7,5
Besterik	18,8	15,9

3. Azterlan hori deskargatu egin daiteke: www.guiavideojuegos.es.


Gainera, bi sexuetan antzeman dugu bideo-jokoetarako interesak adinarekin batera behera egiten duela.

Mutilei gehien gustatzen zaizkien jokoak kiroletakoak, ekintzakoak edo borroka-koak eta abenturakoak edo estrategiakoak dira. Neskei, berriz, abenturakoak gustatzen omen zaizkie gehien, nahiz eta nabarmendu beharra dagoen ez dutela gehiegizko interesik inongo genero zehatzetan, eta gustuetan desberdintasun handiak dituztela mutilekin alderatuta, batez ere kirol, ekintza edo borroka jokoei dago-kienez. Oro har, emaitza horiek bat datoz nazio mailan antzemandakoekin.

Ikus daitekeen bezala, mutilen ehuneko handi batek (% 24,4k) denbora gehiegi

2. irudia


Astegunetan jokoan ematen den denbora (%)



ematen du bideo-jokoetan eskola-egunetan. Gure ustez, gehiegizkoa da egunean ordu-bete baino gehiago horretan ematea, kontuan hartuta egun arrunt batean egin beharreko guztiak (ikastetxea, etxeko lanak, lo egin, otorduak, gizarte bizitza, jarduera fisikoa...). Ehuneko hori txikiagoa da nesken kasuan. Ehuneko hauetan ez dago desberdintasun handirik Espainiako gainerako lurraldeetako neska-mutilei buruzko datuen aldean.

3. irudia

Asteburuan jokoan ematen den denbora (%)



Espero zitekeen bezala, asteburuan zehar jokoan ematen den denborak gora egiten du, bereziki gizonezkoen kasuan. Hiru mutiletatik batek egunean bi ordu baino gehiago ematen ditu jokoan; horrenbestez, esan daiteke aisialdiko jarduera nagusietako bat dela. Lehen ere ikusi dugun bezala, ehunekoak behera egiten du nesken kasuan; izan ere, soilik hamarretik batek ematen du bi ordu baino gehiago jokoan asteburuetan. Kasu honetan ere, ehunekoak antzekoak dira nazio mailako batez bestekoekin alderatuta.


2. taula

Neska-mutilak norekin dauden jokoan ari direnean (%)

	Mutilak (%)	Neskak (%)
Bakarrik	63,6	37,5
Amarekin	5,0	4,2
Aitarekin	9,5	5,1
Anai-arrebekin	43,6	30,7
Lagunekin	48,8	21,7
Besterik	18,1	9,0

4. irudia

Neska-mutilak norekin dauden jokoan ari direnean (%)




Neska-mutil gehienak bakarrik aritzen dira jokoan: horixe adierazten du hiru mutiletatik batek. Hala eta guztiz ere, soilik hiru nesketatik batek dio jokoan bakarrik aritzen dela. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi bideo-jokoa aisia sozialaren kontzeptuan sartzan ez denik; izan ere, mutil askok eta neska ugari diote jokoan beren anai-arrebekin edo lagunekin aritzen direla.

Antza denez, gurasoak dira beren seme-alabekin bideo-jokoetan aritzen ez direnak, eta datu horiek ere bat datoz Espainiako Estatuko beste lurraldeetan lortutakoekin. Hamar haurretatik soilik batek dio noizean behin bere aitarekin aritzen dela jokoan, eta hogeitik batek amarekin.

Gurasoen hezkuntza-bitartekaritza

5. irudia

Etxean bideo-jokoak erabiltzen dituzten gizabanakoak (%)



Espero zitekeen bezala, neska-mutil askok jokoan aritzen diren anai-arrebak daukate. Hala eta guztiz ere, oso deigarria da soilik hamar aitetatik bat aritzea bideo-jokoetan, eta amen kasuan proportzioa erdia izatea.

Eztabaidarik ohikoena jokoan emandako denborari buruzkoa izaten da, batez ere mutilen kasuan; hala aitortzen du hirutatik batek.

Eztabaidatzeko bigarren arrazoia jokoan aritzeko unea izaten da, nahiz eta horretan ehunekoak nabarmen behera egin.

Bideo-joko motak eztabaida gutxi sortzen du; hamar gizonezkoetatik soilik batek aitortzen du gai hori dela-eta etxean adostasunik ez izatea; nesken kasuan, aldiz, gai horrek ez du inolako eztabaidarik sortzen. Harrigarria da hori kontuan hartuz gero adingabeen artean arrakasta handiena duten bideo-jokoaren edukia. Izan ere, gerta daiteke gurasoek ezjakintasun handia izatea aisialdi interaktiboko mota horri buruz.

Hiru adingabetatik batek ez du ezergatik ere eztabaidatzen; horretan, antzeko ehunekoak topa daitezke bi sexuetan.

Bestalde, antzemandako ehunekoek batez besteko nazionalen antza handia dute.

3. taula

Gurasoekin bideo-jokoak direla-eta eztabaidatzeko arrazoiak (%)


	Mutilak	Neskak
Jokoan emandako denbora	35,5	12,3
Jokoaren unea	14,8	5,5
Joko mota	11,3	1,3
Sekula ez dugu eztabaidatzen	9,6	39,4

Bideo-jokoei buruzko pertzepzioa

Inkestatuek baiezkoarekin edo ezezkoarekin erantzuten zituzten gai batzuen emaitza aztertuko dugu ondoren. Horren xedea da bideo-jokoei buruz nabarmendu ohi diren alderdi negatiboari buruzko iritzia eskatzea.

6. irudia

Baiezko erantzuna “bideo-jokoek ikasteko denbora kentzen didate” galderari (%)



Hiru mutiletatik batek baino gehixeagok aitortzen du bideo-jokoek ikasten eman zezaketen denbora kentzen diotela. Pertzepzio horrek behera egiten du nesken kasuan, % 20 inguru baita –bostetik bat–. Ehunekoak nazio mailakoen antzekoak dira.

4. taula

Baiezko erantzuna “bideo-jokoek familiarekin egoteko denbora kentzen didate” galderari”(%)

	Mutilak	Neskak	Guztira
Bai, kentzen didate	21,1	11,8	16,9

Beraz, neska-mutilek aitortzen dute bideo-jokoek “famiako bizitzarako” denbora pixka bat kentzen dietela, eta hala gertatzen da hamar nesketatik baten kasuan eta bi mutiletatik biren kasuan. Emaitza horiek Espainiaren gainerako lurraldeetan antzemandakoak baino txikiagoak dira (% 25 gizonetzkoen kasuan eta % 17 emakumeen kasuan).

5. taula


Baiezko erantzuna “bideo-jokoek adiskideekin egoteko denbora kentzen didate” galderari (%)

	Mutilak	Neskak	Guztira
Bai, kentzen didate	17,1	10,5	14,1

Adiskideak dira bideo-jokoetan emandako denborarengatik kalte gutxien jasotzen dutenak. % 17,1 eta % 10,5 dira, hurrenez hurren, aisialdi mota hori adiskideei eskainitako denboraren kaltetan dela aitortzen duten mutilen eta nesken ehunekoak; hau da, nabarmen handiagoa da mutilen kasuan. Bestalde, nazio mailako batez bestekoaren oso antzekoa da (% 16 mutilen kasuan eta % 12 nesken kasuan).

7. irudia

Baiezko erantzuna “ados al zaude hurrengo baieztapenekin?” galderari (%)




Mutil ugariak diote bideo-jokoren batekin engantxaturik daudela. Nesken kasuan, ordea, ehuneko hori nabarmen txikiagoa da. Ehunekoak nabarmen txikiagoak dira herrialdeko batez bestekoan antzemandakoak baino (% 21 mutilen artean eta % 7 nesken artean).

Ikus daitekeen bezala, ezagunen bat bideo-jokoetan engantxaturik edukitzeari buruzko pertzepzioak nabarmen egin du gora. Nahikoa ohikoa izaten da hori: auzoaren larruan errazago antzematen zaie arazoei.

Adingabe batzuek, mutilen % 16,1ek eta nesken % 7,5ek, uste dute bideo-joko batzuetan ageri den indarkeriak eragina izan dezakeela gizartean duten jokabidean, eta bukaeran haiek ere indarkeriazko jokabideak izatera irits daitezkeela. Bi sexuen artean antzeman dugun aldea zor dakioke mutilek ekintza edo borrokako bideo-joko motak nahiago izateari; izan ere, haietan indarkeria ugari agertu ohi da. Emaitzak nazioko batez bestekoen antzekoak dira.

8. irudia

Bideo-jokoa ala telebista nahiago izatea (%)



Mutil gehienek bideo-jokoak nahiago dituzte; horien erdiei telebista baino gehiago gustatzen zaie aisiarako aukera gisa; hirutik batek baizik ez du telebista nahiago. Aitzitik, lau nesketatik hiruk telebista aukeratuko luke, eta soilik hamarretik batek bideo-jokoak nahiago ditu.

Gainera, adinak nabarmen baldintzatzen ditu datu horiek. Hartara, bideo-jokoak nahiago izateak behera egiten du denborarekin, hain zuzen ere telebistarako interesak gora egiten duen aldi berean. Baieztapen hori argi antzeman daiteke ondoko taulako datuetan:

6. taula

Bideo-jokoak nahiago izatea telebista baino (%)

	Mutilak (%)	Neskak (%)
10 edo gutxiago	65,9	19,5
11	56,7	16,7
12	55,1	7,4
13	52,9	5,7
14	48,9	6,7
15	43,0	8,5
16	45,6	3,4
17	43,5	7,0
18 edo gehiago	41,2	6,9

7. taula

Telebista nahiago izatea bideo-jokoak baino (%)

	Mutilak (%)	Neskak (%)
10 edo gutxiago	17,6	46,0
11	25,8	65,0
12	24,6	69,9
13	28,3	84,9
14	28,1	82,9
15	36,1	80,3
16	36,8	85,1
17	40,0	78,9
18 edo gehiago	39,7	84,7



Publizitatea eta kontsumoa

haurrak publizitatearen hartzaile gisa dauzkan berezitasunak eta haien ikus-entzule berezitate hartzeko faktoreak ulertzea oinarritzko alderdiak dira, eta gaiari buruz egin litekeen edozein azterlanaren oinarria, azterlan hori mezuari buruzkoa nahiz testuinguruari buruzkoa izan.

Lehenbizi, haurra merkataritza-mezuen hartzailea izatearen kontzeptua mugatu behar dugu. Lan horri ikuspuntu desberdinetatik hel dakiogoe.

Ikuspuntu pragmatiko batetik, hedabideen plangintzak eta ikus-entzuleen neurketek adina hartzen dute erreferentzia gisa haurrak bereizteko: hartzailea haur bat da 4 eta 12 urte bitarte dituenean.

Lege-testuetan ere, adina da hautaturiko irizpidea. Haien arabera, Espainian haurrak 12 urtez beherakoak dira; Belgikan, Danimarkan, Frantzia, Grezian, Irlandan, Luxenburgon eta Suedian, berriz, 14 urtetan finkatuta dago haurren muga. Azkenik, Erresuma Batuan haurra 15 urtez beherako subjektua da.

Halere, zalantzarik gabe adina den arren haurra nor den definitzeko elementu kuantitatiboetako bat, ikuspegi kualitatiboagoa ere hartu beharko genuke kontuan, eta ahaleginak egin beharko genituzke mezuaren aurrean daukaten jarreraren arabera definitzeko haurrak. Ikuspuntu horretatik, haurra esateak esan nahi du berez hazten ari den eta, horrenbestez, bere ahalmenak bere osotasunean ez dituen norbaiten aipamena egitea. Zalantzarik gabe, hori adinarekin dago lotuta, baina ikuspuntu sakonago batetik azaltzen du haurraren errealitatea; errealitate hori, izan ere, egoki laburbilduta dago DRAEn haurra "esperientzia gutxiko" subjektu gisa definitzen duenean, edo haurtzaroa "zerbaiten hasiera edo lehenbiziko aldia" dela esaten duenean. Beraz, kasu horretan, haurra berez definitzeko prozesuan dagoen hartzaile bat da.

Hortik hasita, haur hartzailearen definizioan aurrera egiteko, psikologiaren zientziak azaltzen dituen gai batzuk aipatu beharrean gaude, hain zuzen ere subjektu hori bere ezaugarri nagusiarekin –osatzen ari den subjektua izatea– definitzen duten gai batzuk. Horretarako, eta lan honetako beharrei egokitzeko, haurraren ezaugarri psikologikoak merkataritza mezuaren aurrean garatzen dituen eragiketen arabera aztertu behar dira, eta horrela lortuko haurra iragarkien hartzaile gisa nolakoa den zehaztea.

Horri dagokionez, McNealen arabera, publizitatearen hartzailea den haurra aztertzeko, hiru alderdi hartu behar ditugu aintzat:

1. Mezua prozesatzea. Horren barne dago aztertzea mezuaren beraren egitura zein den (hizkuntza, formatua, emisioaren testuingurua, idatzizko mezuak agertzea eta abar) eta hartzaileak mezu hori hartzeko zer egin behar duen: arreta maila, uler-

mena, publizitatea eta beste eduki batzuk bereiztea, iragarkiaren komunikazio-helburuari antzematea eta abar. Lehenbiziko une honetan, mezuaren beraren azalpena eta haren berezitasunetan jarri behar da arreta, baina arreta jarri behar da, halaber, antzemateko haurrak mezu hori nola jasotzen, prozesatzen eta memorian gordetzen duen

2. Kognizioak. Merkataritza-mezuarekiko kontaktuan dagoen haur batek egiten dituen jarduerak biltzen ditu, bere jokabide, desio, interes, asmo eta lehentasunetan eragiten dutenak; horiek –egile honen esanetan– marketan, produktuetan eta produktu-kategorietan daude zentratuak. Etapa hori definitzeko, esan daiteke mezuaren eragin kognitiboak aztertzea dela; izan ere, nolako ahalegina egiten den, halako aldaketak gertatuko dira haurrak iragarritako edukiei buruz dauzkan ezagupenetan eta haiek direla-eta erakusten dituen joeretan.

3. Jokabideak. Haurren jokabideari buruzko aurreko etapa horren zehaztapenak aukera ematen digu haurren eta publizitatearen arteko elkarreraginetik ondorioztatzen diren bi ekintza aztertzeko: gurasoei iragarritako produktua eskatzea edo haurrak berak zuzenean erostea. Jokabide horiek gurasoekiko edo berdinekiko gatazka sozialak eragin ditzake.

B. Youngek, bere aldetik, beste eredu sekuentzial bat eskaintzen du, eta hartan ere merkataritza-mezuaren hartzailea den aldetik haurrarekin zerikusia duten elementu desberdinak integratu nahi ditu:

- a. Mezua entzuten du.
- b. Iragarkia eta programa bereizten ditu.
- c. Mezuaren helburua ulertzen du.
- d. Mezuaren edukia interpretatzen du (horren barne direla kontsumismoaren sinbolismoa edo estereotipo sexualak bezalako gaiak).
- e. Beste prozesu batzuk egiten ditu; esate baterako, horrelako edukien aurrean defentsa kognitiboak lantzea eta abar.

Bigarren leku batean agertzen dira harengan publizitateak sortzen dituen eraginak definitzen dituzten aldagaiak:

- f. Jarrerak eta balioak aldatzea, epe motzean nahiz epe luzean.
- g. Beste pertsona batzuei –gurasoei nahiz berdinei– eskakizunak egitea.
- h. Haurren hautapenetan eta erosteko garaian duen jokabidean eragitea.

Puntu horiek, zeinetan aipaturiko egileen artean adostasun handia baitago, izaten dira maizen erabiltzen direnak haurra merkataritza-mezuaren hartzaile gisa azterterakoan.

Haur kontsumitzaileen potentziala definitzea interes bereziko gai bat da, ahalegin horretatik ondorioztatzen direnengatik. Alde batetik, informazio hori garrantzi handikoa da gurasoentzat eta maisu-maistrentzat gure txikiak kontsumitzaile gisa hezteko garaian. Bestalde, bai botere publikoek, bai entitate pribatuek, datuak eta ondorioak abiapuntu gisa hartuta, ekintza zehatzagoak gauza ditzakete arlo hau eskolaren eta gizartearen ikuspuntutik lantzeko. Azkenik, dirudienez, iragarleek, publizitate agentziek eta komunikabideek, interes berezia dute ezagutzeko haurrek publizitatearen inguruan zer pentsatzen duten, zenbat diru erabiltzen duten, zertan gastatzen duten eta abar.


Egindako inkestak argitzen digunarekin, atal honetan gai horiek aztertuko ditugu. Horretarako, gogoeta hiru arlotan banatuko dugu: a. haurrek erabiltzen dituzten diru-iturri desberdinak; b. kontsumitzaile gisa duten dimentsioa, egiten duten gastuan bereziki zentratutik; c. publizitateari eta kontsumoari buruz duten iritzia eta pertzepzioa.

Haurren eta gazteen nomina

XXI. mendearen hasiera honetan, zalantzarik ez dago haurrek eta gazteek gastatzeko eta aurrezteko daukaten gaitasunari buruz. 80ko hamarkadarako, James McNealek –haurrak kontsumitzaile gisa hartzen zituen akademiko bat, azterketa hauetan aitzindaria izan zena– kalkulatu zuen adin-tarte horretakoek beren gastuetarako 2.000 milioi dolar zeuzkatela⁴. Horrekin batera, azpimarratzekoa da haurrek eta nerabeek etxeko zenbait erosketatan daukaten pisua. Autore horren arabera, haien zuzeneko eraginak urteko 187 bilioi dolar inguru egiten du, eta fenomeno hori produktuen aukera zabalago batera eramanez gero, 300 bilioietaraino irits gitezke.

1. taulan ikus daitekeen bezala, eraginik handiena oinarrizko produktuetan edo familiarako produktuetan dute: arropa, aisialdia, snack produktuak, logeletarako produktuak eta abar. Eragin txikiagoa dute, berriz, telebistak, altzariak, bideo-kamerak, jateko-elementuak eta beste batzuk erosteko garaian. Azkenik, eragin txiki-txikia dute bitxiak, gurasoentzako arropa, kosmetika-produktuak eta alkohola erosteko garaian.

4. Ikus.: Mc Neal, J.; *Children as consumers*; Lexington Books, 1987.

 1. taula

Erosterakoan haurrek zein produktutan duten eragin handiena. Sailkapena


Produktuak	Eraginaren ehunekoa	Eragin horrek zenbat diru suposatzen duen
Haurrentzako arropa	% 70	12,9 bilioi dolar
Haurren edertasuna/higienea	% 70	0,9 bilioi dolar
Autoak	% 8	17,7 bilioi dolar
Zerealak	% 50	4,0 bilioi dolar
Gailetak	% 40	2,2 bilioi dolar
Jaki azkarrak	% 35	31,4 bilioi dolar
Haurrentzako koloniak	% 70	0,2 bilioi dolar
Snack-ak eta frutak	% 80	0,3 bilioi dolar
Izoztuak, berritasunak	% 75	1,1 bilioi dolar
Hobbiak	% 40	0,4 bilioi dolar
Kakahuetetzko gurina	% 40	0,6 bilioi dolar
Pizza	% 40	0,4 bilioi dolar
Haurrentzako oinetakoak	% 50	1,0 bilioi dolar
Soda (freskagarriak)	% 30	17,4 bilioi dolar
Ikasteko softwarea	% 50	0,7 bilioi dolar
Jostailuak	% 70	9,8 bilioi dolar

Testuinguru horretan, egindako azterlanak aukera ematen du egiaztatzeko, lehenbizi, zein diren Nafarroako haurren eta nerabeen dirusarrera-iturri nagusiak.

Logikoa da pentsatzea oraindik ere beren gurasoen menpetasuna duten subjektuak izaki, dirusarrerren iturri nagusia asteko paga izatea. Hala eta guztiz ere, dirusarrerren iturri hori, lortutako datuek erakusten duten bezala, beste batzuekin konbinatzen dira; esate baterako, une berezietako opariak, beste pertsona batzuen ekarpenak –ahaideak eta abar–, etxe barruko nahiz etxetik kanpoko lana edo besterik gabe dirua behar den guztietan erreklamatzeko aukera. Dirusarrerren iturri horiek guztiak honela daude banatuta:

1. irudia


Dirusarrerren iturriak (%)



Ikus daitekeen bezala, dirusarrerren iturri nagusia asteko paga da, gurasoek ordaintzen dutena. Nola edo hala, aukera hori onena da heziketaren ikuspuntutik –baldin eta kopurua eta maiztasuna zentzuz ezartzen badira–; izan ere, lagungarri zaie neska-mutilei beren gastuak dirusarrera finko batzuen arabera moderatzeko. Gai horri buruzko azterketa xeheagoa eginez gero, adinei erreparatuta, ikusiko dugu nola txikienak diren beren dirua bide horretatik lortzen dutenak: horrelaxe gertatzen da 10 urtez beherakoen % 62,5ekin; 12 urteko ikasleen kasuan, berriz, ehunekoak nabarmen egiten du behera –% 49–. Azkenik, alde nabarmena dago dirusarrerren iturri horretan ikasleen sexuaren arabera: 2. irudian ikus daitekeen bezala, badirudi iturri hori garrantzitsuagoa izaten dela mutil txikien kasuan nesken kasuan baino.

2. irudia

Asteko paga 10 eta 13 urte bitartekoen kasuan (%)




Asteko ordainsariaren ondoren, beste bi dirusarrera-iturri agertzen zaizkigu, datuen arabera garrantzi handia izan dezaketena. % 41ek dio une berezietan gurasoengandik dirua jasotzen duela opari gisa –urtebetetzeetan, eguberrietan eta abarretan–. Halaber, % 38k horrelako sarrerak osaba-izebengandik, aitona-amonengandik eta abarregandik jasotzen ditu. Adinari erreparatuz gero, txikiak dira gurasoengandik –eta ez horrenbeste beste pertsona batzuegandik– maizen opariak jasotzen dituztenak.

Ikasleen % 37k dio dirua “eskatzeko duenean” lortzen duela: hau da, nahikoa dute dirua eskatu hura lortzeko. Gai hori interesgarria da, zeren eta zenbait gogoeta eginarazten baitigu. Horietako lehenbizikoa da badirudiela asteko paga bai gurasoentzat, bai ikasleentzat, aurreikusita dagoela “oinarrizko” zenbait gastu ordaintzeko. Halakoetan, aurreikusi gabeko bestelako gastu-premiak sortuz gero, berehala eskuratzen da behar dena. Bigarrena da argi eta garbi adierazten duela ikasleek autonomia gehiago dutela kontsumitzaile gisa, batez ere adinen arabera ateratzen den emaitzari erreparatuz gero: txikiak gutxiago gozatzen dute aukera horretaz, eta nerabezarotan, berriz, gertatzen da diru-eskari diskrezionalek gora egiten dutela; 18 urteko adinean, aldiz, nabarmen egiten dute behera. Horri dagokionez, azpimarratzekoak dira, halaber, mutilen eta nesken artean dauden aldeak 3. irudian adierazten den bezala; edonola ere, ohikoagoa da nesken artean. Azkenik, aurrekoa aintzat hartuta, gogoeta bat egin beharko genuke hobeki jakiteko hori hezkuntzaren ikuspuntutik egokia den: onartu behar al dugu diru gehiago eskatzea alde aurretik esleituta daukatenez gainera? Zein kasutan da hori posible? Heziketaren ikuspuntutik, egokia al da dirua eskatzeko duenean lortzea...?

3. irudia

“Dirua eskatu eta eman egiten didate” baieztapena, 15 urte bitartekoan (%)




Etxean nahiz etxetik kanpo lanak egiteagatik dirua lortzeko aukerak eragina dauka Nafarroako ikasleen % 22an. Logikoa den bezala, aukera horrek adinarekin gora egiten du, eta 16 urtetik aurrera, ia erdiek lortzen dute diruren bat lan pertsonalak eginez. Interesgarria da nabarmentzea gai honetan ere ehuneko handienak mutilen artean aurkitzen ditugula.

Haurren gastua

Ikerketan, galde egin zitzaion parte-hartzaileei aurreko asteburuan erabilitako diruari buruz. Oro har, % 18k dio ez zuela inolako gasturik egin; % 45ek 6 euro bitarte gastatu zuela dio, eta gainerakoek hori baino gehiago gastatu zutela. Sexuaren arabera, beste behin, nabarmenak dira, batez ere 12 eta 16 urtekoen artean, 4. eta 5. irudietan ikus daitekeen bezala; izan ere, irudi horietan gai hori nabarmentzen da 14 urteko ikasleen azpi lagin baten datuak abiapuntu hartuta. Alde horiek gorabehera, oro har baieztatu dezakegu neskek gehiago gastatzen dutela tar-teko aukeretan -3 eta 12 euro bitarte-; 13 eurotatik gorako gastua mutilen artean aurkituko dugu maizago.

4. irudia

Aurreko asteburuko gastua 14 urteko mutilen eta nesken artean (%)




Logikoa denez, kontsumitzaile txikiak dirua nola erabiltzen duten baloratzeko, jakin beharra dago zein gauzatan -ondasunak nahiz zerbitzuak- inbertitzen dituzten beren dirusarrerak.

5. irudian ikus daitekeen bezala, litxarreriak oinarrizko kontsumoko produktu bat dira gazteen artean; gatza, olioia edo irina edozein etxetan bezain beharrezkoak bali-

5. irudia

Produktuen arabera gastua (%)




ra bezala. % 63,4k bere diruarekin gozokiak eta litxarreriak erosi ohi ditu. Txikienak –11 urte– dira horretan gehien inbertitzen dutenak, lagineko hirutik bik horrela jokatzeko baitu. Beste muturrean nagusiagoak daude –16 eta 18 urte bitartekoak–; haien artean, izan ere, % 40k aitortzen du bere bizitza “gozoago” egiten duela.

Modak eta irudiak haur eta gazte kontsumitzaileengan duten eraginak ere bere garrantzia dauka, zeren eta, lortutako emaitzen arabera, aurrekontuko diruaren heren bat baino gehiago arropa erosteko erabiltzen baita. Horri buruz berezitasun batzuk azpimarratu behar dira: sexuen arabera, eragin txikiagoa du horrek mutilengan –kasu horretan, arropa erosten eginiko gastuak behera ere egiten du adinean aurrera ahala–; neskek, berriz, askoz gehiago inbertitzen dute, eta gastuak pixkanaka gora egiten du adinarekin, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.

6. irudia


Arropan eginiko gastua (%)



Inkestaturen heren batek baino gehiagok dio bere dirusarrerak zineman gastatzen duela; horretan, gastua handiagoa da nesken artean. Antzeko kopurua egiten du saketako telefonoetan eginiko inbertsioak. Kasu horretan, halere, berriz ere sexuaren arabera aldeak daude, eta neskek dira komunikabide horretan diru gehien gastatzen dutenak, batez ere 13 urtetik aurrera, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.

7. irudia

Saketako telefonoetan 13 urtetik aurrerako mutilek eta neskek egiten duten gastua, alderaturik (%)



Aldizkariak erostea haur kontsumitzaileen seigarren gastu-iturria da. Merkatuan, modaren eta irudiaren munduarekin lorturiko zenbait aldizkari badago –esate baterako, Bravo– edo musikaren eta zinemaren arloko beste batzuk –Súperpop–, eta aldizkako argitalpen ugari ere badago bideo-jokoei, kirolari eta abarrei buruzkoak; haien edukiaren erakarmenak berarekin dakar aldizkariak gazteen artean eragin eta zabalpen handiena duten komunikabideak izatea, gure ikerketako datuetan egiazta daitekeen bezala. % 22k erosi ohi ditu gehien gustatzen zaizkion aldizkariak. Eta arlo horretan emakumeek gehiago gastatzen dute; izan ere, nesken % 27k eta mutilen % 18 erosi ohi dituzte aldizkariak. Interesgarria da azpimarratzea aldizkariengatik interesa adinarekin behera egiten duela: gazteenak dira –batez ere neskek– beren aurrezki zati bat gustuko aldizkariak erosteko gordetzen dutenak.

Aldizkariekin batera, inkestaturen % 14k dio CDak eta DVDak bere poltsikotik erosten dituela. Gastu hori nabarmen handiagoa da mutilen artean; nesken artean, aldiz, ez da hain handia. Antzeko ehunekoak ikus daitezke “liburuen” atalean, eta horretan ere mutilek gehixeago gastatzen dute.

Azkenik, % 7k dio jostailuak erosten dituela; logikoa den bezala, horrelako erosketak gehien bat txikiaren artean izaten dira ohikoagoak.

Publizitateari buruzko iritzia

Haurrekiko publizitate-komunikazioa hasten da haur hartzailak publizitate-educia hautemateko aukera duen unean. Iragarkiarekiko kontaktu soilak, halere, ez du bermatzen komunikazio-prozesu horren xedea. Bestela esanda, gizakion pertzepzioa gauza da mezu askori erreparatzeko, baina horietatik benetan arreta jartzen diren horiek irits daitezke bestelako eragiketa kognitibo batzuen xedea izatera eta, azken batean, jokabideetan aldaketak eragitera. Horrenbestez, mezuari edo merkataritza-educiari arreta jartzea da azaldu beharreko lehenbiziko gauza haur hartzailaren eragiketei buruz ari garenean.

Arreta jartzea, zalantzarik gabe, edozein pertzepzio-jardueraren atributua da. Fenomeno horren definizio ugari daude; esate baterako: “sentsibilitatearen aplikazio selektiboa estimulazio-egoera batean”; “pertzepzioa fokalizatzeke prozesua da, estimuluen erdiko gune baten kontzientzia argia eta berezia areagotzen duena; izan ere, estimulu horien inguruan beste batzuk ere egonen dira, modu lausoagoan definitzen direnak; edo “pertzepzioaren fokua edo foku gunea, batzuetan nagusiki hautematen duenaren izaerak determinatua, eta beste kasu batzuetan estimuluaren ezaugarriek determinatua”. Prozesu horren definizioetan aniztasun handia dagoen arren, haurraren arretan eragina duten zenbait ezaugarri eta faktore ondoriozta daitezke.

Lehenbizi, arreta, definizioz, ekintza selektibo bat da. Estimuluen edo mezuen aniztasunak eta haien balorazio kualitatiboak eta kuantitatiboak eskatzen dute aukera edo lehentasun batzuk ezartzea, bai informazioaren sarreran, bai hura onartzeko moduan edo graduan ere. Selektiboak izate horretarako baldintza arreta da, informazio gutxi batzuetan baino ezin baita eduki.

Bigarrenik, arreta izatea prozesu aktibo eta direkzionala da. Besteak beste, ulermena, memoria eta norberaren interesak bezalako gaitasunak aktibatzen dira, mezuen jomuga dena edo hartzailea erne jarriz, betiere norabide jakin batzuetan. Bestela esanda, arreta modu zehatzean gertatzen da, eta ezin da jarduera hori orokorrean gertatu: beti norabide jakin batean gertatuko da.

Azkenik, arreta izatearen ekintzak hautematen diren estimuluaren antolaketa egokia eskatzen du. Ekintza mugatua eta intentsua denez, gaitasun horretaz baliatzen den subjektuak informazioaren antolaketak berezkoa duen prozesu bat garatzen du, hain zuzen ere zeregin horretan ahal den eraginkortasun handiena lortzeko.

Prozesua baldintzatzen duten faktoreei dagokienez, hiru dira azpimarratu behar direnak:

a. Gizabanakoaren faktoreak. Ahalmen horren ezaugarriak eta eragiketak, neurri handi batean, haiek egiten dituen subjektuaren araberakoak dira. Haurraren kasuan, garrantzitsua da nolakoak diren haur horren pertzepziorako trebetasunak, zein den haien ulermen-maila, lehendik zein esperientzia eta aurretiko informazio dituen, eta zein diren bere interes eta premiak edo nola baloratzen dituen bere arreta erakartzen duten mezuak. Azken batean, arreta jartzea hura eginen duen subjektuari oso lotuta dagoen ekintza bat da, dimentsio kognitibo, afektibo eta operatiboetan.

b. Estimuluaren faktoreak. Informazioaren aurkezpenak berak eta haren edukia askotan jar daitekeen arreta baldintzatzen dute. Iragarrien kasuan, iragarritako produktua edo zerbitzua bezalako elementuek izanen dute garrantzia, bai eta erabilitako musikak, agertzen diren pertsonaiek, agertzen diren gertakariak, erabiltzen den pertsuasio-formatuak eta abarrek.

c. Egoerarekin loturiko faktoreak. Faktore horiek eragina dute bai arreta jartzen duen subjektuarengan, bai informazioan. Lehenbiziko kasuan, garrantzitsua izanen da aztertzea haurrak nolako jokabidea duen mezua bidaltzen dion hedabidearen aurrean, bai eta mezu hori jasotzen deneko testuingurua ere (urteko garaia, eguna eta ordua, eta haurrak mezua bakarrik jasotzen duen edo berdinekin nahiz ahaideekin dagoenean jasotzen duen eta abar). Bigarren kasuan, eta telebistako publizitatearen kasuan, arretaren gainean eragina izanen dute, besteak beste, publizitate-edukiekin batera ematen diren gainerako programak eta mezua edo iragarkia zein katek ematen duen.

Behin alderdi orokorragoei buruz gogoeta egin ondoren, berariazko bibliografia berrikustek bidea emanen digu haurrak telebistako iragarkia dela-eta izaten duen arretan eragiten duten faktore nagusiak isolatzeko.

a) Adina da haurrak publizitatean jartzen duen arretan gehien eragiten duten faktoreetako bat; izan ere, beti adieraziko digu haurrak nolako garapena duen eta alde aurretik norainoko esperientzia duen. Egindako azterlan batzuek erakusten duten bezala, urte gutxi dituen haurrak arreta ia etengabekoa jartzen du iragarkien multzo batean aurkezten zaion publizitate gutzirako; izan ere, iragarkiak beste eduki

batzuekin nahasten ditu, eta publizitatearen edukiari josteta-eginkizuna esleitzen dio; edo, bestela, iragarkiek programa eten dutenean eta haurra bertan geratzen da, adi-adi, programa berriz hasi arte. Haurra hazten doan neurrian, mezua eta helburuak hobeki ulertzen ditu, eta helduek izaten duten arreta-pautaren antzekoa erakusten du; izan ere, arreta handiagoa jartzen du multzo jakin bateko hasierako eta bukaerako iragarkietan.

Baina, agian, adinaren eta arretaren arteko lotura aztertzerakoan gehien erabiltzen den paradigmatiko bat Jean Piagetena da. "Zentratzeari" buruzko haren kontzeptuak haurraren arretaren funtzionamenduari buruzko azalpen onenetako bat da. Piagetek fenomeno hori definitzen du esanez haur gazteak –eragiketa aurreko adinabere adimenarekin egiten dituen eragiketetan pertzepziozkoa dena eta kontzeptua dena bereizteko ezgaitasuna dela: urte gutxi dituen haurrak nahastuko ditu, esate baterako, tamaina-aldaketak eta kopuru-aldaketak; hartara, zabaldua dagoen orri bat eta bere begien aurrean norbaitek tolestutako orri bera ikusi eta ondorio bat aterako du: forma edo tamaina ez ezik, kopurua ere aldatu dela. Eta galdetuz gero, non dago paper gehiago?, haurrak zabaldutako orria seinalatuko du. Soilik haurra arreta deszentratzeko gaitasuna duen unetik, gauza batean baino gehiagotan finkatzeko gauza denean, edo beste batzuk bere baitan biltzen dituztenetan finkatzeko gauza denean, esanen dugu objektuen eta kontzeptuen arteko erlazio berriak ezartzeko moduan dagoela, hartara eskusiboki pertzepziozkoa den ezagutza-era gaindituz. Eta arreta deszentratzeko gaitasun hori zuzenean lotuta dago adinarekin.

Postulatu horiek telebistako publizitateari aplikatuta, azal daiteke zergatik haur txikiak beren arreta mezua ezaugarri pertzeptualetan jarri ohi duten; esate baterako musikan, koloreetan, planoen abiadura azkarrean eta abarretan; urte gehiago dituen haurrak, berriz, mezua identifikatuko du, eta arreta haren eduki kontzeptualarengatik, eta ez hainbeste pertzeptualarengatik, jarriko du. Azken batean, zazpi urte baino gutxiago dituen haurrari zuzendutako merkataritza-mezuak segurtatuta dauka nolabaiteko arreta-maila bat, baina arrisku handiagoa dago haurrak arreta soilik mezua alderdi batean jartzeko, eta mezu oso ulertzera ez iristeko

b) Mezua formak eta edukiak, edo, bestela esanda, estimuluaren faktoreek, desberdintasun batzuk markatzen dituzte haurrak jar dezakeen arreta dela eta. Iragarki batzuetan erabilitako produkzioak berarekin dakar, askotan, iragarkiak elementu ugari edukitzea, haiek hautematen dituenaren arreta finkatzeko helburuarekin. Lehenbizi, erabilitako planoek eta trantsizioek erritmo handia eman ohi diote historiaren garapenari. Bigarrenik, lokuzioen tonuak, musikak eta koloreek arreta erakartzeko eta arretari eusteko behar den antolamendua izaten dute. Hirugarrenik, pertsonaiek eta egiten dituzten ekintzak euskarri bat izaten dira haur ikus-entzulearen arretarako, imitazioarako joera handia baitu. Elementu horiek guztiak dira haurrari zuzendutako iragarkiaren ezaugarriak, eta halako eragin bat izaten dute arreta-prozesuetan. Besterik da mezua erakarmen handi horretatik mezua arreta egiten dion haurraren jarrera-aldaketa batzuk edo jokabide jakin bat gerta daitezkeen lortzea.

c) Azkenik, hartzaillearen testuinguruak ere eragina izan dezake arretan. Eragin horrek iragarkia hautematen den moduan eta unean ere eragina dauka. Lehenbiziko kasuan, haurrak maiz telebista ikusteko jarduera eta beste jarduera batzuk konbinatzen ditu; esate baterako, hitz egitea, jolastea eta abar. Horrek eragina dauka iragarrian duen arreta-mailan. Hortik ondorioztatzen da zeinen garrantzitsuak diren musika bezalako pertzepzio-faktoreak, haurra zentratzeko eta mezuaren gainean hark jartzen duen ikusizko eta entzunezko arreta bideratzeko gaitasuna baitute. Berezitasun horretaz gainera, eragin handikoa da, era berean, haurrak eta jarduera horretan harekin batera daudenak hautatzen duten unea.

Jarrerak

Publizitateak haurrarengan duen eragina ulertzeko funtsezko elementu bat mezua jasotzerakoan sortzen diren jarrerak dira; izan ere, haien arabera izanen da, hein handi batean, mezuaren eragingarritasuna.

Jarrera gisa ulertuko dugu zenbait objektu eta ideiarri erantzuteko aurretiko jarra arrazional eta emozionala. Antzeko beste prozesu psikologiko batzuetatik bereizita, jarrerak egonkorak dira denboran, ikasitakoak dira, objektu eta ideia partikularrei zuzenduta daude, osagai emozional bat dute eta ebaluazio-eginkizun bat dute. Halaber, emozioak adieraziz, haurrak edo helduak hautematen duten horren aurrean jartzen dira. Bestela esanda, jarrerak baliogarriak dira ezagutzen edo hautematen den hori ebaluatzeko, halako jarrera bat hartuz. Horretatik ondorioztatu behar da jarra-adierazpen oro arrazionala izateaz gainera emozionala ere izatea, eta jokabide aktibo eta motibatu baten bitartez adieraztea.

Haurrak publizitatea dela-eta mantentzen duen jarrerak norabide eta intentsitate-maila jakin bat dute.

Norabideari dagokionez, haurraren jarrera alderdi jakin batzuei buruzkoa izan daiteke: iragarritako produktua edo zerbitzua –kategoria, azpi kategoria, marka, gama-modeloa eta abar– edo produktuarekin eta haren publizitatearekin loturiko bestelako objektu eta subjektuei buruzkoa: iragarkia, publizitatea zein programatan jartzen den, publizitatean agertzen diren pertsonaiak eta abar. Bereiz daitezke, horrenbestez, iragarlearekiko jarrera, mezuekiko jarrera, mezuen euskarriekiko jarrera, salmenta gunearekiko jarrera eta abar. Intentsitate-graduak ere hartzaillearen jarreraren garrantzia baldintzatuko du, eta produktuaren, haren publizitatearen eta haurraren balio eta premien artean dagoen hurbiltasunaren arabera izanen da.

Jarrerari buruzko adierazpenen aniztasuna gorabehera, haren garrantzia funtsezkoa da mezuak bere pertsuasio-helburuak bete ditzan. Jarreraren bitartez, haurrak jasotako informazioaren edukia ebaluatzen du, bai postulatu arrazionalen ikuspuntutik –informazio kopurua, harren garrantzia, errealitaterako egokia den eta abar– bai arlo emozionalagoetatik: jasotzen denarengatik gustua eta desgustua, esate baterako. Hori dela eta, hartzailleak mezua dela-eta dauzkan jarrerak ezagutzea abiapuntu egokia da komunikazioaren eraginkortasuna ezartzeko.

Oro har, zenbait ikerketak erakusten duen bezala, haurrak, oro har, publizitatea-erikiko jarrera ona du, nahiz eta jarrera horrek lotura handiagoa duen mezuaren formarekin iragarritako produktuarekin baino. Horri dagokionez, haurrak satisfazio bera aurkitzen du publizitatearen kontaktetan eta ezagunagoak zaizkion beste eduki batzuetan, eta gustatzen zaion publizitatea entretenitzen duena izan ohi da; hori dela eta, mezua osatzen duten elementuak entretenitzeko funtzio hori erraztera bideratu ohi dira.

Beste behin, oro har positiboa izaten den jarrera hori aldaketa batzuen menpe dago hartzailearen adinaren arabera: 10 urtetik aurrera, haurrak jarrera kritiko aktiboagoa izaten du publizitate iragarkiaren aurrean, eta hori bat dator haur horrengan mezuaren alde txarrak baloratzeko eta mezuaren helburuak ulertzeko gaitasuna agertzearekin.

Gainera, haurrak mezua dela-eta duen jarrera ez da modu bakarrean azaltzen. Iragarki batekiko jarrera positibo orokorrak ez dakar berarekin iragarkia osatzen duten elementu guztiak gustukoak izatea. Hartara, produktu jakin batekiko jarrera ezagutu beharko da, eta publizitatea-erikiko jarrera, eta, oro har, publizitate guztiarekiko jarrera, haurraren erosteko erabakiei buruzko oinarri eta guztizko ondorioetara iristeko.

Azkenik, gogoan hartu behar da haurrengan jarrerak osatzea ikasteko prozesu jakin bati lotuta dagoela. Familia eta haurraren berdinak dira prozesu horretan eragina duten funtsezko faktoreak. Haurrek ezagutzen badute gurasoek mezuarekiko duten jarrera, erreferentzia gisa hartuko dute beren jarrerak lantzeko. Berdinen kasuan, taldearen eragina –dela hautaturiko taldea, dela inposatutakoa– garrantzitsua da jarrerak osatzerakoan. Horrela, eremu horren barruan, haurrak bere jarrearen dimentsioa kokatzen eta jartzen du, taldean duen rolaren arabera, eta pentsatzen duena adierazten du publizitateari buruz ez ezik, markari, produktuei, diruari eta kontsumoari berari buruz ere. Erkidego horien barrenean, haurrak imitatuz jarduten du, arau batzuek babestuta eta eginkizun jakin bat betez. Zalantzarik gabe, dimentsio sozial horrek eragina izanen du publizitate-mezuan duen erlazio orokorrean ere; kasu horretan, erlazio horrek jarrera zehatz batzuk azalduko ditu, baldintza berdinak dituzten hurrekiko kontaktuak iragazkitik paseak, adostuak eta indartuak.

Orain landu beharko genuke zein den markari, produktuari edo produktu horren kategoriari buruzko jarreretan publizitateak duen eragina... eta nola jarduera horiek haurrak kontsumoari buruz hartuko dituen erabakiak auresatearen balioa duten, eta horretarako aztertu behar da zein den mezuek jarrerak sortzeko duen indarra.

J. Brée, puntu horri buruz gehien ikertu duenetako bat, ondoko ondorioetara iritsi da:

1. Mezuak exekutatzeko alderdietako batzuek jarduera positiboak errazten dituzte. Haur txikien kasuan, esate baterako, marrazki bizidunak egotea, errepikak edo erraz ikas daitezkeen esaldiak egotea, ekintza, animaliak edo animalia pertsonifikatuak eta aitona bat izatea historiaren protagonista dira jarrera positiboan errazgarriak. Haur nagusiagoen kasuan, elementu horietako batzuei gehitu behar zaie

amerikarren bizi-estiloari loturiko balio kultural modernoekin zerikusia duen guztia.

2. Humorea erabiltzea da gehien baloratzen diren elementuetako bat. Adin guztietan, egoera dibertigarriak erakusten dituzten iragarkiek jarrera positiboak sortzen dituzte.

3. Jarrera negatiboetara dagokienez, hurrek iragarkietan aurkezten diren ekintza edo eraldaketa batzuk ulertzen ez dituztenean, haiek absurdutat edo logikarik gabekotzat jotzeko joera izaten dute. Halaber, gauzak asmatzearekin eta fantasiarekin loturiko gauza guztiak zoragarri bazez ere, ez dituzte onartzen sinesgarri ez diren mezuak: klabe errealean aurkezturiko iragarki batek arau batzuk errespetatu behar ditu, eta ezin ditu aurkeztu asmatutako mundu batean gertatuko liratekeen gertaerak.

4. Azkenik, mezua errepikatzeak ere eragina izaten du jarrerak osatzerakoan. Oro har, badirudi haurrak iragarkiarekiko lehenbiziko kontaktuan adierazten dituenak erabakigarriak direla. Positiboak badira, ez dira indartzen iragarkia behin eta berriz ikusiagatik. Haurren lehenbiziko balorazioa negatiboa bada, badirudi maiztasunaren eta jarreraren artean erlazio bat badagoela eta sumindurak gora egiten duela gustatzen ez zaigun mezu bat berriz ikusten dugunean.

Aurreko puntuei dagokienez, halako zuhurtasun gune batzuk onartu behar ditugu, batez ere jarrera positiboaren presentziaren ikuspuntutik jokabide jakin batzuk inferitu nahi badira. Bestela esanda, publizitateak jarrera jakin batzuetan duen eragin guztia erreferentziala da, eta ez ditu determinatzen eragin horretatik ondoriozta daitezkeen ekintzak. Honaino, haurrekin publizitatearen bidez komunikatzea eta jarrera positiboak sortzea lortzeko alderdi garrantzitsuenak azpimarratu ditugu. Hori, zalantzarik gabe, funtsezko pauso bat izanen da mezuak bere helburuak betetzeko eta erabakietan –eta, horrenbestez, haur hartzaillearen jokabideetan– eragina izateko. Hala eta guztiz ere, alde aurretik jarrera positibo bat izatea beharrezkoa dela esan dezakegu, baina esan beharra dago, halaber, ez dela nahikoa hartzailearengan, mezuarekiko harremanaren ondorioz, gerta daitezkeen aldaketak azaltzeko. Ezinbestekoa da, horrenbestez, sakontzea publizitateak haurren erabaki-prozesuetan daukan eginkizunean.

Gogoeta horiek egin ondoren, inkestaturiko ikasleek publizitatea dela-eta daukaten iritzia deskribatzeko eta baloratzeko moduan gaude.


Erosteke eragina

Azaldu dugun bezala, haurrak eta gazteak kontsumo-talde interesgarri bat dira duela zenbait hamarkadatik. Beren dirua maneiatzen dute, besteen erosketetan eragiten dute eta kontsumoko erabakiak eguneroko gauza bat dira haientzat. Horri dagokionez, saiatu gara jokabide horretan eragina duten faktore batzuk definitzen; bestela esanda, saiatu gara zehazten zer den erosterakoan haiengan eragin handiena duena.

Lehenbiziko tokian, gurasoen iritzia dago, erosketan erabakitzerakoan kontuan hartzen den lehenbiziko faktore gisa. Horixe aitortu du inkestak % 41ek. Logikoa denez, faktore hori garrantzia galtzen doa ikasleentzat adinaren gora egiten duen neurrian.

8. irudia

Gurasoen iritzia 15 urte bitarteko mutilen eta nesken erosketetan duen eragina (%)




Bestalde, gurasoen eragina ere agertzen da, eta nabarmen handiagoa da nesken kasuan, ondoko irudian ikus daitekeen bezala.

Bigarren faktoreak, eraginaren hurrenkeran, berdin iritzia izaten da, % 38ren kasuan gertatzen baita. Horretan, izan ere, gurasoen eragina dela-eta arestian deskribatu dugunaren alderantzizko joera dago: taldearen multzo-eraginak gora egiten du adinarekin, eta nerabegarotik aurrera goreneko balioetara iristen da. Ondoko irudian ikusarazten dugu ideia hori.

9. irudia

Gurasoen iritzia vs. adiskideen eragina (%)




Sexuari erreparatuz gero, beste behin neskek markatzen dituzte desberdintasunak, eta beren burua askoz ere multzokoagokotzat eta beren adiskideen iritzien menpekoagotzat jotzen dituzte erosketak batzuk erabakitzeko garaian.

Inkestaturen heren batentzat, denda garrantzitsua da erosketak bat erabakitzeko unean. Puntu horretan, neskek –batez ere nerabeak– askoz ere selektiboagoak dira. Bestalde, markek eragina dute Nafarroako ikasleen % 27rengan. 13 urtetik aurrera joera marka zaleagoa antzeman daiteke, eta nerabegaroen dauden mutilei neskei baino kezka handiagoa sortzen die kasuko produktuaren markak.

10. irudia

Markak erosketan duen eragina (%)




Azken lekuan bi eragin agertzen dira. Alde batetik euskarri desberdinetan produktuei eta zerbitzuei buruz agertutako informazioa. Kasu horretan, badirudi eduki horiek % 25ean duela eragina. Bestetik, merkataritza iragarkiak, harrigarria bada ere, ez dira gauza erabakigarri gisa hartzen: % 24k baino ez du aukera hori aitortzen. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da publizitateak eragin handiagoa duela txikiagoen erosketetan. Halaber, orokorrean, badirudi neskek iragarkiak gehiago erabiltzen dituztela informazio iturri gisa.

Azkenik, dirudienez, txikia da dendetan eta saltokietan dauden saltzaileen eragina; izan ere, % 7,7k baizik ez du baiezko erantzunik ematen: "bai, saltzailearen iritziak eragina izaten du nigan".

Atal honetako galderen azken multzoaren xedea da Nafarroako ikasleek publizitatea dela-eta edukitzen dituzten iritziak baloratzea; 11. irudian horri buruzko iritziak ageri dira.

11. irudia

Publizitateari buruzko iritziak (%)




Publizitatea dela eta, inkestatu gehienek aitortzen dute engainatu egin dezakeela. % 62 ados dago ideia horrekin, eta horretan ez dago generoaren araberako desberdintasunik; halere, txikiak dira aukera horrekin hain ados ez daudenak. Horrekin batera, ikasleen heren batek uste du publizitateak eragin argia duela jendearengan. Jarrera horrek lotura argia dauka adinarekin eta kontsumoa dela-eta pilatutako esperientziarekin: txikiak kasuan, % 25 ados dago iritzi horrekin; handien artean, berriz, % 71ra iristen da ados daudenen kopurua.

Defentsako jarreraren aurka –esate baterako, publizitatearen engainuarengatik edo hark adineko pertsonengan duen eraginarengatik– inkestatuak laurdenak uste du publizitatea beharrezkoa dela; horretan adostasun handiagoa erakusten dute adin txikiagoko ikasleek –10 eta 12 urte artekoak–. Badirudi iritzi hori, oro har, mutilen artean zabalduagoa dagoela. Bestalde, ia % 20k dio publizitatea zerbait dibertigarria dela, eta jarrera horren adinarekin gora egiten du. Horri dagokionez, mutilek gehiago azpimarratzen dute osagai hori publizitate mezuetan. Azkenik, % 15ek uste du publizitatea zerbait interesgarria dela, eta % 8,5 baizik ez dago ados “iragarkiak egiten dituztenek nire gustuak ezagutzen dituzte” baieztapenarekin.

Galderen multzoa beharrezkoak ez diren erosketekin bukatzen da. Azpimarratzekoa da ia heren batek aitortzen duela erabaki diskrezionalak eta ez oso pentsatuak hartzen dituela erosteko garaian. 13. irudian ikus daitezkeen bezala, 14 urtetik aurrera, jokabide horretan halako desberdintasun bat dago mutilen eta nesken artean.

12. irudia

“Behar ez ditudan gauzak erosten ditut” baieztapenari baiezkoko erantzuna ematea (%)





Telebista

g

aur egun, Komunikabideen panoraman, telebistak oraindik ere nabarmenago eusten dio podiumaren goreneko lekuari. Hala eta guztiz ere, ikus-entzuleen belaunaldi berrien artean maizago agertzen da hedabide eta pantaila desberdinen arteko banaketa orekatua, eta nabarmena da batzuetan orain arte "pantaila handia" izan denak nagusigoa galtzen duela.

Hartara, esan dezakegu pertsona eta egun bakoitzeko eguneko batez bestekoak, telebistaren aurreko denborari dagokionez, 2006an 215 minutuko muga, hiru ordu eta erdi, gainditu zuela. Txikienen kasuan, telebista aurrean egunero ematen duten denbora, batez beste, ordubetea jaitsi da. Ikus-entzule desberdinen artean dauden aldeak gorabehera, ausartegia litzateke telebistaren ilunabarra aurreratzea: irudiaren gizarteak gaur egun ere telebistaren bidez hartzen du munduaren gaurkotasunari buruzko kontzientzia.

Haur eta gazte ikus-entzuleek telebista nola erabiltzen duten ikertzea garrantzitsua da hain zuzen ere errealtatearen ezagutzan hedabide horrek duen garrantziarengatik –haren bitartez ezagutzen baitute–, eta haien nortasunaren zati bat osatzen duelako. Telebistan agertzen diren eduki, balio edo errealtatea ulertzeko modu desberdinen eraginaz gainera, indarrean jarraitzen dute zabal ikertutako beste gai batzuek, haur ikus-entzuleen artean eragina izan dezaketenak: esate baterako, telebista hedabideetan pasiboena da, eta horrek berarekin ekartzen du haurrak denbora pila batean geldirik egotea, eta telebista zein lekutan dagoen, beste jarduera batzuk –besteak beste jolastea, irakurtzea eta hitz egitea– lekurik gabe gelditzen dira. Azkenik, telebista-pantaila oraindik ere fondoan egoten da beste jarduera batzuk egiten diren bitartean, eta arreta galtzea eta familia bateko kideen inkomunikazioa eta abar eragiten ditu.

Hedabide honek daukan mende Erdiko historian, ikerlan ugari egin dira haur eta nerabeei buruz. Ondoren teoria aipagarrienak nabarmenduko ditugu. Ez dugu horietako bakoitzari buruzko azalpen oso bat eman nahi, ez eta haien balioa zalantzan jarri ere. Besterik gabe ideia batzuk islatu nahi ditugu, telebistaren eta haurren arteko harremana zientifikoki azaltzeko lanean jarraitu ziren bideak ulertzen lagunduko digutenak. Horri dagokionez, azpimarratu nahi ditugu ikaskuntza sozialaren teoriaren (social learning theory) ikuspuntutik eginiko ekarpenak, ikaskuntza prosozialaren ikuspegia (prosocial learning) eta planteamendu kognitiboak –horien artean Jean Piageten pentsamenduaren aplikazioak nabarmendu ditugu.

a) Ikaskuntza sozialaren teoria

Bandurak eta Waltersek proposatu zuten. Ikaskuntza sozialaren teoriak aplikazio zabala du telebistaren eta indarkeriaren azterketan. Honakoak dira korrante honen

ardatz-jarraibideak: ikaskuntzari buruz egiten duen proposamena, imitazio-ereduak duen garrantzia eta errefortzuen presentzia.

Teoria honen aldekoek uste dute haurraren ikaskuntza, funtsean, imitazioz gertatzen dela, berariazko testuinguru sozial batean. Funtsean kanpokoan oinarrituriko proposamena bada ere, Bandurak onartzen du haurraren barneko baldintzak (motibazioak, jarrerak, pertzepzioak, garapen kognitiboa eta abar) garrantzitsuak direla ikaskuntzan. Postulatu horiek onartzea ez da eragozpena autore horiek, bestalde, ulertzeko ikaskuntza funtsean gertatzen dela eta adierazten dela faktore sozialen –kanpoko faktoreen– elkarreaginaren ondorioz. Gainera, hori baieztatzen dutenean, onartzen dute, halaber, imitazioa ezin dela soilik neurtu haurraren jokabidearen adierazpenen ikuspuntutik, nahiz eta horiek, beren aldetik, azken batean barneko aldaketak ekar ditzaketen.

Onartzen bada haurrak, ikasten duenean, nagusiki imitatu egiten duela, garrantzitsua izanen da imitatzen duen eredu definitzea. Haurrarentzat imitatuz ikastea behar bat baldin bada, beharrezkoa izanen da, halaber, ereduak, bere funtzioa betetzeko, baldintza batzuk betetzea. Modeloaren eta ikuslearen arteko egokitasun bat egon behar da. Gainera, haurrak egoera hurbilekotzat, interesgarritzat eta motibagarritzat ebaluatzeko, ereduak behar adina autoritatea eduki behar du haur hartzailearentzat. Azkenik, garrantzitsua da, halaber, modelo aurkezten eta jasotzen deneko testuinguru.

Errefortzua da, azken batean, haurrak modeloen bitartez ikasteko prozesuaren gailurra. Errefortzua da modelo gisa jarduten duten pertsonaien jardueratik eratorritako ondorio sozialen behaketa. Haurrak ikasten du zenbait jokabide adierazten edo ez adierazten, dauzkaten ondorioen arabera, baina ez du ondorio horiek esperimentatzeko beharrik: ikas dezake ondorioak besteengan behatuz.

Teoria horrek ikasteko modu identifikagarri bat proposatzen du, esperimentu bidez ezin egiaztatu daitezkeen bestelako planteamendu psikologiko batzuekin kontrastatuta. Halaber, nolabait ere, konduktismoaren proposamenak gaintitzen ditu; izan ere, proposamen horiek, haurrak jokabide berriak hartzen dituela egiaztatzen duen arren, abiapuntu gisa dute irakastea kostu handiko zerbait dela. Ikaskuntza sozialaren kasuan, ikasteko ez dago esperimentatu beharrik: nahikoa da behatzea; ez da beharrezkoa, ezta ere, haurrak ondorioak zuzenean bizitzea. Ikuspegi horren pean, bai egiazta daiteke haurrak ikasten duela, eta telebistaren kasuan, halako kausa-eragina erlazio batzuk ere ezartzen dituzte hurrek ikusten dutenaren eta ikasten dutenaren artean

b) Ikaskuntza prosoziala

Telebistaren eta haurren arteko harremanari aplikaturiko bigarren korrante teorikoa ikaskuntza prosoziala deitutakoa da. Funtsean social learning theory deitutakoaren bestelako aldagai edo aplikazio bat da. Lehen adierazi dugun bezala, Banduraren postulatuak ikaskuntzaren xede gisa hartzen dute jokabide oldarkorren modelatzearen bitartezko ikaskuntza, telebistaren bitartez. Prosocial learning deitutakoak plan-

teamendu bera aplikatzen dio kontrako objektuari: telebistak haurra baloreetan eta jarrera positiboetan modelatzeko aukera.

Arlo horretan eginiko lehenbiziko lanetako bat da sozialki baloraturiko jokabideak kokatzea eta definitzea. Honako jokabideak izaten dira: altruismoa, norberaren agresibitatea kontrolatzea, sariak berandutzea, norberaren eta besteen sentimenduak azaltzea, egindako gaitzari konponbidea ematea eta, azkenik, sinpatia. Ikerketa batzuek irizpide horiek aplikatzen dituzte telebistako edukietan, jakiteko zein den telebistak, instrukzio-funtzio horretan, gaur egun duen potentziala.

Edukien azterketarekin batera, haurraren eta haren jokabidearen analisia dator. Behin laborategiko esperimentu batzuen bitartez demostratu eta ondoren telebista haurra modelatzeko gauza dela, beste lan batzuk egin behar dira haurrak telebistari buruz egiten duen imitazioaren gainean, hedabide hori gertatzen deneko testuinguru naturalean.

Indarkeriari buruzko behaketa bidezko azterlanekin gertatzen den bezala, ikaskuntza prosozialaren postulatuek ere eztabaida eragiten dute. Batzuek planteamendua bere osotasunean zalantzan jartzen badute ere, gehienek hedabideak haur ikus-entzuleengan sustatu beharreko balioak ezartzeko daukan zilegitasuna da zalantzan jartzen dutena. Bestela esanda, telebistan ikasitako balioen iraunkortasuna zalantzan jartzen duen oposizio praktikoari gehitzen zaio telebistari irakasteko funtzioa esleitzeko ahaleginaren oposizio moralala.

c) Psikologia kognitiboa

Psikologia kognitiboa telebistaren eta haurren ikaskuntza hartzen duen hirugarren paradigma teoriko handia da. Haren garrantzia oso-oso handia da, zeren eta hamarkada askotan ikerlari ugari ibilitako bidea baita. Aurreko proposamenei dago kienez, planteamenduan bira handia ematen da. Bai behaketa-bidezko ikaskuntzak, bai ikaskuntza prosozialak haurraren eta telebistaren arteko elkarreragina kanpoko eraginen bitartez azaltzen dute; psikologia kognitiboak, ordea, haurraren protagonismoari emanen dio lehentasuna, edozein eragin azaltzeko gako gisa. Zehazki, korronte horretatik haurraren barneko prozesuak dira telebistaren aurrean daukan ahalmenak hobekien azaltzen duten faktoreak. Haren arretaren eta oroimenaren funtzionamendua, hautemateko ahalmena, buru-garapena eta abar izanen dira diskurtso zientifikoa ezartzeko aldagai berriak.

Esparru horretan gehien aplikatzen diren teorietako bat Jean Piagetek landutakoa da. Psikologo suitzar handi horrek eman zuen haurraren hazkuntza kognitiboari eta haren etapei buruzko azalpen zehaztuenetako bat. Abiapuntu gisa hartuta ikaskuntzarekin batera nerbio-sistemaren ontze progresibo bat gertatzen deneko ideia, adimenaren garapenak suposatzen dituen estadio unibertsalak definitu zituen.

Haurrak guztizko garapen kognitibora iristeko egiten duen bidea hainbat aldagai funtzionaletan oinarritzen da; horiek direla eta, Piagetek antolaketa eta asimilazioa bereizten ditu:

“Ezin dira antolaketa eta egokitzea bereizi. Mekanismo bakarraren bi prozesu osagarriak dira: lehenbizikoa zikloaren barneko alderdi bat da, zeinean egokitzea kanpoko alderdi bat baita. “Pentsamenduaren eta gauzen arteko adostasunak” egokitzearen eta antolatzearen funtzio bikoitz hori adierazten du. Pentsamenduaren bi alderdi horiek ezin dira disoziatu: gauzei egokitzerakoan, pentsamenduak bere burua antolatzen du eta bere burua antolatzerakoan gauzak egituratzen ditu.”⁵

Hartara, bada, haurrak ezagupen berriak ikasten dituenean, ikasten ari den horri egokitu eta, gainera, bere ezagutza guztia egokitzapen berri horren arabera antolatu behar du. Egokitze horren barrenean, halaber, batera gertatzen diren bi prozesu definitzen dira. Asimilazioaren bidez ezagutzen ez den hori ezagun egiten da eta moldaera lagungarri zaio asimilatzen duen horretarako buru-eskemak konfiguratzeko.

Ikuspegi horretatik, adina haurren eta telebistaren arteko erlazioa hobekien azaltzen duen faktoreetako bat da. Gainera, zenbait ikerketatan haurren sozializazio prozesuari aplikatu zaio, eta, oso bereziki, telebistako publizitatearen kasuari.

Alderdi metodologikoei buruzko errepaso laburra egin ondoren, arlo horri buruzko azterlanean, azken begirada jarriko dugu telebistak egin duen jauzi teknologikoa, jauzi horrek nabarmen aldarazi baititu hartzailleak dauzkan aukerak. Lurreko telebista digitalaren etorrerak, kable bidezko telebistaren ezarpenak eta abarrek telebista-kanalen aukera zabaltzen dute, eta programa ugari eskaintzen dira asteko egun eta ordu desberdinetan, ikuslearen beharretara egokitzeko. Edukien espezializazioa ere berritasun handia da, haurrentzako telebista-kanal bereziak baitaude, eta, agian, gurasoen hezkuntza-bitartekaritza zailago gertatzen da: soilik botoi bat zanpatze hutsarekin, ehunka kanaletan sar gaitetzke, doakoak eta ordainpekoak, eta familiak bere kide guztien eskakizunak zabal gainditzen dituen eskaintza bat topatuko du.

Azken batean, bere argi-itzalekin, telebista, oraindik ere, masen hedabide nagusia da, nahiz eta hedabide interaktiboak tokia hartzen ari zaizkion. Eta hedabide erakargarria ere izan daiteke, eta familiaren aisiarako bide on bat, baldin eta, beti bezala, zentzuz jokatzeko badugu. Ikus dezagun, ondoren, gaiari buruzko ikerketaren emaitza nagusiak.


Etxeko ekipamendua

Gaur egun, telebistak etxean hartzen duen tokia hozkailuarena edo ohearena bezain garrantzitsua da, eta joan den mendean, milioika familiaren elektrotresnarik maiteena izatera iritsi zen. Izan ere, etxe batean beste aparatu batzuk falta izatea posiblea den bitartean, harritu eginen ginateke etxe batean gutxienez ere telebista bat egonen ez balitz. Egindako inkestan ere horixe islatzen da, zeren eta etxean bi telebista edo gehiago dutenak % 83 baino gehiago dira; nabarmena da, bestalde, etxeetatik % 16,4n lau telebista edo gehiago badagoela.

5. Flavell, J. H.; Piaget, J.; Cevasco, M. T. (itz.); *La Psicología evolutiva de Jean Piaget*; Paidós, Buenos Aires, 1982, 67. or.

1. irudia

Etxeko telebisten kopurua (%)




Gogoeta egin behar da, halaber, etxean telebista-aparailuak kokatuta dauden lekuei buruz, zeren eta horrek etxeko gizabanakoen kontsumo-jarraibideak determinatuko baititu. Nafarroako haur eta gazteen kasuan, telebista, normalean, saloian edo egongelan dago (% 91,2), eta horixe da familiak denbora pasatzeko daukan leku nagusia. Hala eta guztiz ere, sukaldean ere aparatu ugari daude: horixe diote haurren % 34k. Datua garrantzitsua da, zeren eta gaurko bizimoduaren erritmoa dela eta, familia bateko pertsona bakoitzak bere ordutegia izan baitezake, bere denbora-antolamendu propioa, eta jarduera ugari. Hori guztia dela eta, izan ere, askotan familia elkarturik dagoen une bakarra bazkaltzeko edo afaltzeko ordua da.

Bestalde, inkestatuen % 26,3k dio bere logelan telebista duela; horri gehituz gero, anai-arreba baten logelan telebista dutela diotenak, ondorioa da adingabeen % 42,5ek aukera dutela telebista bakarrik edo gurasoen gainbegiratzetik gabe ikusteko. Sexuen arabera, mutilen % 31k bere telebista dauka; nesken artean, berriz, % 20,6k du bere telebista; oro har, telebista duten ikasleen ehunekoak adinarekin batera egiten du gora.


2. irudia

Telebista norberaren logelan (%)



3. irudia

Telebistaren kontsumoa astegunetan eta asteburuan (%)



Azkenik, inkestaturiko ikasle nafarren % 48,9k dio ordainpeko telebista ikus dezaakeela. Horri dagokionez, zerbitzu hori kontratatzeko erabakia, dirudienez, lotuago dago gurasoen iritziarekin haurraren pertsuasio-indarrarekin baino; izan ere, ez dago adinaren edo sexuaren araberako pautara argirik.

Telebistaren erabilera

Telebista kontsumitzeko denbora faktore garrantzitsua da hedabide horretatik egiten den erabilera baloratzeko. Oro har, gehienek (% 53,1ek) telebista ordubete eta bi ordu bitarte ikusten dute astegunetan, eta ordubete eta hiru ordu bitarte asteburuan (% 47,9). Mutilen eta nesken arteko aldeak oso txikiak dira, baina, badirudi mutilek neskek baino pixka bat gehiago ikusten dutela telebista. Bestalde, oso esanguratsua da % 7,7k telebista lau ordu baino gehiago ikusten duela astegunetan, eta asteburuetan, berriz, % 10,6k ikusten duela telebista lau ordu baino gehiago.

Adinari erreparatuta, esan daiteke joera naturala dela zenbat eta urte gehiago izan orduan eta telebista gehiago ikustea; hala eta guztiz ere, 15 edo 16 urteko adinera iristean kontsumoa geratu egiten dela dirudi, agian gazte horien aisia betetzen duten eginbeharren ondorioz.

Bestalde, telebistaren kontsumoa nagusiki egongelan gertatzen da: % 86,8. Interesgarria da azpimarratzea ohitura horrek behera egiten duela adingabeak urteak betetzen doazen neurrian, agian beren espazioa bilatzen joaten direlako; hala eta guztiz ere, telebista leku horretan ikusteko aurretiko joera ez dago zuzenean adinarekin lotuta; izan ere, ez dago joera zehatz bat, nahiz eta argi antzematen den neskek direna hori gehien egiten dutenak. Sukaldea da ikasle nafarrek telebista ikusteko erabiltzen duten bigarren lekua, % 15,2rekin. Datu horrek agertzera ematen du ez dagoela telebista erabiltzearen eta edukitzearen arteko parekotasunik.


Aparatuaren erabilera pribatuari dagokionez, minoritarioa dela esan daiteke, nahiz eta inkestatuena % 18,2k bere belan ikusten duen telebista, eta % 3,5ek anai-arrebaren gelan. Horrek esan nahi du % 42,5ek bere logelan telebista duen arren, horien erdiak baino ez duela erabiltzen.

Telebista ikusteko lagunik ohikoena ama (% 70,4) eta anai-arreba (% 68) izaten dira, eta ondoren aita % 64,2rekin. Oso aipagarria da gurasoak telebistan lagun dituztenen ehunekoek ere adinarekin gora egiten dutela. Esate baterako, telebista amarekin ikusten duten 10 urte haurrek gutxiagatik gainditzen dute % 60ko muga; 17 urteko nerabeen artean, ordea, % 72,2k ikusten du telebista amarekin. Oro har, mutilek aitarekin ikusten dute gehiagotan neskek baino, eta neskek amarekin ikusi ohi dute (aldekak, dena den, ez du % 6 gainditzen). Anai-arrebak ondoan izatea gazteak telebistaren aurrean daudenean garrantzitsua da haurraren guztizko garapenerako, baina telebista ikusteko orduan ez da hain garrantzitsua, askotan anai-arrebak ere ez direlako helduak izaten.

Dena den, haur eta gazteek telebista askotan guztientzako lekuetan eta helduekin ikusten dutela dirudien arren, asko dira, oraindik ere, bakarrik ikusten dutenak, % 54,2 hain zuzen ere. Helduak dira hori gehien egiten dutenak, baina oso aipagarria da 10 urteko haurren % 42,4k telebista bakarrik ikustea. Kontsumo-denbora 16 urtekoen muga geratzen den bezala, ehunekoaren gorabidea une horrexetan geratzen da, eta behera ere egiten du.

4. irudia

Telebista bakarrik ikusten du



Beste arlo bati buruz ari garela, Nafarroako ikasleek pentsatzen dute beren etxean telebista gehien ikusten dutenak –% 32,7– beren anai-arrebak direla, nahiz eta haiek ere oso hurbil dauden –% 30,2–. Hartara, bada, badakite etxeko helduak direla programa gehien ikusten dituztenak. Eta hori, zeharka bada ere, ona da seme-alabaren hezkuntzarako, ikusten dutena egiten baitute.


Galdetzen badugu zeinek erabakitzen duen telebistan zer ikusiko duten, erabakiak oso orekaturik ageri dira, nahiz eta aita izan botere handiena duena, kasuen % 59,1en. Ama ere erabakitzeko agente garrantzitsua da, % 49,6rekin, baina ondotik, eta oso hurbil, inkestatua bera dator, eta adierazten du bera dela aukeratzeko duena –% 47,3–. Azken batean, horrek sendotasuna ematen die arestian aipatu ditugun datuei, hain zuzen ere haurrak telebista norekin ikusten duen adierazten dituzten datuei; horrek guztiak, bestalde, agertzera ematen du gurasoek nolako garrantzia izan dezaketen haurrari telebistari buruzko heziketa ematerakoan.

Gaur egun, telebista irudiak dauzkan irratia izatera iritsi da, fondo gisa pizten dugun aparailu bat, nahiz eta inork ez duen ikusi behar, etxera iristerakoan argiak pizten ditugun bezalaxe. Lurreko Telebista Digitalaren iraultzarekin, aparatua sakonki berriztatu da, zeren eta kanalen aukera zabala eskaintzeaz gainera, programa ugari ere eskaintzen baititu, zeinak egiaz irradi-emisoreak baitira, eta etorkizunean erosketak egiteko kanalak, Internet...; horrek guztiak are arrazoi gehiagorekin eraginen du “beti piztuta dagoen aparatua” izatea. Eta hainbestearainokoa da hori, non haurrak eta gazteak gauza baitira guztiz bestelakoak diren eginbeharrak egiteko ustez publizitatea ikusten ari diren bitartean. Sobera ezagutzen dugu gazteenek gauza anitzetan batera aritzeko duten gaitasuna, eta gaitasun hori komunikabideak erabiltzeko moduan ere gauzatzen dute. Ordenagailuan etxeko lanak egiten dituzten bitartean beren lagunekin elkarriketan aritzeko gauza badira edo SMS bat idazten ari diren bitartean Interneten nabigatzen egoteko gauza badira, zer ez dute egiten telebista bezalako aparatu pasibo batekin?

Lehen ere azaldu izan dugu otorduetan giro osasungarria edukitzearen garrantzia, eta datuak ikusita are gehiago: haurren % 57,6k dio telebista ikusten duen bitar-

5. irudia

Telebista ikusten den bitartean egiten diren jarduerak



tean jaten duela. Eta pantaila horrek otorduetan parterik ez izatea gomendagarria den arren zerbait dela-eta piztu behar baldin bada, erabaki hori etxeko helduek hartu behar dute haurren hezkuntzarako onuragarria izan dadin, edo, bestela egoera horrek elkarrizketa erraz dezan.

Horri buruz ari garela, beste datu kezkarri bat agertzen da: Nafarroako ikasleen % 21,6k telebista ikusten duen bitartean egiten ditu etxeko lanak edo ikasten du. Horrek kontzentrazio arazoak eragin ditzake, eta arazo horiek ondorioak izan ditzakete adingabearen prestakuntza akademikoan. Gainera, %9,6k dio aldi berean egoten dela telebista ikusten eta irakurtzen. Datu horietatik ondoriozta daiteke jokabide hori ikaslearen adinari edo sexuari baino gehiago ikaslearen beraren izaerari egotzi behar zaiola. Lo egitea da hurrek telebistaren aurrean daudenean egiten duten bigarren gauza –% 21,1–; horrek esan nahi du, halaber, ez dituztela bi jardura batera egiten, zeren eta ez baitira telebista ikusten egoten, baizik eta lo egiten. Azkenik, inkestatu ditugun mutilen eta nesken % 11,5ek Interneten nabigatzen dute telebista piztuta dagoen bitartean.


Edukiak

Gai honetan sartu aurretik, argitu beharra daukagu hurrek programa bat edo bestea nahiago izateak ez duela esan nahi maiztasun jakin batez ikusten duenik, zeren eta gerta baitaiteke gustatu izatea behin ikusi zutelako, eta beste behin ere ikusi ez izatea edo horretarako baimenik lortu ez izatea.

Haurrentzako edukien aukeraketa zenbait ardatzen arabera egin behar dute gurasoek, adingabeen gustuez haratago. Horri dagokionez, garrantzitsua da progra-

6. irudia

Gustukoena diren programak eta debekatutako programak



maren gaia egiaztatzea, zein kanaletatik emititzen den, eguneko zein ordutan eta zenbat irauten duen. Hala eta guztiz ere, hurrek nahiago izaten dituzten programak oso argigarriak dira. Nafarroan inkestatu ditugun ikasleen % 76,4ri 'Los Simpson' gus-

tatzen zaizkie, hain zuzen ere helduentzat sortutako marrazki bizidunen programa bat, txikienean gustuetan ere sakon sartu dena, hainbestera non 10 urteko haurren % 77,2k –batez bestekoa baino gehiagok– baitio programa hori izugarri gustatzen zaiela. Bigarren lekuan, eta erantzunen % 53,5ekin, ‘Aquí no hay quien viva’ programa ageri da, zeina jada ez dagoen parrillan, nahiz eta telebistan arrakasta itzela izan duen; ondoren ‘Aída’ programa heldu da, baiezko erantzunen % 43rekin.

Telebista familiako ingurunean

Familiaren hezkuntza-bitartekaritza ez datza soilik telebista seme-alabekin ikustean edo haiek telebista aurrean bakarrik uztean; izan ere bitartekaritza hori oso ezinbestekoa da hedabide hori dela-eta ezar litezkeen murriztapenetan, arauetan edo eztabaidetan.

Nabarmentzekoa da inkestaturen % 54,2k dioela ez duela bere gurasoekin eztabaidatzen telebistaren erabilerari buruz. Eta 17 eta 18 urteko ikasleen kasuan, gainera, proportzio hori % 70eraino iristen da. Gurasoekin eztabaidatzen dituztenetatik, % 27,5ek dio eztabaidatzeko arrazoi nagusia telebista kontsumitzeko denbora izaten dela, alde batera utzita programen edukia (% 8,1) eta telebista zein unetan ikusten den (% 13,6).

Bestalde, aukera bat badago haurrak eta gazteak telebista ez erabiltzearekin zigortzekoa, baina horrek beste arrisku batzuk ekar ditzake. Telebista opari edo zigor bihurtuz –arestian Interneti buruz esan dugun bezala– lortzen dugun gauza bakarra da telebista goraiatzea eta hura erdietsi nahi den desio bilakatzea, une on batzuk pasatzeko, informazioa jasotzeko eta ikasteko bitarteko huts bat izan beharrean. Izan ere, adingabeak bitarteko hori ulertu behar du, edukiaren irrealtasuna bistatik ez galtzeko eta bitartekoa bera berezko helburu ez bihurtzeko. Mutilen % 13,8 eta nesken % 14,4 telebista ez ikustearekin zigortzen dituzte, eta inkestatu guztien % 4,2k dio telebista ikusteko baimenarekin saritzen dituztela. Joerak adierazten du haurrek zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta sari edo zigor gutxiago jasotzen dituztela. Horrek adieraz dezake gurasoek ikusten dutela nola seme-alaba arduratsu egiten joaten den.

Bestalde, telebista dela-eta ezartzen diren zigorrak gorabehera, argi dago telebistaren erabilera eta hura ikusteko denborak eta uneak direla-eta arauak ezarri behar direla, bai eta debeku batzuk ere eduki jakin batzuei dagokienez; bestela, adinari dagozkion programen artean gustukoena aukeratzeko eskatzen ahal zaie gure haurrei. Eredu horrekin haurra bere bizi-etaparekin ikusle koherentea izatea lortu nahi da. Hartara, inkestaturen % 51,2k dioten arren programa guztiak ikusteko baimena dutela, ehuneko hori kutsatuta dago neska-mutil nagusiagoen datuekin, batez ere 14 urtetik aurrerako datuekin. Programa guztiak ikusteko baimena ez dutenentzat, ‘Gran Hermano’ da maizena debekatzen dena, % 23,8rekin, eta ondoren, % 15,1ekin, ‘Motivos Personales’ dago, jada kenduta dagoena, eta azkenik, ‘CSI’, % 13,9rekin.



Ondorioak

Ondorio orokorrak

- **Oso ekipaturik.** Nafarroan aztertu ditugun etxeak oso ongi ekipaturik daude; izan ere, batez bestekoa naziokoaren gainetik dago. Nabarmenagoa bada ere eskolako adinean dauden haurren etxeetan ekipamendua handiagoa dela, adierazgarria da, era berean, %96k gutxienez ere ordenagailu bat duela eta % 84k Interneteko konexioa. Gainera, esan daiteke haurrak berak oso ongi ekipaturik daudela: gutxienez ere % 25ek bere pantaila propioak dauzka, hau da, bere logelan, eta horrek bidea ematen du bitarteko horiek modu pribatuan erabiltzeko.
- **Teknologia berrietan adituak.** Nafarroako haur eta gazte gehienek aspaldidantzik dauzkate aztergai ditugun teknologiak eta hedabideak; hori dela eta, pantailen erabileraren inguruko ezagutza etengabe berritzen doa. Hain zuzen ere, % 52,4k dio 10 edo 11 urterekin izan zuela Internetetikiko lehenbiziko kontaktua, eta % 77,8k dio bere lehenbiziko sakelako telefonoa 11 urterekin lortu zuela.
- **Teknologia aisiarako eta denbora-tarte libreterako eremu gisa.** Haurrek pantailak nola erabiltzen dituzten begiratuta, aisialdirako halako joera bat antzematen da, zeren eta batez beste denbora gehiagoz asteburuan erabiltzen baitituzte ikasle gehienek.
- **Komunikazio-pantailak.** Haur eta gazteei teknologia baliagarri zaie, batez ere, bere hurbilekoekin komunikatzeko: senideekin, ikaskideekin eta bereziki lagunekin. Esate baterako, txata edo Messenger Interneteko erabileraren gailurrean daude, eta gauza bera gertatzen da SMSekin sakelako telefonoen erabilerari dagokionez.
- **Teknologia ez ditu lilurutzen.** Inkestatu ditugun ikasle nafarrak teknologien erabiltzaile handiak dira, baina hori ez da eragozpena oinarritzkoa dena eta ezinbestekoa dena bereizteko gaitasuna izateko. Ongi ezagutzen dituzte pantaila bakoitzak dauzkan alde onak, baina aldi berean diote beren bizitzak ez lukeela okerrera eginen sakelako telefonorik gabe geldituz gero, eta ez dute uste Internet edo bideo-jokoak ezinbestekoak direnik.
- **Pantailak: hobeki lagun gisa.** Komunikabideak baliagarri zaizkie ikasleei, beste ezer baino lehen, beren lagunekin kontaktuan egoteko. Internet haiekin txateatzeko erabiltzen dute, bideo-jokoekin aritzeko ere nahiago dute lagunekin egon, eta joera hori nabarmenagoa da urteetan aurrera doazen heinean. Sakelako telefonoa ere haiekin komunikatzeko erabiltzen dute batez ere... Hau da: pantailak beren berdinekin harreman sozialak edukitzeko bide gisa erabiltzen dituzte.

- **Pantailak bakarrik erabiltzea.** Adierazgarria da pantailak modu sozialean erabiltzen diren arren, gure haurrak eta gazteak askotan bakarrik egoten direla haien aurrean; % 76,4k Interneten bakarrik nabigatzen du; % 54,2k telebista bakarrik ikusten du, eta % 51,8k bideo-jokoak bakarrik erabiltzen ditu. Garrantzitsua da gogoeta egitea pantailak direla-eta jasotzen duten heziketari buruz; izan ere, haien aurrean bakarrik badaude, zailagoa da erabilerari horretan bitartekari aritzea.
- **Ama eta haurraren edo nerabearen eta teknologien arteko topaketa.** Aztertu dugu jada teknologiak betetzen duen eginkizun soziala batez ere adiskideei dagokiela, baina ama da familiaren barruko lokailu nagusia. Familia barruan harekin hitz egiten dute gehien telefonoz (% 46,8), eta harekin beste inorekin baino gehiago ikusten dute telebista (% 70,4) edo hura izan zen lehenbiziko sakelako telefonoa erosi ziena (% 21,6).
- **Imitzaile potentzialak.** Denok dakigu haurrak ikusten duena egiten duela. Hori dela eta, beharrezkoa da hezkuntza printzipio horrekin bat etortzea. Hartara, arau komunak ezarri behar dira etxeko kide guztientzat teknologia berrien erabileran, semeak edo alabak gurasoek egiten dutena ikas dezan.
- **Teknologia familian erabiltzea.** Adingabeek pantailak zuzen erabiltzerakoan garapen osoa lortzeko, senideekiko erabileraren denboraz gozatu beharra dago. Haurrekin edo gazteekin esertzea Sarean nabigatzen ari garenean edo telebista ikusten ari garenean, lotura handiagoa sortzen du seme-alaben, gurasoen eta pantailen artean, eta horrek hezkuntza-bitartekaritza hobetzen du, familiak batera denbora gehiago pasatzeaz gainera. Hori lagungarria da ikasleak ikus dezan gurasoak ere teknologien erabiltzaileak direla, eta erabilerari buruzko erreferentzia egokia izan dezaten.
- **Pantailak guztienak dira.** Garrantzitsua da seme-alabei ikustaraztea komunikabideak edo teknologia ez direla inoren jabetzapekoak; aitzitik, familiako kide guztienak direla. Horretarako, komenigarria da pantailak gune komunetan jartzea, guztiek erabili ahal izan ditzaten; horrek, gainera, errazago egingen du gurasoen bitartekaritza, haurraren ondoan norbait egonen delako beti.

Interneti buruzko edukiak

- **Babes gutxi.** Nafarroako Foru Komunitateko ikasleak teknikoki oso ongi ekipaturik daude ordenagailuen kopuruari eta Sareko konexioei dagokienez; izan ere, hamar haurretatik zortzik baino gehiagok biak batera dituzte. Hala eta guztiz ere, eta ordenagailuak ongi babesturik ez dauden arren (hamar haurretatik seik baino gehixeagok du birusen aurkakorik), joera dago makina babestekoa, eta ez erabiltzailea, edukien iragazki egoki batekin. Horrek berarekin dakar haurra Sarean egon ahal izatea bere adinerako egokiak ez diren edukiak ikusten.
- **Bitartekoaren josteta-erabilera.** Interneteko erabiltzailearen jokabideak agertzeraz ematen du bitarteko hori aisiarako erabiltzen duela. Sarean bisitatzen diren edukiek, nagusiki musika eta bideo-jokoak, eta gehien erabiltzen diren tresnek ere –txata eta Messenger dauden guztien buruan eta oso hurbiletik musika- eta bideo-deskargak– ongi adierazten dute ludikoa dela bitartekoaren erabilera. Gainera, aisialdian erabiltzeak berak ere hipotesi hori berresteko balio du, nahiz eta batzuek informatzeko edo beren lanak egiteko ere erabili.
- **Mundua klik batez.** Haurrentzat Internetek inguruan duten guztiarekiko berehalako konexio-eredu bat sortu du, halako punturaino non lagunekin edo ikas-kideekin harremana izateko erabiltzen baitute. Harremanak aldatu dira eta guztiak zuzenean arin-arin komunikatzen dira. Antzina, haurrak eta nerabeak eskola-orduen ondotik astebururako gelditzen baziren, orain Messengerren bidez gelditzen dira, eta horren bidez hitz eginen dutela adosten dute.
- **Garrantzitsua eta funtsezkoa bereizteko gaitasuna.** Haurrak Interneten erabilera dela-eta hezi behar badira ere, haiek ere, oinarrizko modu batean bada ere, ongi jabetzen dira Sarearen alde onez eta txarrez, eta kontsumorako halako jarraibide batzuk ezartzeko gauza dira. Hau da, gazteak badaki dibertigarriagoa dela adiskideekin gelditzea haiekin txat bidez hitz egitea baino, baina hori ez da oztoppoa txata erabiltzeko haiekin egoterik ez duenean. Gainera, inkestak badaki Webak dibertitzeko ez ezik, beste gauza batzuetarako ere erabil daitekeela, eskaintzen dituen eduki guztiak ezagutzen baititu.
- **Internet jada ez da ordezkoko bitarteko bat.** Sarea sortu zenean, batzuek telebistaren gainbehera aurreikusten zuten arren, ez da halakorik gertatu. Izan ere, haurrak gero eta gazteagotan konturatzen dira Internet erabilia ere ez diotela denborarik kentzen beste ezein jarduerari, zeren eta pantaila hori jada beren eguneroko bizitzako beste lantxo bat balitz bezala integratu baitute. Inkestan ikus daiteke nola ikasle helduenek dioten beste gauza batzuei denbora gehiago kentzen dietela Sarea erabili ahal izateko, eta txikiagoen kasuan guztiz kontrako.

- **Erabilera-denbora da kezka, eta ez horrenbeste edukia.** Gaur egun, Interneti buruz eztabaidatzeko arrazoi nagusia erabilera-denbora da, denbora horretan zer egiten den alde batera utzita. Horrek esan nahi du gurasoak oraindik ere gehiago begiratzen diotela Internet gutxi erabiltzeari, ongi erabiltzeari baino. Jarrera hori, denbora-kopuruari erreparatzea eta ez edukiari, haurrak babesteko baliagarria izan badaiteke ere, eragotzi ere egin dezake haurrek Internet erabiltzea, eta, hartara, bitarteko hori eskola-adinean erabiltzeak izan ditzakeen abantailak gal litezke.
- **Laguntza aktiboaren falta.** Edo bitartekoa ongi ezagutzen ez dutelako, edo denborarik ez dutelako, edo errealtatea aldarazi nahi dutelako, gaurko gurasoak ez dira jabetzen beren seme-alabek Internet dela-eta egiten duten erabilera-buruzko heziketa proaktiboaren beharraz. Ez da nahikoa egoera jakin baten aurrean erreakzionatzea: aurrea ere hartu beharra dago, bitartekoaren erabilera haurraren adinaren arabera egokitzeke. Hartara, inkestaren arabera, demostraturik geratu da hamar haurretatik bati baino gehixeagori laguntzen diotela gurasoek nabigatzen ari den bitartean. Beste batzuek, berriz, kontrol pasiboagoa egiten dute, baina haurren % 40rentzat gurasoek ez dute ezer ere egiten haiek Sarean konektaturik dauden bitartean.
- **Zergatien beharra.** Kasuan kasuko bitartekoari buruzko hezkun-tza etenik gabeko zerbait izan behar du, haurrak bakarrik ere bere burua defendatzen jakiteko, helduarora iristen denean edo inguruan esku hartzeko inor ez duenentzat. Baina hezkuntza hori arrazoitu egin behar da, haurrak, adinaren arabera, ulertu behar dituen argudioekin. Ez da debeku irrazionaletan oinarritu behar, baizik eta haurrak ulertuko dituen arauetan, eta arau horiek koherenteak izan behar dute haur horrek, bere eguneroko bizitzan, dauzkan arauekin, bai eta etxean lehendik dauden arauekin ere.
- **Txataren eta Messengerren erabileran heztea.** Haurrari aukera ematen bazaio bere adiskideekin Internet bidez hizketan aritzeko, aukerarik onena izan daiteke soilik Messengerren bidez konektatzea, eta ez Sareko txat irekiren baten bitartez, non aldi berean edozein ezezagun konektaturik egon daitekeen. Gainera, gomendagarria da Messengerren gehitzea soilik haurraren inguruko adiskideen eta senideen posta-helbideak, eta eragozteka beste internautaren batek hizketaldi horietan sartu ahal izatea.
- **Ez dago errezeta magikorik.** Sareari buruz heztea ez datza formula matematiko bat aplikatzean. Izan ere, kontua da bitarteko hori, oro har, haurraren, familiaren eta eskolaren bizimodu arruntean integratzea. Inporta deuna da haurrak edo gazteak gauzen zergatia ulertzea eta argudio sendo bat izatea, berak konpreni dezakeena.

Sakelako telefonoei buruzko ondorioak

- **Denok sakelako telefonoen bidez konektaturik.** Sakelako telefonoa oso sar-turik dago Nafarroako haurren eta gazteen bizitzetan: % 77,2k badu sakelako telefonorik (14 urtetik aurrera, % 90ek baino gehiagok dute).
- **Jaunartze-efektua.** Aztertu ditugun kasu gehienetan, ikusi dugu lehenbiziko sakelako telefonoa edukitzeko adina 10 urte inguru dela, eta litekeena da horre-la izatea senideek –eta ez beti gurasoek– jaunartzean eginiko oparia delako.
- **Gutxi erabiltzen diren zerbitzu ugari.** Gaur egun, nekez aurkituko dugu sake-lako telefono bat argazki- eta bideo-kamerarik, mp3, Interneteko konexioa eta abar ez duenik. Halere, inkestak erakusten du SMSa eta dei arruntak direla gaz-teenek gehien erabiltzen dutena.
- **Joko bat ere bada.** Telefono-modalitate berriek aukera ematen dute patrikan bideo-kontsola txiki bat ere izateko, eta horrek gero eta zale gehiago erakartzen ditu: lau haurretatik batek adierazi du sakelako telefonoaren bidez jokatzeko duela.
- **Beren bizitza kudeatzea.** Sakelako telefonoa norberaren pantaila bat da, per-sonala eta ia ezin eskualda daitekeena. Horretan, erabiltzailearen datu guztiak daude, bere mezu guztiak, bere kontaktuen agenda, bere argazkiak... Hori dela eta, adingabeak beren bizitzarekin berarekin konektaturik daude sakelakoaren bidez. Gauza propio bat izatearekin, aukera dute beste eremu batzuetan, beste-ak beste gurasoek eta irakasleek kontrolatzen ez dituztelako, gozatzen ez duten intimitateaz gozatzeko... Haurrek aukera ematen die talde bateko –adiskideen edo ikaskideen taldeko– kideak izateko, eta talde horietako kideak diren aldetik beren lengoia propioa daukate, pantaila propio baten bidez erabiltzen dutena.
- **Neskak, erabiltzaile handiak.** Neskak dira teknologia hori gehien erabiltzen dutenak. Pantailen erabilera sozialagoa egiten dute haiek, eta ez aisiarekin hain lotuta dagoen erabilera bat, hain zuzen mutilek egiten dutena. Izan ere, neskei uneoro komunikaturik egotea gustatzen zaie, mundu guztiarekin, ezer ere ez galtzeko.
- **Sakelako telefonoa desmitifikatzea.** Sakelako telefonoaren arriskuak eza-gutzen dituztenez, badirudi haurrak ez direla teknologia horri estekaturik sen-titzen. Ez dute uste beren bizitza aldatuko litzatekeenik sakelako telefonorik edukiko ez balute; halere, aldi berean, uste dute bidaltzen dituzten mezu ia guz-tiak edo egiten dituzten dei ia guztiak oso beharrezkoak direla (hogeita hamar minutu lehenago ikastetxeko patioan SMSen hartzailearekin egon badira ere).
- **Etengabe konektaturik.** Sakelako telefonoa munduaren gainerakoarekin lo-tzeko aukera ematen duen tresna bat da. Eta helduok tarteka eguneroko bizi-tzarekin lotzen gaituen guztitik deskonektatzeko denbora bat behar izaten dugun arren, gure erkidegoko txikienak konektaturik daude beti. % 50ek ez du

telefonoa itzaltzen ikasgelan dagoen bitartean, eta % 73k ez du itzaltzen ikasten ari den bitartean. Gainera, asko dira (% 63) noizean behin ohean daudenean ere mezuak eta deiak jasotzen dituztenak, atsedean egokia eragotziz edo biharamuneko eskola-errendimendua kaltetuz.

- **Familiaren kontrola sakelako telefonoari esker?** Teknologien erabileraren xedeaz jabetu beharra daukagu. Askotan haurrak esaten digu gauza bat arrazoi jakin batengatik behar duela, baino hura eskuratzen duenean guztiz kontrakoa gertatzen da. Izan ere, sakelako telefonoaren kasuan, zalantza argia dago: seme-alabak gurasoei sakelako telefonoa eskatzen die haiei deitu ahal izateko eta non dagoen esan ahal izateko, larrialdiren batean erabiltzeko edo eskolan berandu bukatzen badu..., baina egiaz sakelakoa adiskideekiko harreman sozialetarako nahi izaten du.

Bideo-jokoei buruzko ondorioak

- **Nazioko batez bestekoa baino erabilerari txikiagoa.** Bideo-jokoa Nafarroako Foru Komunitateko neska-mutilek asko eskatzen duten jarduera ludiko bat da, baina erabileraren ehunekoa txikiagoa da nazio-mailan antzeman duguna baino.
- **Adinak eta sexuak definitzen dute 'bideo-jokalaria'.** Bideo-jokoen erabilerari adinak eta sexuak baldintzatuta dago; hartara, handiagoa da gizonezkoen artean eta gazteen artean. Erabileraren ehuneko handiena hamar urteko haurren artean aurkitzen dugu; izan ere, % 88,8k erabili ohi ditu.
- **Bereizitako edukiak.** Bideo-joko motak direla eta, aipatzeko moduko aldeak aurkitzen ditugu inkestaturen sexuaren arabera. Haurrek ekintza-, borroka-edo kirol-edukiak dituzte gustukoena; neskei, aldiz, horiek ez zaizkie hainbeste gustatzen, eta abentura gaiak nahiago izaten dituzte.
- **Jokoan denbora gehiegi astegunetan.** Gure ustez, haur asko daude eskola-egunetan bideo-jokoekin denbora gehiegi ematen dutenak. Gizonezkoen lautik batek, astegunetan, egunean ordubete baino gehiago ematen dute, eta hori guztia eguneko beste jarduera batzuen (eskolako lanak, gizarte- eta familia-harremanak, ariketa fisikoa...) kaltetan izan daiteke. Asteburua iristerakoan, jokoan ematen den denborak gora egiten du, eta hori logikoa da, aisialdi gehiago baitago orduan.
- **Jokalaria bakartia.** Inkestatu gehienak bakarrik aritzen dira jokoan, baina horrek ez du esan nahi beti bakarrik aritzen direnik. Datuei erreparatuta, esan dezakegu bideo-jokoa ere adiskideekin eta anai-arrebekin konpartitzen den jarduera dela.
- **Jokoa familia-jarduera gisa.** Txikia da bideo-jokoak erabiltzen dituzten gurasoen ehunekoa, edo seme-alabekin jolasteko, edo bakarrik aritzeko. Oso interesgarria izanen litzateke, hezkuntza-bitartekaritzaren bat egin ahal izateko, gurasoek gehiago praktikatzea aisia interaktiboko modalitate berri horrekin.

- **Jokoan ematen den denbora da etxeko kezka.** Etxean eztabaidan aritzeko arrazoi nagusia haurrek eta gazteek jokoan ematen duten denbora da. Gure ustez, oso gutxi eztabaidatzen da bideo-joko mota dela-eta, eta arlo horretan gurasoek sentiberago jokatu beharko lukete, jabetzeko zeinen garrantzitsua den, hezkuntzaren ikuspuntutik, seme-alabek erabiltzen dituzten bideo-jokoen edukiak ongi hautatzea.
- **Bideo-jokoak denbora lapurtzen digu.** Haurren heren batek baino gehiexa-gok dio bideo-jokoek ikasteko edo etxeko lanak egiteko denbora kentzen diotela. Bost mutiletatik batek onartzen du adiskideekin edo familiarekin egoteko denbora ere kentzen diotela.
- **Arriskuen kontzientzia.** Nafarroako Foru Komunitateko adingabeek –neskek gutxiago mutilek baino– badakite bideo-jokoek engantxatu dezaketela; izan ere, haietatik laurden batek baino gehiagok uste du jokoan ematen duen denbora-rengatik arazoak dituen norbait ezagutzen duela. Indarkeriazko edukiei buruz ari garela, gizonezko adingabeen artetik seitik batek aitortzen du eduki horiek indarkeria dela-eta duten jarrera aldarazi eta indarra erabiltzearen zaleago bihur dezaketela. Ehuneko hori bi aldiz txikiagoa da nesken kasuan, agian haiek gutxiago aritzen direlako ekintza- eta borroka-jokoetan.
- **Telebista edo bideo-jokoak?** Azkenik, telebista edo bideo-jokoak aukeran eman ez gero, mutil gehienek bideo-jokoak nahiago dituzte eta neska gehienek, aldiz, telebista. Bideo-jokoak nahiago dituztenen kopuruak adinarekin behera egiten du; telebista nahiago dituztenen kopuruak, aldiz, gora egiten du adinarekin.

Publizitateari eta kontsumoari buruzko ondorioak

- **Haurra bestek erosteko eragin gisa eta erosle gisa.** Txikienak inbertsio handia dira iragarleentzat, zeren eta bi rol betetzen baitituzte erosketak erabakitze-ko prozesuan: gero eta erosteko ahalmen handiagoa dute merkatuan, eta gainera gurasoen erosketetan eragin handiena dutenetako batzuk dira. Hartara, gaurkoz gero eta garrantzitsuagoa da haurra erosteko moduak eta publizitatea direla-eta heztea.
- **Asteko paga hezkuntzarako elementu gisa.** Haur edo nerabe batek astero paga bat izatea beste hezibide bat da adin horretan beren dirua irabaz dezaten. Lagungarria da diruaren garrantzia ezagutzeko eta gastuen arteko banaketa egokia egiteko arduratsua izatea sustatzen du; betiere, hori eraginkorra izateko, gurasoek asteko paga hori errespetatu beharko dute, eta ez dute dirua eskatu ahala eman beharko. Nafarroako haurren kasuan gehien hautatzen duten aukera da.
- **6 euro baino gastu txikiagoa.** Adingabeek esaten dute aurreko asteburuan sei euro baino gutxiago gastatu zituztela; halere, % 18,6k dio hamahiru euro baino gehiago gastatu zituela.
- **Litxarreriak, edariak, arropa, sakelako telefonoa eta zinema...** dira Foru Komunitateko ikasleen gastu nagusiak. Aurreneko biak haurra zenbat eta txikiagoa izan orduan eta gehiago ematen dira; gainerakoak, adinarekin batera hazten doaz.
- **Sakelako telefonoa eta arropa: nesken gastua.** Neskak izaten dira komunikatzen diru gehien gastatzen dutenak. Lehen ikusi dugu haiek direla sakelako telefonoa gehien erabiltzen dutenak, eta harekin egiten duten gastuan argi ikus daiteke hori. Gainera, kontsumoari buruzko azterlanetan ohikoa izaten den bezala, haiek dira arropa erosten ere gehien gastatzen dutenak.
- **Publizitateari urrun.** Inkestatu ditugunak gazte izanagatik ere, ez daude publizitatearen aurrean babesik gabe; izan ere, asko dira harekin mesfidati agertzen direnak; horri esker, ikuspegi urruna dute publizitateari eta kontsumoari buruz. Nafarren % 61,6k uste du publizitatea engainagarria dela eta % 10 gutxiagok uste du jendearengan eragina duela.
- **Gurasoak vs. adiskideak, erosketarako eragin gisa.** Beti pentsatu izan da markak halako eragin oker handi bat duela haurren kontsumoaren orduan; hala eta guztiz ere, azterlanak erakusten du eragin hori presente dagoen arren (% 27,3), uste genuena baino txikiagoa dela. Gurasoek erosteko ohituretan duten eragina, berriz, handia da (% 40,9), eta are handiagoa zenbat eta gazteagoak izan; eragin hori, gainera, nesken gan bereziki handia da. Bestalde, haurra nerabe egiten den neurrian, adiskideen inguruaren moda aldatzen joaten da: horixe gertatzen da inkestatuen % 37,7ren kasuan. Hartara, marka eta publizitatea pertsuasioaren bigarren maila batean gelditzen dira, eta horrek adierazten du talde bateko (familia nahiz adiskideak) kideak izatearen sentimendua oso garrantzi handikoa dela erosteko prozesuan.

- **Kontsumismoa.** Dena den, esan beharra dago inkestatuen talde handi samar batek aitortzen duela kontsumo irrazionalaren edo beharrik gabekoaren menpe jokatzeko duela erosterakoan; izan ere, haur eta gazteen % 29,6k dio behar ez dituzten gauzak erosten dituela. Kasu horretan, neskak dira baieztape horrekin ados daudenak, eta zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta nabarmenago.

Telebistari buruzko ondorioak

- **Telebistaren kontsumoa, denboraren menpe egoteaz gainera, beste elementu batzuen menpe ere badago.** Helduen kezkarik handiena oraindik ere haurrek telebistaren aurrean denbora gehiegi pasatzen dutela, baina beste aldagai batzuk ere badaude horretaz gainera. Pantaila non dagoen kokatuta, haurra norekin dagoen telebista ikusten duenean, non ikusten duen eta, garrantzitsuenena dena: zer ikusten duen. Edukia da, askotan, gainerako aldagai guztiak determinatzen dituen elementua (lekua, denbora, norekin dagoen...). Hori dela eta, konstante hori kontrolatuz, gainerako guztiak ere hezi daitezke.
- **Telebista edukitzeak alde aurretiko joera bat bultzatzen du, baina ez du inor behartzen.** Datuek erakusten dute telebista norberaren gelan edukitzeak ez duela esan nahi telebista bakarrik ikusten denik. Alegia, litekeena da inkestatuak nahiago izatea telebista egongelan edo beste gelan batean ikusten egotea.
- **Multitasking haurrak fondoan telebista piztuta dagoenean.** Haurrek gauza anitzetan batera aritzeko duten gaitasuna argi islatzen da aldi berean mezu bati baino gehiagori erreparatzeko duten ahalmenean. Telebista hedabide guztiz pasiboa denez, errazago gertatzen da inkestatuek esatea telebista ikusi bidenabar beste gauza batzuk ere egiten dituztela: jan, Sarean nabigatu, etxeko lanak egin... baina, azken batean, gauza horietako bakar bat ere ez duten % 100 egiten. Egoera horren aurretikoa izan da telebista halako hari musikal bat bilakatu dela, eta ondotik pasatzen den lehenbizikoak piztu egiten duela, eta ez dela sekula itzaltzen oheratzeko ordura arte.
- **Hezkuntza dela-eta koherentziaz jokatzeko.** Ez dugu hedabideei buruzko hezkuntzarik ematen soilik haien kontsumoaren aurka jotzen dugunean; are gehiago, kontsumoa katearen bigarren begia baizik ez da. Lehenbiziko urratsa da bitartekoa eskuratzeko edo ez eskuratzeko erabakitzeari buruz heztea, eta telebistari buruz ari garela, zenbat aparatu eskuratu nahi diren. Bestalde, kokalekua erabakitzea ere funtsezkoa da irakatsi ahal izateko; izan ere, esate baterako, haurrari ez baldin bazaio uzten telebista bakarrik ikusten, telebista jarri beharko da ustez ia beti norbait egonen den lekuan, alegia, egongelan. Ordainpeko telebista kontratatzeke erabakiak ere berarekin dakar haurra horri buruz heztea, zeren eta erabaki horrek ez baitakar berarekin soilik alta ematea. Gainera, oso garrantzitsua da gainerako familia-unitateek (aita, ama, aitona, amona, anai-arrebak...) arau berak izatea.

- **Edukiak hautatzeko bost arau.** Haurrentzako edukiak hautatzeko zalantza baldin badugu, bost aldagai hartu beharko ditugu kontuan. Garrantzitsuena gaiak dira; alegia, gaiak haurrentzat, haurren ezagupeneterako, haurrentzat pertsona den aldetik, egokiak ote diren, eta lehenbiziko iragazkitik aurrera gainerako guztia hartuko da kontuan. Programaren iraupena: ordu txikietan bukatzen bada, hobe da ikusten ez hastea, edo hura soilik ordu jakin batera arte ikustea. Unea: esate baterako, haurrak edo gazteak etxeko lanak egin behar baditu edo afaltzeko ordua baldin bada, hobe da programa ez ikustea. Emisio-kanala: kontuan hartu beharrekoa da, zeren eta haurrentzako edo ikus-entzule guztientzako kanal bat ez bada, iragarkietan eta saioaren hasieran eta bukaeran egokiak ez diren edukiak aurki baitaitezke. Adina: beste ezer baino lehen, ikus-entzulearen adina hartu behar da kontuan, zeren eta itxuraz haurrentzako programak izan daitezkeen batzuk ez dira halakoak, ezta urrik eman ere (Manga erako marrazki bizidun batzuk, helduentzako umorea duten marrazki bizidunak...).

Haurrak soilik ikasteko erabiltzen duen gela bat ez badu, komenigarria da ohitu dadin etxeko lanak beti leku berean egiten, eta ahal izanez gero, beti ordutegi berdinarekin, erraztasunak emateko kontzentrazioa eta lan egiteko metodoak hobetzea ekarriko duen errutina bat izatea lor dezan.



Bibliografia

Guía didáctica para el análisis de los videojuegos. CIDE, 2004.

Estudio de hábitos y usos de los videojuegos. ADESE, 2006.

Uso y actitud de los jóvenes hacia Internet y la telefonía móvil. EBCenter, 2004.

Sánchez Pardo, L., Megías Quirós, I. y Rodríguez San Julián E, *Jóvenes y publicidad.* INJUVE, 2004.

Gordo López, A.J., *Jóvenes y cultura Messenger.* INJUVE, 2006

Miranda de Larra, R., *Los menores en la Red: comportamiento y navegación segura.* Fundación AUNA, 2005.

Jóvenes y teléfonos móviles. Revista de estudios de la juventud, 57. alea, 2002ko ekaina.

Programación infantil en televisión: orientaciones y contenidos prioritarios. IORTV, 2005.

Generation M: media in the lives of 8-18 years old. The Kaiser Family Foundation, 2005.

The media family. The Kaiser Family Foundation, 2006.

Lorente, S. y Martín, J.M. *Infancia, juventud e Internet: nociones básicas y principios para su buen uso.* Lan eta Gizarte Gaiei Ministerioa.

Seguridad infantil y costumbres de los menores en el empleo de la telefonía móvil. Protégeles, 2005.

Seguridad infantil y costumbres de los menores en Internet. Protégeles, 2002.

Castells, P. y Bofarull, I. *Enganchados a las pantallas.* Planeta argitaletxea. Bartzelona, 2002.

Lorente, S., Bernete, F. y Becerril D. *Jóvenes, relaciones familiares y tecnologías de la información y de la comunicación.* INJUVE, 2004.

Infancia y adolescencia en la sociedad de la información. Análisis de la relación con las TIC en el hogar. RED.ES, 2005.

Mc Neal, James; *Children as consumers;* Lexington Books, 1987.

Naval, C.;Lara , S.; Portilla, I.; Sádaba, Ch. *Impacto de las Tecnologías de la Comunicación en la Juventud Navarra.* Nafarroako Gobernua, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua, Iruña 2002.

Naval, C.; Sádaba, Ch.; Bringué ,X., *Impacto de las TIC en las relaciones sociales de los jóvenes navarros,* Nafarroako Gobernua, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua, Iruña 2003.



Galdetegia

1. Zenbat urte dituzu?

10 edo gutxiago
11
12
13
14
15
16
17
18 edo gehiago

2. Sexua

Mutila
Neska

3. Zure ikasmaila

Lehen Hezkuntzako 5. maila edo hortik behera
Lehen Hezkuntzako 6. maila
DBHko 1. maila
DBHko 2. maila
DBHko 3. maila
DBHko 4. maila
Batxilergoko 1. maila
Batxilergoko 2. maila
Erdi mailako gradua

4. Nor bizi da zurekin? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Aita
Ama
Anai/arreba bat
2 anai/arreba
3 anai/arreba
4 anai/arreba
5 anai/arreba
6 anai/arreba edo gehiago
Aitona-amona
Beste pertsona batzuk

5. Zertan lan egiten du aitak?

Langabezian dago
Erretiratua dago
Etxean lan egiten du
Langilea da (lantegi batean ari da, igeltseroa, iturgina, zurgina, nekazaria edo abeltzaina, mekanikaria, administraria eta abar).
Erdi mailako tituluduna (irakaslea, ingeniari teknikoa, banku-langilea, erizaina, saltzailea, militarra eta abar)

6. Zertan lan egiten du amak?

Langabezian dago
Erretiratua dago
Etxean lan egiten du
Langilea (lantegi batean ari da, etxe-langilea, administraria eta abar)
Erdi mailako tituluduna (irakaslea, ingeniari teknikoa, banku-langilea, erizaina, saltzailea, militarra eta abar)
Goi mailako tituluduna (sendagilea, abokatua, arkitektoa, ingeniaria, dentista, irakaslea eta abar)

7. Zer gustatuko litzazuke egitea gehien gaur afal ondoren?

Telebista denbora puska batez ikustea
Musika entzutea
Gurasoekin eta anai-arrebeekin denbora puska batez hitz egitea
Interneten aritzea
Bideojokoan/ordenagailu-jokoan aritzea
Lotara joatea
Liburu bat irakurtzea

8. Notak eman zizkizuten azken aldian, suspenditu al zenuen irakasgai haue-takoren bat? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke. Dena gaintitu baduzu, ez eman erantzunik)

Matematika
Gaztelania eta/edo literatura
Zientziak (Ingurunea, Natur zientziak, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia)
Hizkuntzak (ingelesa, frantsesa eta abar)
Geografia eta/edo Historia
Kultura Klasikoa edo Latina
Filosofia/Etika/Erlijioa
Beste batzuk

9. Adierazi zer irakasgai duzun gustukoen. (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Matematika
 Gaztelania eta/edo literatura
 Zientziak (Ingurunea, Natur zientziak, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia)
 Hizkuntzak (ingelesa, frantsesa eta abar)
 Geografia eta/edo Historia
 Kultura Klasikoa edo Latina
 Filosofia/Etika/Erljioa
 Beste batzuk
 Batere ez

10. Zenbat denbora erabiltzen duzu egunean ikasteko eta eskolako lanak egiteko, eskola orduak kontuan hartu gabe?

Deus ez
 Ordu erdi bat
 Ordu bat
 Ordu batetik bira
 Bi ordutik hirura
 Hiru ordutik gora

11-12. Hauetako zer esaldi aukeratuko zenuke? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Gehiago ikasi beharko nuke, nik uste
 Gurasoek uste dute gehiago ikasi beharko nukeela
 Halako ordutegi jakin bat dut ikasteko eta bete egiten dut

13. Ba al duzu inolako laguntzarik ikasteko edo eskolako lanak egiteko? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Ez, bakarrik aritzen naiz
 Bai, amak laguntzen dit
 Bai, aitak laguntzen dit
 Bai, anaiak edo arrebak laguntzen dit
 Bai, irakasle partikular bat etortzen da etxera
 Bai, irakasle partikular baten etxera noa
 Bai, akademiara noa
 Bai, baina beste laguntza bat dut, aurreko horiek ez bezalakoa

14. Etxean, non ikasten duzu edo non egiten dituzu eskolako lanak?

Ez dut toki finkorik
Nire logelan
Ikasketa gela batean
Sukaldean
Egongelan
Beste toki batean
Etxean ez dut ez ikasten, ez eskolako lanik egiten

15. Irakurtzen ari al zara libururik une honetan, ikastetxean irakurtzeko agintzen dizkizuten liburuez gain?

Ez
Bai

16. Erabiltzen al dituzu ordenagailua eta Internet ikastetxetik kanpo, ikasteko eta eskolako lanak egiteko?

Ez ditut erabiltzen (Jo 18. erantzunera)
Ordenagailua bai; ez, ordea, Internet
Ordenagailua eta Internet erabiltzen ditut

17. Ordenagailua eta/edo Internet ikasteko eta eskolako lanak egiteko erabiltzen badituzu, adierazi zer egiten duzun. (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Entziklopedia multimeditan informazioa bilatzen dut
Web guneetan informazioa bilatzen dut, ikasteko eta lanak egiteko
Testu prozesadore bat erabiltzen dut lanak idazteko; esaterako, word programa.
Lanak aurkezten ditut PowerPoint erabilita edo web guneen bidez
Erabiltzen dut, CD baten bidez ikasteko eta buruketak eta ariketak egiteko.
Buruketak, galdetegiak, esperimenduak edota simulazioak on line egiten ditut
Erabiltzen dut, hizkuntza bat CD baten bidez praktikatzeko eta ikasteko.
Erabiltzen dut, komunikatzeko eta irakasleei laguntza eskatzeko.
Erabiltzen dut, komunikatzeko eta irakasleren bati laguntza eskatzeko

18. Zure irakasleen artean, inork erabiltzen al du Internet, irakasgaia emateko? Edo animatzen al zaitu Internet erabiltzera, ikasteko edo haren irakasgaia lantzeko? (Adibidez, helbide interesgarriak emanez)

Ez, bakar batek ere ez
Bai, batzuek (erdiek baino gutxiagok)
Bai, ia guztiek (erdiek baino gehiagok)
Bai, guztiek

19. Adierazi zer irakasgai ematen duten Internet erabiltzera animatzen zaituzten irakasleek. (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Matematika
 Gaztelania
 Zientziak (Ingurunea, Natur zientziak, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia)
 Hizkuntzak (ingelesa, frantsesa eta abar)
 Geografia eta/edo Historia
 Kultura Klasikoa edo Latina
 Filosofia/Etika/Erljioa
 Beste batzuk

Ordenagailuak eta Internet...

20. Zenbat ordenagailu daude zure etxean (erabiltzen direnak)?

Batere ez (Jo 22. galderara)
 Bat
 Bi
 Hiru
 Hirutik gora

21. Non dago etxean gehien erabiltzen duzun ordenagailua?

Nire logelan
 Anai-arrebaren logelan
 Egongelan
 Gurasoen logelan edo gelan
 Langela, ikasketa gela edo antzeko batean
 Eramangarria da

22. Astegunetan, zenbat denbora erabiltzen duzu ordenagailua etxean, ikas-tetxetik edo institututik kanpo?

Deus ez
 30 minutu edo gutxiago
 Ordu bat
 Ordu batetik 2 ordura
 2 ordutik 3 ordura
 3 ordutik 4 ordura
 4 ordutik 5 ordura
 Ez dakit

23. Asteburuan –larunbatean edo igandean–, zenbat denbora erabiltzen duzu egunean ordenagailua, ikastetxetik edo institututik kanpo?

- Deus ez
- 30 minutu edo gutxiago
- Ordu bat
- Ordu batetik 2 ordura
- 2 ordutik 3 ordura
- 3 ordutik 4 ordura
- 4 ordutik 5 ordura
- Ez dakit

24. Ba al duzu Interneteko konexiorik etxean?

- Ez (Jo 26. galderara)
- Bai

25. Noizdanik duzu Internet etxean?

- Orain dela hilabete bat baino gutxiago
- Orain dela 6 edo 12 hilabete
- Orain dela urte bat edo 2
- Orain dela 2 edo 3 urte
- Orain dela 3 edo 4 urte
- Orain dela 4 urte baino gehiago
- Ez naiz oroitzen

26. 26. Zer lekutan erabiltzen duzu Internet (nabigatzea, txata, e-posta...)? (erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

- Inon ez, ez dut Internet erabiltzen (Jo 50. galderara)
- Etxean
- Ikastetxean
- “Ziber” batean
- Lagun baten etxean
- Beste leku batean

27. Gogoratzen al zara zenbat urte zenituen Internet lehen aldiz erabili zenuenean?

- 10 urte edo gutxiago
- 11 urte
- 12 urte
- 13 urte
- 14 urte
- 15 urte
- 16 urte
- 17 urte
- 18 urte edo gehiago
- Ez naiz oroitzen

28. Astegunetan, zenbat denbora erabiltzen duzu egunean Internet, ikastetxetik edo institututik kanpo?

Deus ez
 30 minutu edo gutxiago
 Ordu bat
 Ordu batetik 2 ordura
 2 ordutik 3 ordura
 3 ordutik 4 ordura
 4 ordutik 5 ordura
 5 ordu edo gehiago
 Ez dakit

29. Asteburuan –larunbatean edo igandean–, zenbat denbora erabiltzen duzu egunean Internet, ikastetxetik edo institututik kanpo?

Deus ez
 30 minutu edo gutxiago
 Ordu bat
 Ordu batetik 2 ordura
 2 ordutik 3 ordura
 3 ordutik 4 ordura
 4 ordutik 5 ordura
 5 ordu edo gehiago
 Ez dakit

30. Astegunetan, egunean zer unetan erabiltzen duzu Internet –nabigatzeko, txateatzeko edo posta elektronikoa–? (Erantzun bat baino gehiago eman daiten)

Goizean
 Arratsaldean, 8ak arte
 Gaueko 8etatik 9etara
 Gaueko 10etatik 12etara
 Gauerdiko 12etatik goizaldeko ordu biak arte
 Ordu bietatik aurrera

31. Asteburuan, egunean zer unetan erabiltzen duzu Internet –nabigatzeko, txateatzeko edo posta elektronikoa–? (Erantzun bat baino gehiago eman daiten)

Goizean
 Arratsaldean, 8ak arte
 Gaueko 8etatik 9etara
 Gaueko 10etatik 12etara
 Gauerdiko 12etatik goizaldeko ordu biak arte
 Ordu bietatik aurrera

32. Adierazi ondoko zer zerbitzu erabiltzen duzun (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke):

Web guneak bisitatzea
Txata eta/edo Messenger
Posta elektronikoa (e-posta)
Sarean dauden jokoak
Foroak edo posta-zerrendak
Erostea
Musika, programak, filmak... deskargatzea.
Beste gauza batzuk

33. Web guneetan sartzen zarenean, hauetako zein eduki kontsultatzen dituzu? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Kirolak
Jokoak
Musika
Softwarea eta informatika
Albisteak
Hezkuntza kontuak
Hobbiak, zaletasunak
Kultura kontuak
Helduak
Beste batzuk

34. Inoiz egin al duzu web gunerik?

Ez
Bai

35. Zenbat posta-kontu dituzu?

Batere ez
Bat
Bi
Bi baino gehiago

36. Txateatzen baduzu, zaren bezalako agertzen zara edo itxurak egin eta beste modu batez agertzen zara?

Beti naizen bezalako agertzen naiz
Batzuetan, itxurak egiten ditut
Beti itxurak egiten ditut

37. Ezagutu al duzu zuzenean zure lagun birtual horietakoren bat?

Ez dut halakorik batere
Baditut, baina ez ditut ezagutzen
Baditut eta baten bat ezagutu dut

38. Internet erabiltzen duzunean, norekin egoten zara? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Bakarrik
Lagun batekin
Hainbat lagunekin
Anai-arreba batekin
Aitarekin
Amarekin
Neska/mutil-lagunarekin
Beste batzuekin

39. Etxean, nork erabiltzen du Internet, zutaz gain? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke):

Aitak
Amak
Anai-arrebek
Beste batzuek

40. Etxean, nork erabiltzen du Internet gehien?

Nik neuk
Anai-arrebek
Aitak
Amak
Beste batzuek

40.2 Etxean, nork daki gehien Interneti buruz?

Nik neuk
Anai-arrebek
Aitak
Amak
Beste batzuek

41. Nork erakutsi dizu Internet erabiltzen? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Inork ez, nik nire kasa ikasi dut
Anai-arreba batek
Neska/mutil-lagunak
Lagunek
Aitak
Amak
Ikastetxeko irakasle batek
Beste batzuek

42. Jarria al duzu babes-sistematik Interneten zabiltzanean? (birus aurkakoak, edukiak iragazteko iragazkia)? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

- Ez
- Ez dakit
- Bai, "iragazki" bat
- Bai, birus aurkako bat
- Bai, su-ebaki bat ("firewall")
- Bai, baina ez dakit zer den

43. Nori edo zeri eskaintzen diozu denbora gutxiago Internet erabiltzen duzuetik? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

- Familiari
- Lagunei
- Neska/mutil-lagunei
- Ikasketei
- Telebistari
- Bideo-kontsolari
- Kirolari
- Deusi ez

Orain, ondoko kontu hauei buruz duzun iritzia jakin nahiko genuke:

44. Ezagutzen dut Internetek erabat harrapatua dagoen pertsona bat edo beste

- Ez
- Bai

45. Batzuetan, gerta daiteke gurasoekin eztabaidan aritzea Internet erabiltzen duzun moduari buruz. Esanen duzu zerk sortzen duen eztabaida? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

- Konektaturik ematen dudan denborak
- Konektatzen naizen uneak
- Konektatuta nagoenean egiten dudanak
- Ez dugu izaten inoiz horri buruzko eztabaidarik

46. Zer egiten dute zure gurasoek Interneten zabiltzan bitartean? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

- Zer egiten dudan galdetzen didate
- Begirada bat egiten dute
- Laguntzen didate
- Gela berean daude
- Nirekin esertzen dira
- Ondoren, non barna nabigatu dudan begiratzen dute
- Nire posta elektronikoa begiratzen dute
- Ez dute deus egiten

47. Interneten zabiltzanean, zer ezin duzu egin, gurasoen arabera? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Zerbait erosi
Txateatu
Zuri buruzko daturik eman
Inkestak bete
Artxiboak jaitsi (programak, musika, filmak eta abar)
Mezuak sakelakoetara bidali
Posta elektronikoak bidali
Jolastu
Ez didate deus debekatzen

48. Saritzen edo zigortzen al zaituzte gurasoek Internet erabiltzearekin?

Ez dute ia inoiz egiten
Bai, saritzen naute eta denbora luzeagoz nabiga dezaket edo Internet erabil dezaket.

49. Internet erabiltzen duzunean, nola ikusten duzu zure burua?

Hasiberria naiz
Erdiko maila daukat
Nire maila aurreratua da
Aditua naiz

50. Niretzat, Internet... (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Oso gauza erabilgarria da
Ezinbestekoa da
Apeta hutsa da
Mendetasuna sor dezake, eta erabat harrapa zaitzake
Ni isolatzea eragin dezake, lagunak alde batera uztea eragin dezake

51. Internet eta telebistaren artean aukeratu beharko bazenu, zerekin geldituko zinateke?

Internetekin
Telebistarekin
Ez dakit

52. Internet eta sakelako telefonoaren artean aukeratu beharko bazenu, zerekin geldituko zinateke?

Internetekin
Sakelako telefonoarekin
Ez dakit

53. Bideojokoan eta telebistaren artean aukeratu beharko bazenu, zerekin geldituko zinateke?

Bideojokoekin
Telebistarekin
Ez dakit

54. Sakelako telefonoaren eta telebistaren artean aukeratu beharko bazenu, zerekin geldituko zinateke?

Sakelako telefonoarekin
Telebistarekin
Ez dakit

Sakelako telefonoak...

55. Erabiltzen al duzu sakelako telefonorik?

Ez (Jo 67. galderara)
Bai, nirea
Bai, beste batzuen (gurasoena, anai-arrebena eta abar)

56. Nork ordaintzen du zure telefonoaren gastua?

Nik neuk
Gurasoek
Beste batzuek

57. Ba al dakizu zenbat gastatzen duzun astero?

Ez dakit
3 eurotik behera
3tik 6 eurora bitarte
7tik 12 eurora bitarte
13tik 18 eurora bitarte
18 eurotik gora

58. Zertarako balio ditu sakelako telefonoak nagusiki... (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke):

Deiak jasotzeko
Deitzeko eta deiak jasotzeko
Mezuak bidaltzeko
Txateatzeko
Interneten nabigatzeko
Jolasteko
Beste gauza batzuetarako

59. Norekin erabiltzen duzu sakelako telefonoa gehien? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke):

Amarekin
 Aitarekin
 Anai-arrebekin
 Beste familia kide batzuekin (lehengusu-lehengusinekin, osaba-izebekin, aito-na-amonekin eta abar)
 Lagunekin
 Mutil/neska-lagunarekin

60. Zer urtetan izan zenuen zure lehen sakelakoa?

9 urtetan edo hortik behera
 10 urtetan
 11 urtetan
 12 urtetan
 13 urtetan
 14 urtetan
 15 urtetan
 15 urtetik gora

61. Nork erosi zizun lehen sakelako telefonoa?

Nik neuk
 Aitak
 Amak
 Anai-arreba batek
 Beste familia kide batek
 Lagun batek
 Beste pertsona batek

62. Bi astez sakelako telefonorik gabe geldituko banintz...

Nire bizitzak hobera joko luke
 Nire bizitzak txarrera joko luke
 Ez litzateke ezer ere gertatuko

63. Zure ustez, beharrezkoak al dira egiten dituzun dei guztiak edo bidaltzen dituzun mezu guztiak?

Bat bera ere ez da beharrezkoa
 Gutxi batzuk dira beharrezkoak
 Asko dira beharrezkoak
 Denak dira beharrezkoak

64. Zenbaitetan, litekeena da zu gurasoekin eztabaidan aritzea sakelako telefonoaren erabilerari buruz. Esanen diguzu zergatik? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Eztabaidak izan ditut, sakelakoa erabiltzen ematen dudan denboragatik
Eztabaidak izan ditut, sakelakoa erabiltzen dudan uneagatik
Eztabaidak izan ditut, sakelakoan gastatzen dudan diruagatik
Ez dugu inoiz izaten horri buruzko eztabaidarik

65. Egoera hauetako zeinetan itzaltzen duzu sakelakoa? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Ikasgelan nagoenean
Zineman nagoenean
Ikasten ari naizenean
Familiarekin nagoenean –otorduetan, telebista ikusten eta abar–;
Beti nago erabiltzeko prest

66. Jasotzen al duzu deirik edo mezurik gauetz ohean zaudenean?

Ez, inoiz ez
Bai, batzuetan
Bai, askotan

67. Zenbat sakelako daude zure etxean?

Batere ez
Bat
Bi
Hiru
Lau
Lau baino gehiago

Bideo-jokoak...

68. Jokatzen ohi duzu bideo-jokoetan edo ordenagailu-jokoetan?

Ez (Jo 78. galderara)
Bai

69. Zerekin, zehazki? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Bideo-kontsolarekin
Ordenagailuarekin
Game-boy edo antzekoarekin
Beste tresna mota batekin

70. Zer joko-genero dituzu gustukoen? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Kirolak
 Rol
 Plataforma
 Ekintza/borroka
 Abentura
 Estrategia
 Simulazioa
 Beste batzuk

71. Astegunez, zenbat denbora erabiltzen duzu egunean bideo-kontsolan edo ordenagailuan jokatzeko?

Deus ez
 30 minutu edo gutxiago
 Ordu bat
 Ordu batetik 2 ordura
 2 ordutik 3 ordura
 3 ordutik 4 ordura
 4 ordutik 5 ordura
 5 ordu edo gehiago
 Ez dakit

72. Asteburuan -larunbatean edo igandean-, zenbat denbora erabiltzen duzu egunean bideo-kontsolan edo ordenagailuan jokatzeko?

Deus ez
 30 minutu edo gutxiago
 Ordu bat
 Ordu batetik 2 ordura
 2 ordutik 3 ordura
 3 ordutik 4 ordura
 4 ordutik 5 ordura
 5 ordu edo gehiago
 Ez dakit

73. Ba al dituzu joko pirateatuak?

Ez, batere ez
 Bai, baten bat
 Bai, ia guztiak

74. Norekin jokatzten duzu? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Bakarrik aritzen naiz
Amarekin
Aitarekin
Anai-arrebekin
Lagunekin
Neska/mutil-lagunarekin
Beste batzuekin

75. Etxean, nork erabiltzen ditu bideo-jokoak/ordenagailu-jokoak, zutaz gain? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke):

Aitak
Amak
Anai-arreba batek
Aitona-amonak
Osaba-izebak
Lagun batek
Beste batzuek

76. Zenbaitetan, litekeena da zu gurasoekin eztabaidan aritzea bideo-jokoen edo ordenagailu-jokoen erabilerari buruz. Esanen diguzu zer dela eta? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Eztabaidak izan ditut, jokatzten ematen dudan denboragatik
Eztabaidak izan ditut, jokatzten dudan uneagatik
Eztabaidak izan ditut, gustuko ditudan jokoengatik
Ez dugu inoiz izaten horri buruzko eztabaidarik

77. Ados al zaude esaldi hauetako batekin? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Bideo-jokoek ikasteko denbora kentzen didate
Bideo-jokoek familiarekin egoteko denbora kentzen didate
Bideo-jokoek lagunekin egoteko denbora kentzen didate
Jokoren batera engantxatua nago
Nik ezagutzen dudan baten bat etengabe arituko da jokatzten etxera iritsi bezain laster
Bideo-jokoen eraginez, pertsona bortitza izatera iritsi naiteke
Askoz ere dibertigarriagoa da inorekin jokatztea bakarrik aritzea baino

Publizitatea eta kontsumoa...

78. Esanen diguzu nola lortzen duzu zeure dirua? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Dirua behar dudanean, eskatu eta ematen didate
 Asteko paga
 Gurasoen opariak une berezietan (urtebetetzean, Eguberrietan eta abar)
 Beste batzuen opariak une berezietan (urtebetetzean, Eguberrietan eta abar)
 Etxean edo kanpoan egindako lanak

79-80. Zenbat diru gastatu zenuen joan den asteburuan?

Deus ez
 3 euro baino gutxiago
 3tik 6ra euro bitarte
 7tik 12 eurora bitarte
 13tik 18 eurora bitarte
 18 euro baino gehiago
 Ez naiz oroitzen

81. Zertan gastatzen duzu zure dirua? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Litxarrerria
 Edariak
 Jostailuak
 Arropa
 Liburuak
 Aldizkariak/komikiak
 Sakelako telefonoa
 CDak eta DVDak
 Zinema
 Janaria

82. Oro har, zerbait erosi nahi duzunean, zerk du eragina zure erabakian? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

TB, irrati, Internet, aldizkari eta abarretan agertzen diren iragarkiek.
 Aldizkarietan, Interneten eta abar, irakurtzen dudana informazioak.
 Gurasoen iritziak
 Zure lagunena iritziak
 Saltzailearen iritziak
 Markak
 Denda motak

83. Zure ustez...?

beharrezkoa al da publizitatea?
ba al du publizitateak eraginik jendearengan?
erakargarria al da publizitatea?
dibertigarria al da publizitatea?
interesgarria al da publizitatea?
engainagarria al da publizitatea?
ezagutzen al dituzte iragarkigileek ongi nire gustuak?
erosten al dut zenbaitetan behar ez dudan gauzarik?

84. Gogoan al duzu asko gustatu zaizun iragarkirik?

Oraitxe, ez naiz oroitzen
Ez zait batere gustatzen
Bai, hauxe: (ez idatzi komatxorik, ezta puntuazio-markarik ere)

Telebista...

85. Zenbat telebista daude zure etxean?

Batere ez (Bukatu duzu galdetegia)
Bat
Bi
Hiru
Lau
Lau baino gehiago

86. Non daude? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Nire gelan
Anai-arrebaren gelan
Egongelan
Gurasoen gelan
Sukaldean
Beste leku batean

87. Ba al duzu etxean ordainpeko telebistarik (Canal+, Digital+, kable bidezko TB eta abar)?

Ez
Bai
Ez dakit

88. Astegunez, zenbat denbora erabiltzen duzu telebista ikusteko?

Deus ez
 10 minutu edo gutxiago
 Ordu bat
 Ordu batetik 2 ordura
 2 ordutik 3 ordura
 3 ordutik 4 ordura
 4 ordutik 5 ordura
 5 ordu edo gehiago
 Ez dakit

89. Asteburuan –larunbatean edo igandean–, zenbat denbora erabiltzen duzu egunean telebista ikusteko?

Deus ez
 10 minutu edo gutxiago
 Ordu bat
 Ordu batetik 2 ordura
 2 ordutik 3 ordura
 3 ordutik 4 ordura
 4 ordutik 5 ordura
 5 ordu edo gehiago
 Ez dakit

90. Non ikusten duzu telebista...? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Nire logelan
 Anai-arrebaren logelan
 Egongelan
 Gurasoen logelan
 Sukaldean
 Beste leku batean

91. Norekin egoten zara telebista ikustean...? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Ni bakarrik
 Aitarekin
 Amarekin
 Anai-arreba batekin
 Beste familia kide batekin
 Lagun batekin
 Beste batzuekin

92. Egiten al duzu hauetako jardueraren bat telebista ikustean? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Ikasi
Eskolako lanak
Jan
Interneten nabigatu
Irakurri
Lo egin

93. Zerrenda honetatik, adierazi, mesedez, zer saio dituzun gustukoena (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Cuéntame
CSI
Hospital Central
Gran Hermano
Los Simpson
Motivos personales
Aquí no hay quién viva
Aída
Batere ez dut gustuko

94. Nork ikusten du gehien telebista zure etxean?

Nik neuk
Anai-arrebek
Aitak
Amak
Aitona-amonak
Beste batzuek

95. Zenbaitetan, litekeena da zu gurasoekin eztabaidan aritzea telebistaren erabilerari buruz. Esanen diguzu zer dela eta? (Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)

Eztabaidak izan ditut, telebista ikusten ematen dudan denboragatik
Eztabaidak izan ditut, telebista ikusten dudan uneagatik
Eztabaidak izan ditut, ikusi ditudan programa motengatik
Ez dugu inoiz izaten horri buruzko eztabaidarik

**96. Telebista familian ikusten baduzu, nork erabakitzen du zer saio ikusi?
(Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)**

Nik neuk
Anai-arrebek
Aitak
Amak
Aitona-amonak
Beste batzuek
Ia ez dugu inoiz telebista elkarrekin ikusten

97. Saritzen edo zigortzen al zaituzte gurasoek telebista erabilerarekin?

Ia inoiz ez
Bai, saritzen naute eta gehiago ikus dezaket telebista
Bai, zigortzen naute eta gutxiago ikus dezaket telebista

**98. Zerrenda honetatik, ba al da gurasoek ikusten uzten ez dizuten saiorik?
(Erantzun bat baino gehiago eman daiteke)**

Cuéntame
CSI
Hospital Central
Gran Hermano
Los Simpson
Motivos personales
Aquí no hay quién viva
Aída
Dena ikusten uzten didate